


## Jagon bilduma

Argitaratutako lanak / Títulos publicados:

1. *Bertsolari txapelketa* 1982. 1983
2. ZZ.EE./AA.VV.  
*Iparragirre*. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.  
*Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2006)*, 2006
4. MIQUEL GROS i LLADÓS  
*Recuperación del Euskera en Navarra*. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Sustapen Batzordea  
*Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz*. 2007
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/  
EUSKALTZAINDIA  
*Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Corpus Batzordea  
*Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. 2008
8. MIQUEL GROS i LLADÓS  
*El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009)*. 2009
9. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS  
*Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord*. 2010
10. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA  
*Ikastola mugimendua. Dabilen berria*. 2010
11. MIKEL ZALBIDE  
*Euskararen legeak bogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. 2010
12. JÜJE ETXEBARNE  
*Gramatika emendakinak. Zuberoko euskaraz*. 2010
13. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA  
*El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010*. 2011
14. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Corpus Batzordea  
*Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. 2011

Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itzaropenak eta testuingurua ere. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko *JAGON bildumak* euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.



Euskaltzaindia  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Académie de la Langue Basque




Hitz-ordena Erabilera estrategikoa



EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
C o r p u s   B a t z o r d e a

# Hitz-ordena

## Erabilera estrategikoa



EUSKALTZAINDIA

Euskal gramatikaz, bi uste oker eta gaizto daude gurean zabaldua: batetik, arautzen duena baino gehiago arautzen duela eta, bestetik, zenbait hizkuntza-baliabideren erabileran nahikoa dela arau gramatikalak betetzea. Hemen, estrategiak ditugu gai nagusi. Eta *estrategia* esatean, *erabakia* diogu. Hain zuzen, erabakiak hartzera bultzatu nahi zaitugu; erabakiak hartzeko gaitasuna lantzeraz; hitz batean, zeure buruaren jabe izatera euskararen erabileran ere.





HITZ-ORDENA  
Erabilera estrategikoa

**JAGON SAILA**  
Corpus batzordea

BURUA  
Andres Urrutia

IDAZKARIA  
Paskual Rekalde

KIDEAK  
Joseba Butron  
Henri Duhau  
Pello Esnal  
Igone Etxebarria  
Juan Luis Goikoetxea  
Andres Iñigo  
Patxi Iñigo  
Xabier Mendiguren  
Patxi Uribarren

EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Corpus batzordea

HITZ-ORDENA  
Erabilera estrategikoa



EUSKALTZAINDIA

BILBO / BILBAO  
2011

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Euskaltzaindia. Corpus batzordea

Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa / Euskaltzaindia, Jagon Saila, Corpus batzordea

132. or: 24 cm. – (Jagon bilduma)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Testu hauen taxuketa, koordinazioa eta argitaratzeko egokitzapena Pello Esnal batzordekideak egin du.

Diseinua: Ikeder, S.L.

Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.

Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-78-2

Lege-gordailua: BI-3003-2011

# AURKIBIDEA

<b>ESTRATEGIAZ, BIGARRENEAN ERE (Aurkezpena) . . . . .</b>	<b>9</b>
<b>SARRERA . . . . .</b>	<b>11</b>
<b>EGITASMOA . . . . .</b>	<b>15</b>
1. Arantzazuko txostena oinarri . . . . .	17
2. Tradizio bikoitzaren harian . . . . .	21
<b>BIDEAK URRATZEN . . . . .</b>	<b>27</b>
3. Testu-antolatzaileak . . . . .	29
4. Mintzagaia eta galdegaia . . . . .	45
5. Erlatiboazko esaldiak . . . . .	55
<b>BI AUKERA . . . . .</b>	<b>73</b>
6. SOA . . . . .	75
7. SAO . . . . .	87
<b>LABURBILDUZ . . . . .</b>	<b>99</b>
8. Osotasunean . . . . .	101
9. Hitz-ordena . . . . .	109
<b>BIBLIOGRAFIA . . . . .</b>	<b>119</b>
Aipatutako lanak . . . . .	121
Adibide-iturriak . . . . .	127





## ESTRATEGIAZ, BIGARRENEAN ERE

Hona hemen *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*, irakurlearen eskura datorren argitalpena, aurretiaz ezagutzen duen *Testu-antolatzailea. Erabilera estrategikoa* (2008) liburuaren hari beretik.

Hark argia ikusi zuen Pello Esnalek gidaturiko esku irmoz, eta bertan eman zen Euskaltzaindiaren Jagon Saileko Corpus batzordearen ahalegina. Ahaleginak ahalegin, ordukoa arrakastatsu eta esanguratsu gertatu bazen, ez dugu gutxiago espero emaitza berri honetatik.

Izan ere, estrategia aldarrikatzen zen orduko hartan eta estrategia aldarrikatu behar da, beste behin ere, euskararen esparruan. Estrategia horrek ahalbidetzen du, besteak beste, hizkuntza-akademiarik dagokion normatibizazio-lana zin-zinezko normalizazio-ekina bihurtzea.

Zabaltzen den ber, euskararen mundua gero eta aberatsagoa da. Aberastasunean, hala ere, mota eta alde asko dira. Horien artean, malgutasunarena, hizkuntzaren erabilera idatzi zein ahozkoetan. Hainbatek bizi dituzten kezak, egunerokoak ez ezik, hats luzeago eta sakonagoak dira, horretan barneraturik baitago euskararen etorkizuna.

Hamaikatzko konponbide eskaintzen dira nonahi egoera honi aurre egiteko. Urliak hiztegia aipatzen badu, sandiak gramatika ekarriko du ezinbestekotasunez jantzia, eta berendiak, azkenean, aurreko horiek bazter utzi eta eskainiko dizkigu bere-bereak dituen konponbide eta irteera ia mirakuluzkoak.

Beude. Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak, begi bistakoa denez, osaterantzeko lana aukeratu du. Lan nekezagoa, egiatan, baina arnasa osokoa, bateratu nahi izan dituelako euskararen batasuna eta eguneroko erabilera duin eta gozoa.

Behinola ondutako euskararen batasuna, askoren ustez, zerbait egina da eta, nonbait, betiko finkatua, hizkuntzak aldaezinak balira bezalaxe. Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak, aitzitik, euskararen batasuna bestela ikusten du. Hain zuzen ere, etengabeko ibilian dabilen hizkuntzaren barnean. Oinarriak jarri baziren ere, oraintxe ari da mamitzen eta gauzatzen oinarri garatzea eta egiaztatzea, oinarri haiek uneoro ezartzen baitira, gizarte garaikide

batek dituen hizkuntza-eskakizunak aintzat hartu eta horiexei erantzun aproposak eman behar zaizkienean.

Testu-antolatzaileak, beraz, lehena; hitz-ordena, aldiz, oraingoa. Bi-biotan, hala ere, erabilera estrategikoa, estrategia horretan baitago gakoa, oraingo eta geroko euskara moldatzeko.

Estrategiari emana, aipagarria da Pello Esnal Corpus batzordekidearen lan eskerga. Bera izan dugu gainontzekook benazko zirikatzaile eta bultzatzaile. Berak garraiatu ditu hainbat testu, sailkatu, bilbatu eta bizkarrezurra eman. Bilbadura horretan batzordekideok gogotsu egin ditugu geure ekarpenak, urratu baino, jorratu eta osotu egin dutenak testuaren irrada bizia.

Hortaz, estrategia, bigarrenean ere. Behin egin da, birritan dihardugu, hirugarrenean ere arituko garelako esperantzan. Horixe berori nahi du Euskaltzaindiak, eta horretan ari da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

## SARRERA

Duela hiru urte, 2008ko irailean, plazaratu zuen Euskaltzaindiak *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* liburua, Jagon Saileko Corpus batzorde honek mamitu eta ondua (Corpus batzordea, 2008). Haren harian, eta hura bultzatu zuen egitasmoaren baitan, dator oraingo *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* hau.

### TAEE

Lau ezaugarri nagusi zituen *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* [TAEE] lanak.

Hasteko, testu-osagaietako bat izan zuen langai: testu-antolatzaileak (Corpus batzordea, 2008: 30-40). Testu-antolatzaileak, zabal ulertuta, ikuspegi gramatikal soila gaindituz.

Baina testu-antolatzaileak, langai soilik ez ezik, bitarteko ere izan genituen TAEE liburuan. Izan ere, arreta berezia eskaini genion estrategiak –eta gaitasun estrategikoa– lantzeari, galdera bat gidari: nola erabili testu-antolatzaileak modu estrategikoan, bai eguneroko ekintza komunikatiboak gauzatze-ko, bai euskal prosa eguneratzeko (Corpus batzordea, 2008: 41-48). Horixe zen gure lanaren bigarren ezaugarria eta, aldi berean, ezaugarri erabakigarria.

Izan da, ezaugarri horretaz ohartu ezean, bide erdian geratu den irakur-lerik, testu-antolatzaileen sarean kateatuta. Horrek berriro gogorarazi digu zein nekeza gertatzen zaigun ikuspegi gramatikal soila gainditu eta ikuspegi estrategikoaz (eta, oro har, komunikatiboaz) jabetzea.

Hirugarren ezaugarria, berriz, lanaren izaera praktikoa da. Nahiz eta ezinbestekotzat jo teoria, ez genuen horretara mugatu nahi izan. Are gehiago, erabakiak hartuz ikasten baita erabakiak hartzen (eta, hain zuzen, horixe da gaitasun estrategikoa: erabakiak hartzen jakitea), behin eta berriro jo genuen benetako testuetara, eta aldeaz eta moldez baliatu genituen adibideak eta egin

genituen zenbait ariketa. Alderdi praktiko honek hartu zituen liburuaren hirugarren eta laugarren kapitulu osoak (Corpus batzordea, 2008: 49-93).

Izango da teoriatik abiatu eta praktika ikasten hasiko denik; baina, azken batean, praktikatuz ikasiko du praktika; are gehiago, praktikak eramango du teoria hobeto ulertzea.

Azkenik, eta hau da laugarren ezaugarria, lan iradokigarria eta irekia egin nahi izan genuen. Ez zen gure asmoa dena esana eta zehaztua uztea. Irakurlearen esku utzi genuen guk esana probatu eta frogatzea, osatu eta gozatzea.

## HOEE

TAAE haren harian eta haren osagarri dator *Hitz-ordena*. *Erabilera estrategikoa* [HOEE]: hark urratutako bidean aurrera egitera.

Neurri batean, HOEE honen ataria izan zen TAAE hura. Izan ere, hitz-ordena oro har genuen buruan, hura lantzen hasi ginenean. Hitz-ordenaren gai baitira testu-antolatzaileak. Eta gai hori lantzeak erakutsiko baitzigun nola landu hitz-ordena oro har.

Hala, lau ezaugarri ditu oraingo lan honek ere, TAAE haren harian. Lehenengo biak esanak daude. Hitz-ordena dugu gai, betiere ikuspegi estrategikotik. Hitz-ordena gauzatzen duten zenbait elementu landuko ditugu, baina ikuspegi gramatikal soila baino zabalagoa eta osoagoa baliatuz eta, betiere, hitz-ordena bera gai.

Alderdi horretatik, aldaketa bat dago HOEE honetan TAAE lanarekiko, izenburuan agerian utzi nahi izan duguna, *Hitz-ordena* nabarmenduz. TAAEen, erabilera estrategikoan jarri genuen arreta nagusia, testu-antolatzaileak ia bitarteko soiltzat hartuta. Orduan, ikuspegi estrategikoa lantzea genuen helburu nagusi. Alabaina, HOEE honetan, behin ikuspegi estrategikoaz jabetu ondoren, bitarteko dugu ikuspegi hori, gai nagusia –hitz-ordena– lantzeari begira.

Dena den, orain ere, lehenengo hartan bezala, aparteko garrantzia aitortzen diogu praktikari eta toki handia eskaintzen adibide eta ariketei, hirugarren kapitulutik aurrera eta, batez ere, azken bietan. Izango da teoria gehiago eta azalpen beteagoak nahi eta eskertuko lituzkeenik. Baina ez dugu beharrezkotzat jo horietan luzatzea; hemen, behintzat. Harrigarria gertatuko zaio gure jokabidea bati baino gehiagori, kontuan hartuta, esaterako, zenbat denbora, arreta eta orrialde eskaini zaizkion gure artean galdegaiaren arazoari. Denborak esango digu asmatu dugun ala ez.

Lau atal nagusitan banatu dugu lana, aurretik Aurkezpena eta Sarrera dituztela, eta atzetik Bibliografia. Atal bakoitzak, berriz, bi edo hiru kapitulu ditu; guztira, bederatzi. Lehenengo atalean, gure egitasmoaren berri ematen dugu,

oinarri hartuta Koldo Mitxelenak Arantzazuko biltzarrerako 1968an prestatu zuen txostena (1. kapitulua); eta gogoratuz Iparraldeko eta Hegoaldeko tradizioen baitan mugitzen garela (2. kapitulua). Bigarren atalean, hitz-ordenaren hiru elementu ditugu langai: testu-antolatzaileak, TAEEd liburuan egindakoa laburbilduz (3. kapitulua), mintzagaia eta galdegaia (4. kapitulua) eta erlatibo-ko esaldiak (5. kapitulua). Hirugarren atalean, bi hitz-ordena nagusiak jorratu-ko ditugu, soil-soil bada ere: Subjektua, Objektua, Aditza (6. kapitulua) eta Subjektua, Aditza, Objektua (7. kapitulua). Laugarren atalean, azkenik, aurrekoetan egin laburbilduz, beren osotasunean ikusten saiatuko gara bai testua (8. kapitulua), bai hitz-ordena bera (9. kapitulua), aurreko kapituluetan erabilitako adibideak berriro ere erabiliz eta adibide berriak baliatuz.

Azken batean, bost irizpidetan oinarri gaitzke euskarazko hitz-ordena landu eta bideratzeko.

Bat. Askotan, gramatikara jotzen dugu zein hitz-ordena erabili jakin nahian. Baina gramatikak, berez, oso arau gutxi eman diezazkiguke horretan ere. Aurreratu dugunez, estrategia egokiek lagunduko digute, gure ustez, hitz-ordenaren arazoa konpontzen.

Bi. Hegoaldean behintzat, galdegaiaren legea erabili ohi da hitz-ordena erabakitzeko orduan. Eta horri jarraiki eratu da, azken ehun urteotan, prosa-tradizio jakin bat. Eta arrakasta izan du didaktikan ere. Dena den, lorpenak lorpen, komeni da gauzak argitzea. Batetik, gogoratzea zer den berez galdegaia. Bestetik, kontuan izatea galdegaiak ez duela zertan, derrigorrean, hitz-ordena baldintzatu behar, nahiz eta lagungarri gerta dakigukeen.

Hiru. Galdegaiak eta iruzkinak gain, badaude beste zenbait elementu hitz-ordena ontzean kontuan hartu beharrekoak; hara nola, testu-antolatzaileak, mintzagaia eta aditza.

Lau. Aditza dela-eta, bi hitz-ordena aipatu ohi ditugu euskaraz: SOA (Subjektua, Objektua, Aditza) eta SAO (Subjektua, Aditza, Objektua). Biak dira gramatikalak eta biak kontuan izan eta erabili dituzte idazle eta hizlari onek.

Bost. Praktikan, gauzak askotan errazagoak izan ohi dira. Tradizioak urratuak eta eginak ditu bideak. Eta guk, jakinaren gainean ala ez, tradizioaren baitan jokatu ohi dugu. Euskararen kasuan, bi tradizioz hitz egin beharrean gara. Eta, gure ustez, gaur egun eskaintzen diogun baino arreta handiagoa merezi du Iparraldekoak, eta ahalegin berezia egin beharko genuke indarberritzeko.

Horiek horrela, aurreko lana baino iradokigarriagoa eta irekiagoa atera zaigu oraingo hau. Zabalik uzten dugu, irakurlearen galdera eta ekarpenen zain. Eta, batez ere, zabalik uzten dugu, irakurleak berak bere bidea egin dezan. Norberak bilatu behar baitu nola urratu eta egin bere bidea: nola eskuratu apurka-apurka gaitasun komunikatiboa eta nola erantzun ahoz nahiz idatziz euskaldunon arteko komunikazio-beharrei.

Liburu honek, kapituluz kapitulu, gonbidapena izan nahi luke, gutako bakoitzak geure egitekoetan gaitasun estrategikoa landu dezagun, erabakiz erabaki, tradizioaren harian, gainerako hiztunekin batera.

Azkenik, ohar bat egin nahi dugu, aurreko lanean bezala, erabili ditugun adibide eta pasarteei buruz. Batzuetan, eredu direlako hautatu ditugu; bestetan, hobe daitezkeelako; eta betiere, argibidea eskaintzen digutelako, dela azken urte hauetan egindako aurrerabideaz, dela gaur egungo beharrez. Inoiz ez da gure asmoa izan inoren lanik gutxiestea; alderantziz baizik. Estimatzen ditugulako erabili ditugu, nahiz eta batzuetan zer hobetua baduten; gure iritziz, behintzat. Izan da zorrotz hartu dugun testurik ere. Baina, azken batean, erabili ahal izateko plazaratzen dira; eta ez da txikia ikasteko edo gogoetak egiteko ematen diguten aukera. Tarteka, jatorrizko testu batzuk zertxobait ukitu ere egin ditugu, gaurko ortografia-arauetara egokituz-eta.

Besterik ez. Asmatuko ahal dugu, apurka-apurka, euskararen hitz-ordena ere lantzen, aurretik asmatu dutenen eskutik eta harian!

Pello Esnal

# EGITASMOA

*Quidquid recipitur ad modum recipientis recipitur*

Hitz-ordena du lan honek gai. Eta planteamendu komunikatiboa molde. Zaharra dugu gaia, askotan landu eta jorratua. Berrixeagoa da moldea, baina hau ere modu batera edo bestera gutako zenbaitek lehendik igarri, iradoki eta landua.

Planteamendu komunikatiboa, azken batean, planteamendu gramatikal soila osatzera eta zuzentzera dator. Eta horren baitan aska dezakegu (jarrai dezakegu askatzen) euskarazko hitz-ordenaren zenbait korapilo.

Izan ere, xede hori du gure egitasmoak, hizkuntza-normalizazioaren harian: euskal prosaren arazoek konponbidean zenbait urrats egiteko laguntza eskaintzea, euskal testugintzaren gaurko egoera abiapuntu eta gure aurrekoek egindakoa aintzat hartuta eta euskal gizartekideok egiten ari garenaren harian.

Abiapuntuan, Luis Villasantek, artean euskaltzainburu zela, euskararen egoerari buruz egindako diagnosi zorrotza dago (Villasante, 1988: 142):

Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.

Ahozko euskarari ere badagozkio hitz horiek; batik bat, komunikabideetako ahozko euskarari, komunikabideetako hizketako jardunak idatzia oinarri duen neurrian.

Aldi berean, gogoan dugu Villasantek berak zer jotzen zuen prosa gutxitu horren errudun nagusia: XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran, euskararen mundua astindu zuen garbizalekeria. Ordu arte, bere bidea egiten



ari zen euskal prosa apurka-apurka, bai euskalki banatan, bai euskalkien arteko batasunean. Garbizalekeriak, ordea, eten egin zuen bilakaera.

Ezaguna dugu zer-nolako eragina izan zuen garbizalekeriak euskal lexikoan; erraz ahantz dezakegu, ordea, sintaxiaren arloan izan zuena, nahiz eta hura bezain kaltegarria suertatu.

Horren ondorioz, Villasantek dioen moduan, “besoz eta zangoz katigatua” geratu zen euskal prosa (Villasante, 1975: XII; 1976b: XV). Prosa gutxitu horren ezaugarriak ere aipatu zituen: testu-antolatzaileen erabilera murriztua eta hitz-ordena desegokia.

Gainera, gaurko gure testugintzaren egoera ulertzeko, beste faktore bat ere kontuan hartu behar da gure ustez, garbizalekeriarekin batera: gramatikaren izenean arautu nahi izana edo ulertu izana, besteak beste, hitz-ordenaren eta testu-antolatzaileen erabilera, soilik gramatikaren alorreko balira bezala.

Euskal gramatikari buruz, bi uste oker bezain gaizto daude euskaldunon artean zabaldua: batetik, arautzen duena baino gehiago arautzen duela eta, bestetik, zenbait hizkuntza-baliabideren erabilera (esaterako, testu-antolatzaileen eta hitz-ordenaren erabilera) nahikoa dela arau gramatikalak betetzea<sup>1</sup>.

Hori esatean, ez gara ari gramatika gutxiesten, baizik eta duen zeregina zehazten: zeregin funtsezkoa eta oinarrizkoa, baina ez erabatekoa.

Villasanteren hitzek ez dute gaurkotasunik galdu. Izan ere, konpondu gabe ditu euskal testugintzak, oraindik, testu-antolatzaileen murrizketak eta hitz-ordena desegokiak sortutako arazoak. Hala ere, azken urteotan egin dugu aurrerabiderik, eta itxaropenez ikus dezakegu eginkizun dugun bidea.

Bidegintza horretan, oinarrizko idatzi bat dugu gidari: Koldo Mitxelena 1968an egindako txostena Euskaltzaindiaren Arantzazuko biltzarrerako. Zehatzago esanda, txostenaren VI. atala (Mitxelena, 1968: 218-219). Harri-garria da zer-nolako gaurkotasuna duen idatziak, berrogei urte geroago ere. Eta, gaurkotasunaz gain, zer-nolako aberastasuna, bere laburrean.

Txostenak, hasteko, esanahi bete hartzen du ikuspegi komunikatiboaren argitan. TAEEn, saiatu ginen irakurketa hori egiten. Huraxe gogoratuko dugu ondoren, lehenengo kapituluan. Gure ustez, oinarri-oinarrizkoa baita moldea. Izan ere, buruko esaldiak dioenez, “jasotzen duenak ontziaren arabera jasotzen du”. Ikusmoldearen eta pentsamoldearen arabera.

Txostenaren VI. atalak berak, horrez gain, eskaintzen du argibiderik euskal testugintzaren tradizioaz mintzatzeko. Bigarren kapituluan saiaturako gara horretan, gainetik bada ere, berriro Luis Villasante lagun hartuta.

---

<sup>1</sup> Lan honetan, gramatikaz ari garenean, gramatika arauemaileaz ari gara beti. Funtsezkoa da ondo bereiztea gramatika arauemaile eta deskribatzailea. Bestela, dena bihurtzen zaigu arau, kate eta lotura.

## 1. ARANTZAZUKO TXOSTENA OINARRI

*Euskal prosa arruntaren izatea, egoera eta buts-beteak aztertu nahi genituzke, "gramatikatasunean" landaturik baina "gramatikatasun" soilean oinak itsasten ez zaizkigularik.*

Koldo Mitxelena

Goiko esaldi horretan dago giltzarria Arantzazuko txostenaren VI. atala ulertzeko. Hori garatuz eskaini zituen Koldo Mitxelenak joskera lantzeko irizpideak.

Argi dago abiapuntua. Joskera lantzeko ere nahitaezkoa dugu gramatika; ez, ordea, nahikoa. Gutxieneko arauak soilik ematen dizkigu gramatikak. Bestelako argibide-iturriak bilatu beharko ditugu.

Mitxelenak berak aipatzen eta azaltzen dizkigu argibide-iturri horiek atal berean. Urteen joanean planteamendu komunikatiboak atzemandako berberak dira.

Ikuspegi komunikatiboa, izan ere, ikuspegi gramatikala osatzera dator, eta hizkuntza-erabileraren ikuspegi beteagoa eskaintzera; bere baitan hartzen baititu lau ikuspegi, elkarren osagarri eta aberasgarri: gramatikala, soziolinguistikoa, testuala eta estrategikoa. Eta gaitasun komunikatiboaz ari garenean ere, lau gaitasun ditugu hizpide, aurreko ikuspegi horien araberakoak, hain zuzen: gramatikala, soziolinguistikoa, testuala eta estrategikoa; laurak batera, osotasun betean.

### 1. Ikuspegi gramatikala

Funtsezkoa da hizkuntzaren ikuspegi gramatikala, funtsezkoa den bezala gaitasun gramatikala. Funtsezkoa eta nahitaezkoa; ez, ordea, nahikoa.

Gramatikaz ari garenean, hizkuntzaren zuzentasunaz ari gara. Gaitasun gramatikalak hizkuntza zuzen erabiltzera garamatza; esaldiak hizkuntza-

arauen arabera sortzera, zer den zuzena eta zer ez bereiziz, arauak jakinaren gaineko izan ala ez.

Hizkuntza baten erabilera aztertuz egiten da gramatika. Erabilera horretan atzemandako legeek eta arauak osatzen dute gramatika. Arau horiek bete ezean, oker erabiliko dugu hizkuntza. Baina arau horiek ez dute hizkuntzaren erabilera osoa arautzen; eta, hizkuntza modu egokian erabiltzeko, ez da nahikoa arau horiek betetzea.

Hain zuzen, testuinguru horretan kokatzen da Mitxelenaren hasierako esaldia (bereak dira kakotxak) :

... euskal prosa arruntaren izatea, egoera eta huts-beteak aztertu nahi ginituzke, “gramatikatasunean” landaturik baina “gramatikatasun” soilean oinak itsasten ez zaizkigularik.

## 2. Ikuspegi soziolinguistikoa

Hizkuntzaren ikuspegi soziolinguistikoak, lehen momentuan, hizkuntza erabiltzen den ingurura garamatza. Nolako testuingurua (igorlearen rola eta xedea, hartzailearen rola, erabilera-esparrua, gaia...), halako erabilera. Eta horixe adierazten du gaitasun soziolinguistikoak: testuingurura egokitze gaitasuna.

Testuinguru horretara egokitze, berriz, hizkuntzaren ondarea du hiztunak eskura: aurreko hitzunek, erabileraren erabileraz, osatu duten ondarea.

Ondareaz ari garela, testu-generoek eta tradizioak ari gara.

Hala, testu-generoek ere osatzen dute hizkuntza. Testu-genero horiek eskura ditu hiztunak, erabili nahi ditueneko. Molde jakin batzuk eskaintzen dizkiote: alde aurretik landutako jarraibideak. Eta jarraibide horien harian gauzatuko ditu ekintza komunikatiboak; batzuetan, bide berriak urratuz, molde zaharrak sormenez gaindituz; gehienetan, molde horiek oharkabean erabiliz, beti dena hutsetik asmatzen ibili gabe.

Era berean, hiztunak eskura ditu tradizioak landutako prosa-moldeak edo hizketa-moduak; hauek ere, baliabide ugariak eskainiz eta komunikazio-bideak erraztuz.

Hiztuna, gaitasun soziolinguistikoa eskuratuz, testu-generoen eta prosa-moldeen eta hizketa-moduen erabileran trebatzen joango da, betiere gizartearen baitan, testuinguru jakin batean, eta hiztunetik etengabeko elkarreraginean, ondarea eta tradizioa eguneratuz.

Ikuspegi honen argitan, esanahi bete hartzeko Mitxelenaren Arantzazuko hitzek:

Lege zaharrei eginahalean eustea da, noski, Euskaltzaindiaren eginbidea eta ez du amorerik emango ezinbestean baizik. Euskal autore gailenak ditu eredu eta, haiei buruzko iritziak denborak gutxi edo gehiago aldatzen baditu ere, badi hor oinarri sendoa.

Maila edo mota bat baino gehiago daude euskara idatzian. Poesia-mintziera landua dugu aspaldidanik eta orain ere lantzen ari zaizkigunak baditugu; bide bat baino gehiago badugu sail horretan eta ez zaio inori debekatzen bide berrietan barrena abiatzea. Orobat esango nuke, hainbestean ez bada ere, elkarrizketari dagokionez, aho-mintzajerari lotuago ageri den elkarrizketari: teatroak, ipuin-eleberriek erakutsi digute zer den eta zer izan daitekeen.

### 3. Ikuspegi testuala

Molde zabalak eskaintzen dituzte testu-generoek; arau zorrotzak ezartzen gramatikak. Testua dago molde zabal eta arau estu horien artean.

Azken batean, ahozko testuetan nahiz idatzietan gauzatzen du hiztunak bere ekintza komunikatiboa, esaldi barneko hitzak ordenatuz eta lotuz, esaldiak ere ordenatuz eta elkarrekin lotuz eta paragrafoak osatuz, informazioa egoki antolatuz eta osatuz...

Osoasuna baita testua: esaldi solteen pilaketa baino gehiago; hainbat zatiren batuketa baino harago: testu-genero baten baitan hezurmamitzen den osoasuna.

Eta osoasun horrek ere baditu bere legeak; hauek ere funtsezkoak, nahiz eta gramatika-arauak bezain zorrotzak izan ez.

Ikuspegi testualari zor diogu hori atzeman izana. Gaitasun testuala erabiliz lortuko dugu egoki antolatutako eta lotutako testuak sortzea, ahoz nahiz idatziz.

Hain zuzen, testuaren arlo honetan kokatu behar dugu, batik bat, Villasantek salatutako premia gogorra. Gogor eraso baitzuen arlo hau garbiza-lekeriak, XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran. Eta oraindik ere ez baitira gauzak beren onera etorri.

Eta horretaz dihardute, behin eta berriro, Mitxelenaren Arantzazuko hitzek ere:

Sartaldeko hizkuntzarekiko prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondotik, jakina, goragokorik aipatu gabe. Era berean, hainbeste ez bada ere, geure hizkuntza.

Ibilaldi horiek hizkuntza, edozein hizkuntza, arinago, zaluago, malguago bihurtu dute. [...] Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik.

#### 4. Ikuspegi estrategikoa

Baina dena ez da arau eta lege, estu nahiz lasai. Behin arau gramatikalak betez gero eta testuaren legeak aintzat hartuta, eremu handi bat zabaltzen zaio hiztunari: askatasunaren (eta erantzukizunaren) eremua.

Eremu horretan, hiztunari berari dagokio erabakiak hartzea. Horretan lagun izango ditu, bai, gure aurreko hiztunek utzi diguten ondarea eta moldatu diguten tradizioa. Baina hiztunak berea du azken hitza, lortu nahi duenaren arabera. Berari dagokio erabakitzea zein aukera hobetsi, zein baliabide hautatu, zein estrategia erabili. Erabakimen honi deitzen diogu gaitasun estrategikoa.

Horretaz ere mintzo da Mitxelena Arantzazun. Are gehiago, (nahiz eta terminoa bera erabili ez) gaitasun estrategikoa aipatuz eta goraiatuz amaitzen du joskeraren atala, sintaxiarekiko eta estilistikarekiko auziei eskainia; eta atal horrekin burutzen du txosten osoa.

Hitz-ordenaz eta aurkitu diren legeak ez dira idazlea estekatzeko kateak, honen kemenak gehi ditzaketen lanabesak baizik, hitzen indar ezkutua nabarmenduz. Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, gaitz betetzen: hizkuntzari bere burua menderatuz, hizkuntza menderatu, hizkuntza-legeen lokarriak eta trabak, airea hegaziarentzat bezala, sostengu eta laguntza bihur daitezten.

#### 5. Laburbilduz

Gaitasun gramatikalaz erabakitzen dugu hizkuntzaren erabileran zer den zuzena eta zer ez. Nahitaezkoa da ikuspegi hori, baina nahikoa ez. Zuzenez gain, egokia ere izan behar baitu hizkuntzaren erabilerak: bai testu-legeen arabera (ikuspegi testualetik) eta bai testuinguruaren arabera (ikuspegi soziolinguistikotik). Eta egokitasun bikoitz hori lantzeko baliabide ezin hobea izango dugu gaitasun estrategikoa.

Gaitasun horiek baliatuz gauzatzen ditugu eguneroko ekintza komunikatiboak, aldian aldiko testuinguruaren arabera, aurrekoak utzitako ondarea etengabe erabili eta eguneratuz.

Gaitasun horiek egoki erabiliz ari gara aurrerabidea urratzen euskal prosaren moldaketan, eta gaitasun horiexek izango ditugu aurrerantzean ere bidelagun.

## 2. TRADIZIO BIKOITZAREN HARIAN

*Lege zabarrei eginabalean eustea da, noski, Euskaltzaindiaren eginbidea eta ez du amorerik emango ezinbestean baizik. Euskal autore gailenak ditu eredu eta, haiei buruzko iritziak denborak gutxi edo gehiago aldatzen baditu ere, badu hor oinarri sendoa.*

Koldo Mitxelena

Hasieran, euskara mintzatua zen. Eta, noizbait, euskara mintzatu hori oinarri hartuta joan zen moldatuz euskara idatzia. Belaunaldiz belaunaldi iritsi dira guganaino ahozko euskara eta euskara idatzia. Tradizio horien baitan geureganatu dugu hizkuntza. Eta horietan oinarritzen ari gara euskararen normalizazio bikoitza, nola hizkuntza-normalizazioa izenekoa, hala normalizazio soziala.

Ahozko euskararen oinarrituz moldatu zuten gure idazle klasikoek euskara idatzia, betiere idatziaren legeak kontuan izanik eta inguruetako hizkuntzen joeren eta tradizio zabalaren harian. Honela gogoratzen du Mitxelenak Arantzazuko txostenean, aurreko kapituluan ere jaso dugunez:

Sartaldeko hizkuntzarekiko prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondotik, jakina, goragokorik aipatu gabe. Era berean, hainbeste ez bada ere, geure hizkuntza.

Ibilaldi horiek hizkuntza, edozein hizkuntza, arinago, zaluago, malguago bihurtu dute. [...] Latinaren, eta erabat sartaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik.

Egungo prosa, gaiak bereizten ez duenean, ez da hizkuntza batekoa eta batena, nazioartekoa baizik: B.L. Whorf-ek “standard average European” deitu zuena. Euskal idazlerik gehienek ere ez dute bestela jokatu. Ezin bazter eta arbuia dezakegu zor diegun hizkuntzaren lantzea, beti irabazle izan ez bagara ere.

Tradizio zabal hori aipatzean, ausart ari zen Mitxelena azpimarratzen zertan datorren bat euskara inguruko hizkuntzekin, noiz eta sarritan zertan ez datorren indartu nahi izan denean. Hitz horiek indar are handiagoa hartzen dute, euskararen joskerari eskainitako atal horretan.

Halaber, intentzio osoz ari zen erreteriarra esaten, buruan bereizi dugun pasartean, lege zaharrei eustea dela Euskaltzaindiaren eginbidea, noiz eta nabarmena izan denean lege zahar horiek baztertzeke ahalegina.

Azken batean, zauri bat du Mitxelenak gogoan: garbizalekeriak Hegoaldean eragin zuen etena, XIX. mendearen azkenaldian eta XX. mendearen hasieran. Halako ondorioak izan zituen. Gera gaitezen etena aztertzen, gero ondorioak aipatzeko.

## 1. Hegoaldeko etena

Etenaz mintzatzeko, ahots aditua dugu Luis Villasanterena. Horixe baliatuko dugu batik bat.

Honela mintzo da gernikarra (Villasante, 1976b: XIV):

Gure artean euskarari lege bat, diziplina bat emateko egin den saiorik eta ahaleginik handiena joan den mende [XIX.aren] azkenean eta gurearen [XX.aren] aitzinaldean egin da. Denok ditugu gogoan horretan saiatu direnen izenak: Arana, Azkue, Txomin Agirre, Lizardi, Altube, Orixe, eta abar.

Halako aro berri bat sortzen da orduan euskal literaturan. Lanean ari diren langileok badute gogoan ideal bat, jomuga eta xede bat, eta berek amestutako lege horren arabera lantzen dute euskara. Ez dira idazleak bakarrik. Badira gramatikariak ere, bada Euskaltzaindia, badira irakasleak, etab.

Azken batean, Hegoaldeko hainbat euskaltzaleren egitasmo handia zegoen saio eta ahalegin zabal horren atzean, ondorio handiak izan zituen. Lariak ere bai, zentzurik txarrean. Honela dio Villasantek berak (Villasante, 1975: XII):

Bada prosa egiteko era internazional bat, behintzat sartaldeko herri eta kultura denek onartua (zenbait xehetasunetan hizkuntza bakoitzak bere era-  
ra etxekotuz). Euskal literatura zaharra ere bide horretan barrena zebilen, gramatikariak sintaxi era horiek galaraztera etorri ziren arte. Eta orduan zer gertatu zen? Euskarari bideak idiki beharrean, hertsu egin zaizkiola. Hizkuntza bera besoz eta zangoz katigatuta gelditu zaigula.

Ez zituen helburu horiek egitasmoak. Nonbait huts egin zuen.

Egitasmo guztien abiapuntuan, egoera jakin baten diagnosi ezkorra eta beltza egon ohi da. Eta, hain zuzen, egoera hori gaintitza izaten du egitasmoak helburu, horretarako egokiak diren baliabideak erabiliz.

Villasantek aipatu berriak ditu egitasmoaren protagonista nagusiak. Eta horien artean: Txomin Agirre, Orixe eta Altube. Horiexen hitzak balia ditza-kegu egitasmoaren ardatza atzemateko, nahiz eta urte-tarte handiak egon idatzi-arten artean.

Txomin Agirrek honela dio 1901ean, *Kresala* eleberriaren hitzaurrean (Agirre, 1988: 42; letra etzana berea da; azpimarra, gurea):

Autortuten dot, begian aurrean daukagun egia da ta, danok era batean izkiratutea askozaz dala garbi, obe ta errazagoa, ta orren bearrean gagozala; baña nik badakit irakurleak eurak daukezela erru andiak (parkatu, baña olango egia edozeñi esan bear jako), irakurlerik geienak erbesteko izkira-legeai lotuegiak dagozala, euren nagitasunak eta ezer ikasteko gogorik ezak ekarri eutsezala illuntasunik, nasterik eta okerrik andienak; bada euskeraz oitu izan diran *izkirakinde edo izkiralege* [ortografia-arau] guztiak ordu erdi baten ikasi leikez edozeñek, gura izan ezkeru. Laster eukiko dogu danontzat lege bat, al danik errezena, garbiena ta onena, ta orduan ikusiko da irakurlien esate ori euren alperkeria estalduteko akiakula bat zan edo ez.

Pasarte horretan daude, zuzenean nahiz zeharka emanak, egoeraren diagnostia, egitasmoaren helburuak eta baliabide nagusia, hirurak euskara idatziaren eremukoak. Diagnostia: euskaldunak (batik bat, Hegoaldekoak) euskaraz irakurtzeko zailtasun handiak ditu, bi eratako kausak direla medio: batetik, idaztarauen batasunik eza eta, bestetik, irakurlea bera lege arrotzetara ohituegia egotea, baina batik bat beraren arduragabekeriaz eta alferkeriaz. Helburua: egoera hori irauli beharra dago; bide batez, irakurlearen aitzakiak nabarmenduz. Baliabide nagusia: lege bat ezarri behar da, ahalik errazena, garbiena eta onena.

Egitasmo hori, berez, egitasmo zabalago baten baitan zegoen, betiere euskara eta beraren egoera indartzea helburu. Izan ere, hizkuntza-normalizaziora mugatu gabe, kontuan hartzen zuen gizarte-normalizazioa ere (Zalbide, 1988).

Marko horretan, beste hari batzuk ere txirikordatzen ziren ardatz nagusi horren inguruan. Esaterako, Hegoaldeko euskaldunei arrotza egingo zitzaieen Iparraldekoen prosa-moldea; batetik beren euskara mintzatuaren moldeetatik urrun samar, bestetik prosa-eredua agian zahar kutsuko. Horrez gain, zeresan handia izan zuen garbizalekeriak, Villasantek sarritan salatu zuenez.

Dena den, argi zegoen zein izango zen baliabide salbatzailea: “laster eukiko dogu danontzat lege bat”.



Hamazazpi urte geroago, “Acento vasco” artikulua plazaratzen du Orixe. Bertan, hauxe dio, “Gernikako arbola” kanta ezagunaren hasiera (Gernikako arbola / da bedekinatua) hizpide hartuta (Ormaechea, 1918: 8; berriro ere, jatorrizkoa da letra etzana eta gurea azpimarra):

Queríendonos decir el bardo Iparraguirre que el árbol de Guernica era bendito, nos dijo: “el árbol de Guernica es el que ha sido bendecido”. Solo por no haber puesto el *da* al fin, con lo cual alteró no solamente la sintaxis, sino también el acento; ó por mejor decir, no solamente alteró el acento, sino también la sintaxis; que lo uno y lo otro son inseparables en nuestra lengua.

Hementxe egon daiteke, gure ustez, Txomin Agirrek iragarritako legearen muina eta oinarria: doinua eta joskera bereizi ezinak (omen) dira euskaran. Bestela esanda: nolako doinua, halako sintaxia (hitz-ordena); eta alderantziz: nolako sintaxia (hitz-ordena), halako doinua.

Azken batean, Orixeren oinarritzko lege horren garapena izango da Altuberen *Erderismos* obra ospetsua, hamar urte geroago –1929an– argitaratua (Altube, 1975).

Obra horretan, euskararen doinuan eta azentuan oinarrituta, xehe-xehe azaltzen du Altubek galdegaiaren legea, eragin handia izango duena Hegoaldeko idazleen eta euskaltzaleen artean. Horren ondorioz, SOA ordena –Subjektua, Objektua, Aditza– nagusituko da Hegoaldeko euskal prosan.

Euskaltzaleen artean, indar handia hartuko du legeak. Eta euskaltzale sutsuek, onartu ez ezik, areagotu egingo dute legea, euskarari buruzko uste okerrak eta sasi-legeak zabalduz, Hegoaldeko giroa ia erabat kutsatzeraino, laugarren kapituluan ikusiko dugunez.

Lege horrek baldintzatuko ditu Hegoaldeko idazleen idatziak ere, Orixerena ere tarteko dela. Horregatik, ez da harritzekoa Koldo Mitxelenak, 1961ean, hauxe idatzi izana Orixe hil berritan (Mitxelena, 1988a: 119).

Orixez geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu.

Laudoriozko hitzak dirudite. Baina kritika-kutsua ere izan lezakete, Pakti Altuna ohartu zenez. Honela utzi baitzuen idatzita (Altuna, 1988: 20):

[Mitxelenak] behin Orixez aitortu zuen [...]: “Doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu”. Azken hitz misteriozko horiek dudan jartzen gaituzte berari atsegin zitzaion ala ez. Ez gara nor bai ala ez esateko.

Zalantza txikiagoa eraginez mintzo da Luis Villasante, hain zuzen *Erderismos* berrargitalpenaren hitzaurrean, egitasmoaren balorazio orokorra egiten duenean (Villasante, 1975: XII).

Zorionean Ipar Euskal Herrian neurritz kanpoko gehiegikeriok eta iraultzok ez dira horrenbestera heldu. Han hemen baino goizago hasi ziren euskaraz idazten; literatur tradizioa hemen baino sendoagoa eta umotuagoa zegoen, eta hemen bezalako etenik ez da han gertatu.

## 2. Ondorioak

Horren guztiaren ondorioz, bi prosa-tradizioz hitz egin dezakegu gaur. Oso soil esanda, zaharra eta berria. Lehenengoa, gutxi erabiltzen da, nahiz eta tradizio luzea duen. Bigarrena, azken ehun urteotan joan da moldatuz, eta gaur (ia) hori besterik ez da erabiltzen.

Arantzazuko 1968ko biltzarra egin zenean, izango zen euskal prosa eredu bakarra amets izango zuenik. Gaur, bi eredu edo tradizioak onartu beste biderik ez zaigu gelditzen. Gero gerokoak.

Gauzak berriro asko soilduz, azken batean, bi prosa-eredu ditugu aurrez aurre. Eta, funtsean, hitz-ordenak bereizten ditu biak: SAO (Subjektua, Aditza eta Objektua) ordena nagusi duena eta SOA (Subjektua, Objektua eta Aditza) nagusi duena. Gramatikaren aldetik, biak dira zuzenak.

Horrek ez du esanahi, ordea, nahierara erabil daitezkeenik. Kontuan hartu beharko da, alderdi testuala ez ezik, testuingurua ere. Eta, Mitxelena Arantzazuko txostenean espresuki esan bezala, testu-generoa:

Maila edo mota bat baino gehiago daude euskara idatzian. Poesia-mintzaera landua dugu aspaldianik eta orain ere lantzen ari zaizkigunak baditugu; bide bat baino gehiago badugu sail horretan eta ez zaio inori debekatzen bide berrietan barrena abiatzea. Orobat esango nuke, hainbestean ez bada ere, elkarrizketari dagokionez, aho-mintzaerari lotuago ageri den elkarrizketari: teatroak, ipui-eleberriek erakutsi digute zer den eta zer izan daitekeen.

Eskueran ditugu testu-generoak: gure aurrekoek eratu eta ondutako testu-moldeak, bakoitza bere legeekin. Baita hitz-ordenari dagokionez ere (Mitxelena, 1988b).



## BIDEAK URRATZEN

*Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, gaitz betetzen: hizkuntzari bere burua menderatuz, hizkuntza menderatu, hizkuntza-legeen lokarriak eta trabak, airea hegaztiarentzat bezala, sostengu eta laguntza bibur daitezten.*

Koldo Mitxelena

Hortxe dago giltza. Bestela esanda, nola erabili gramatika, hizkuntza libre erabiltzeko. Edo, aurreko atalean esandakoaren harian, nola landu gaitasun gramatikala, gaitasun estrategikoa ere lantzeko. Eta hori, hitz-ordenari dagokionez.

Lehenik eta behin, gramatikari berea aitortuz. Gramatikak esaten digu zer den zuzena eta zer ez; zer den euskara eta zer ez. Ezinbestez beteko ditugu gramatikaren arauak. Nahitaezkoa zaigu gutxieneko horiek betetzea.

Behin hori aitortuz gero, beharrezkoa zaigu gramatikaren mugak onartzea. Hasteko, esaldiaren arloa da gramatikarena. Baina esaldia baino gehiago da testua. Beraz, motz geratzen da gramatika. Are motzago, konturatuz gero oso gutxi arautzen duela hitz-ordenaz. Hori nabarmen ikusi genuen testu-antolatzaileak landu genituenean. Hura laburbilduko dugu ondoren, hirugarren kapituluan.

Gramatika bere mugetara ekartzeko ahaleginean, beharrezkoa da gehiegikeria bat salatzea: gramatikaren esparruko jo izana zenbait gai, noiz eta berez horkoak ez direnean. Adibidez, galdegaiari dagozkionak. Laugarren kapituluan ariko gara horretaz, hizkuntzaren mintzagai-egituraren baitan.

Baina, bestalde, bada gramatikaren alorrean gai bat ongi zaindu ez duguna: erlatibo murrizgarrien eta ez-murrizgarrien arteko bereizketa. Askotan nahasten baititugu, euskal hitz-ordenaren kaltetan. Bosgarren kapitulua eskainiko diegu erlatiboazko esaldiei.

Eta hor, arau horiek zedarritu eta aldi berean libre utzitako esparru zabalean, erabakiko du hizkuntza-erabiltzaileak nolako hitz-ordena eratu, eta erabakiak hartuz joango da erabakimena —gaitasun estrategikoa— lantzen.

Pilotari onaren antza du hizkuntza-erabiltzaile onak. Pilotari onak frontoi osoa du bere. Arau gutxi batzuk beteta, behin eta berriro hartzen ditu erabakiak: luze ala motz atera pilota, botera ala bolean sartu... Erabaki onak hartzen dituena da pilotari ona: pilotari estrategikoa. Berdin: behin gramatika betez gero, erabaki onak hartzen dituena da hizkuntza-erabiltzaile ona.

Erabakiak, zerbaiten arabera hatzen dira. Pilota-jokoan, pilota, aurkari, lortu nahi denaren arabera... Hizkuntzaren erabileran, ohitura (tradizio), testuinguru, kanal (ahozko zein idatzi) eta abarren arabera. Hauek esango digute zer irizpide baliatu hizkuntzaren erabileran; baita hitz-ordena erabakitzerakoan ere. Gramatikak bermatzen digu hizkuntzaren erabilera zuzena. Irizpideek bideratzen erabilera egokia.

Askatasunaren eremua ez da legerik gabeko eremua, erantzukizunarena baizik. Askatasuna eta erantzukizuna landuz egingo gara hizkuntzaren erabiltzaile autonomo.

### 3. TESTU-ANTOLATZAILEAK

Hitz-ordena lantzeko, egokia izan daiteke testu-antolatzaileak landuz hastea. Hala egin genuen TAEEn (Corpus batzordea, 2008). Han esandakoak gogoratzera goaz ondoren, ahalik laburren, hiru puntu garatuz soilik: 1) zein diren testu-antolatzaileak, 2) zer ezaugarri dituzten eta 3) horien erabilera estrategikoa.

Esan gabe doa: nahi duenak gure lehen lan hartan ditu, xeheago eta osoago, hemen laburbilduak.

#### 1. Testu-antolatzaileak

Batzuek sinonimotzat jotzen dituzte lokailuak eta testu-antolatzaileak. Baina, nahiz eta lokailuak testu-antolatzaile izan, hauen sail bateko azpisail bat baino ez dira.

Testu-antolatzaileak, azken batean, lotura egiten duten hitzak edo hitz multzoak dira. Esaldiak lotzen dituzte, edo esaldi barruko atalak edo paragrafoak.

Guk, Bronckarten harian (Bronckart, 1996: 270), hiru sail bereizten ditugu testu-antolatzaileetan: 1) testu-markatzaileak (hauen baitan kokatzen dira lokailuak), 2) juntagailuak eta menderagailuak eta 3) adberbioak, adberbio-esapideak eta zenbait preposizio-sintagma. Gurean, aspalditik atzemanak genituen juntagailuak eta menderagailuak, lokailuek zabaldu digute testu-markatzaileak ezagutzeko atea eta erraz atzeman ditzakegu hirugarren sailekoak ere.

#### 1.1. Testu-markatzaileak

Lehenengo sail hau osatzeko, abiapuntutzat hartu dugu Martín Zorraquinok eta Portolés Lázaro gaztelaniazko testu-markatzaileak sailkatzeko egin-dako taula (Martín, Portolés, 1996: 4.081), baina lokailuei dagokiena EGLU III.aren arabera moldatuz (Gramatika batzordea, 1990). Hona hemen taula:

INFORMAZIOAREN EGITURATZAILEAK	IRUZKINGILEAK	<i>ba, horiek borrela...</i>
	ORDENATZAILEAK	<i>lehenik / bigarrenik; (alde) batetik / bestetik...</i>
	ZEHARKARIAK	<i>hau dela-eta, bide batez...</i>
LOKAILUAK	EMENDIOZKOAK	<i>ere, gainera, bestalde / bertzalde, halaber (orobat, berebat), behintzat, bederen, bederik, behinik behin, badere, badarik (ere).</i>
	HAUTAKARIAK	<i>bestela / bertzenaz, osterantzean, gainontzean (gainerakoan, gaineratikoan, gainerakoz), ezpere(n), ezpabere.</i>
	AURKARITZAKOAK	<i>ordea, berriz, ostera, aldiz, aitzitik, bizkitartean, bitartean, bien bitartean, (t)arte horretan, artean, alta, alabaina, alabadere, dena dela, dena den, bala ere (balere), bala eta guztiz ere, baatik / hargatik, horratik / horregatik, barren, badarik ere.</i>
	ONDORIOZKOAK	<i>beraz, bada, hortaz, orduan, honenbestez, horrenbestez, bainbestez, halatan, bala.</i>
	KAUSAZKOAK	<i>zeren, zergatik, alabaina, bada, izan ere.</i>
BIRFORMULATZAI- LEAK	ESPLIKATIBOAK	<i>hau da, bots, alegia...</i>
	ZUZENTZAILEAK	<i>hobeto esan, bestela esan...</i>
	URRUNTZAILEAK	<i>nolanahi (ere)...</i>
	LABURBILTZAILEAK	<i>ondorioz, azken batean, azken finean...</i>
OPERATZAILE ARGUDIOZKOAK	INDARTZAILEAK	<i>benetan, berez...</i>
	ZEHATZAILEAK	<i>adibidez, esate baterako, esaterako, konparazione, kasu...</i>

<b>BERBALDI- -MARKATZAILEAK</b>	EPISTEMIKOAK	<i>noski, jakina, omen, ote, agi danean, antza, dirudienez, nonbait...</i>
	DEONTIKOAK	<i>tira, ondo da. ...</i>
	BESTERATZAILEAK	<i>aizu, aizue...</i>
	METADISKURTSIBOAK	<i>zera, ba...</i>

Ez gaitezke horietara muga, ordea. Izan ere, ikuspegi gramatikal soiletik daude horiek atzemanak. Baina, ikuspegi zabalagoaz jokatzuz, horiez gain testu-markatzaile ditugu era berean, batetik, funtzio bera betetzen duten elementuak, nahiz eta hizkuntza-unitate aldakorrak izan (ikuspegi gramatikalaren arabera, *horregatik* testu-markatzailea dugu, baina *arrazoi horiengatik ez*; *horregatik* unitate aldaezina delako eta *arrazoi horiengatik ez*); eta, bestetik, adberbioak (aditzondo nahiz adizlagun) eta adberbio-esapideak. Hauek, normalean, esaldiaren aurrean joan ohi dira, eta koma artean.

## 1.2. Juntagailuak eta menderagailuak

Aspaldiko ezagunak ditugu juntagailuak eta menderagailuak; aspalditik landu ditugu, ikuspegi gramatikaletik. Orain, ordea, izaera beteagoa hartzen dute ikuspegi zabalagoaz ulertuta.

Hemen, ez ditugu zerrendatuko. Horien berri zehatz-mehatz ematen ari baita Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea (Gramatika batzordea, 1994, 1999, 2005).

Eta ezin ahantzi, besteak beste, *Euskal gramatika deskriptiboa* (Agirre, 1991), *Euskal gramatika osoa* (Zubiri, Zubiri, 2000) eta *Bizkai euskeraren jarraibide liburua* bi-koitza (Arejita (zuz.), 2001, 2005).

## 1.3. Adberbioak, adberbio-esapideak eta zenbait preposizio-sintagma

Hauek ere ez ditugu zerrendatuko.

Azken batean, edozein adberbiok, adberbio-esapidek edo proposizio-sintagmak egin lezake testu-antolatzaileen funtzioa. Normalean, esaldiaren hasieran joan ohi dira, koma bat atzetik dutela.

## 2. Testu-antolatzaileen ezaugarriak

Testu-antolatzaile guztiek, funtsean, egiteko nagusi bat dute, esan dugunez: testu zatiak lotu. Horretaz gain, iragarri ere egin dezakete. Batzuetan, berriz, tarteki ere izan ohi dira.



## 2.1. Lotzaile

Testu-antolatzaileek, lehenengo eta behin, lotu egiten dute. Horixe dute egiteko nagusi.

Lotura (artikulazio) horiek estuagoak dira batzuetan: lotura sintaktikoetan (juntagailu eta menderagailuek gauzatutakoetan); eta lasaiagoak bestetan: esaldien artekoak direnetan (markatzaileek-eta gauzatutakoetan).

Bestalde, batzuetan, testu-unitate handiak lotzen dituzte (esaldiak edo esaldi-multzoak); bestetan, testu-unitate txikiagoak (sintagmak).

Lotura horiek, azken batean, kohesioa ematen diote testuari.

## 2.2. Iragarle

Zenbaitetan, beste egiteko bat ere badute testu-antolatzaileek. Lotu ez ezik, iragarri ere egiten dute: ondoren zer datorren iragarri, ondorengoa nola irakurri (nola entzun) adierazi.

Gaztelaniaz eta frantsesez, testu-antolatzaile (ia) guztiak izan daitezke iragarle; guztiak koka baitaitezke esaldiaren aurrean. Izan ere, iragarle izateko, dena delako testu zatiaren aurretik joan behar dute. Euskaraz, ordea, testu-antolatzaile guztiak ez dira iragarle; batzuek (menderagailu batzuek) esaldiaren amaieran joan ohi baitira; konpletiboak, esaterako.

Beste testu-antolatzaile batzuek (markatzaileek-eta) mugikortasun handia dute esaldiaren baitan: berdin joan daitezke esaldiaren abiaburuan, erdialdean edo amaieran; eta, kasu hauetan, hiztunaren esku dago horiek non kokatu; hau da, zein neurritan egin iragarle.

## 2.3. Tarteki

Halaber, tarteki moduan erabili ohi dira testu-antolatzaile batzuk, koma artean idatziz.

Ia testu-markatzaile guztiak dira tartekiak; baina ez guztiak. Salbuespenen artean daude lokailu batzuk; batik bat, **ere**.

Juntagailuak eta menderagailuak, ordea, ez dira inoiz tarteki.

## 3. Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa

Lehenengo puntuan, hiru sailetan bereizi ditugu testu-antolatzaileak, hauen izaera kontuan hartuz. Baina bestelako sailkapenak ere egin daitezke. Adibidez, mugikortasunaren arabera (aipatu berria dugu hau, antolatzaileen ezaugarrietako bat iragarle izatea dela esatean), bi sailetan bereiz ditzakegu: leku jakinean joan ohi direnak eta erabiltzaileak nahierara koka ditzakeenak.

Lehenengo sailekoak ditugu, adibidez, beti esaldiaren hasieran kokatzen direnak (**eta** koordinatzailea, **baina** adbertsatiboa, **nahiz (eta)** kontzesiboa...) eta beti esaldiaren edo sintagmaren atzean joaten direnak (...**(e)la** konpletiboak, **ere** kontzesiboa, **arte** denborazkoa...). Bigarren sailekoak dira, berriz, ia markatzaile guztiak eta beste zenbait antolatzaile.

Hain zuzen, bigarren sail horretakoek, erabiltzaileak nahierara koka ditzakeenez, aukera ematen dute era estrategikoan erabili ahal izateko. Aukera hori modu desegokian ere balia daiteke. Besteak beste, soilik gramatikari erreparatzeagatik. Izan ere, gramatikaren arabera, berdin ipin daiteke horietako antolatzaile bat esaldiaren hasieran edo amaieran. Ikuspegi testualetik, ordea, desegokia izan daiteke gramatikaletik zuzena dena. Esaterako, zer iragarri behar du atzealdean kokatutako antolatzaileak?

Testu-antolatzailearen erabilera egokiak asko erraz lezake testu baten kohesioa. Hasteko, leku egokian kokatuko ditu testu-antolatzaileak, kontuan hartuz horien lotura- eta iragarle-egitekoa. Aldi berean, tentuz aukeratuko ditu testu-antolatzaileak; adibidez, sinonimoak badira bi antolatzaile –bat beti hasieran joan ohi dena eta bestea beti atzean–, hasierakoa hobetsiz. Azkenik, tarteki gisa erabil daitezkeen testu-antolatzaileak baliatuko ditu pausaldiak adierazteko.

Horrela, euskal prosaren bi arazo nagusiak konpontzeko bidea eskaintzen digu neurri batean testu-antolatzaileen erabilera estrategikoak ere: atzerakarga eta pausaldiak markatzeko zailtasuna (Zubimendi, Esnal, 1993: 171-176; 189-230; Corpus batzordea, 2008: 41-44).

Estrategia horiek, eta beste batzuk, adibide batean ikusiko ditugu argiago<sup>2</sup>. Gero, estrategia horiek banan-banan azalduko ditugu.

<sup>2</sup> Antzeko ariketa asko egin daitezke, eta era askotakoak. Besteak beste, pasarte beraren itzulpenen alderaketa. Esaterako, Ebanjelioko pasarte batena. Adibidez:

Grezieraz: και αλλο επεσεν επι το πετρωδες | [και] | | οπου ουκ ειχεν γην πολλην και ευθυσ εξανετειλεν δια το μη εχειν βαθος γης.

Honela itzuli izan da gure inguruko zenbait hizkuntzatan eta euskaraz:

Latinez: Aliud cecidit super petrosa, **ubi** non habebat terram multam, et statim exortum est, **quoniam** non habebat altitudinem terrae.

Ingelesez: Other seed fell on rocky ground **where** it had little soil. It sprang up at once **because** the soil was not deep.

Frantsesez: Une autre partie tomba dans un endroit pierreux, **où** elle n'avait pas beaucoup de terre; elle leva aussitôt, **parce** qu'elle ne trouva pas un sol profond.

Gaztelaniaz: Otra parte cayó en terreno pedregoso, **donde** no tenía mucha tierra, y brotó en seguida **por** no tener hondura de tierra.

Leizarragak: Eta berze parte bat eror zedin leku harrizuetara, **non** ezpaitzuen lur anhitzik; eta bertan ilki zedin, **zeren** ezpaitzuen lur barnetasunik.

Bibli Elkarte Batuak: Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen tokian; eta, axaleko lurra izanik, berehala erne zen.

### 3.1. Adibidea: “Jainko txikia”

Hona hemen, artikulua beraren bi bertsio: jatorrizkoa (argitaratu zena) eta egokitua (Rose, 1991).

Egokitzailak artikulua ez zuen egokitu, berez, testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa adibidez hornitzeko. Agian, horregatik, adibideak ez dira batzuetan hain nabarmenak. Alde horretatik galdutakoa, ordea, beste aldetik irabazten dugu. Adibideak, naturalagoak eta aberatsagoak gertatzen dira horrela. Egokitzailak testuaren gordinagatik egokitu zuen artikulua, eta jatorrizkoaren (frantsesaren) edukiarekiko leialtasun handiagoa lortu nahian. Ezinbesteko laguntza izan zuen, dena den, euskaraz argitaratutako bertsioa.

Hemen, bi bertsioak errespetatu ditugu funtsean, baina ortografia gaurkotuz. Bestalde, zenbait hitz nabarmendu ditugu: bi bertsiotan, **letra lodian**, testu-antolatzaile esanguratsuenak; eta **letra lodian azpimarratuta**, gero iruzkinduko ditugunak; jatorrizko bertsioan, berriz, azpimarra soilez, testu egokituan antolatzaile bihurtuak.

#### Jainko txikia

##### Maitegia gerta al daiteke haurra?

1. Gaizki maitaturiko haurrak aipatzen direnean, sarri etorri ohi da gogora nahiko maitea ez den bat, are bat ere maitatua ez den bat, sekula ez ordea maitatuegia den bat!
2. Eta pozgarrizat jotzen da gaur gizarteko zenbait sailetan, haurra helduaren interesgune bihurtu delako; baina oraindik finkatzeko dago harreman mota berri hori. Gure garaikideei begiratuz, ikusten da haurra sarri jainko berri ukiezinezko bihurtu dela, izaki sakratua, denek bere babeslekuan gorde nahi dutena, munduko erasoetatik urrun.
3. “Haurra kontutan hartu” izan ordez “hura bizitzako erdigune bi-

#### Jainko txikia

##### Maite al daiteke gehiegi haurra?

1. Gaizki maitatutako haurrak aipatzean, gutxiegi maitatuak etortzen zaizkigu gogora, baina ez gehiegi maitatuak.
2. Pozgarrizat jotzen da, gaur, haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan; baina oraindik zehaztu gabe dago harreman-modu berri horren zer-nolakoa. Gure garaikideei behatzean, ikusten da nola haurra sarri bihurtu den jainko berri ukiezin, izaki sakratu, bakoitzak bere txokoa babestu nahi duena, munduko erasoetatik urrun.
3. “Haurra kontuan hartu”, orduan, “haurra bizitzako erdigune egin” bibur-

hurtu” bilakatzen da orduan. Zenbat gurasok ez du aitortzen, munduko kontzientziarik onenaz bestalde, beren haurra dela “guztia beraientzat”, guraso bezala duten egitekoa guztiz bestelakoa izan beharko zukenean: beraiek izan behar dute erakarpen gunea beren haurrentzat.

4. Haurra, desiratua **denean**, sarri gurasoen ni ideal bilakatuko da: hutsune bat betetzen du, bikotearen garaipen gorena da. **Eta** nork egingo dio aurre jainko txiki bati? Haurra jainkoen mailara jasotzean, ez zaio ezer ukatzen, **eta** gurasoak prest egongo dira beren buruak hilduratzeko haurrak hildurarik izan ez dezan. Guraso askok lanbidea bera edo etxea aldatzen dute, edo are dibortziatu egingo dira, haurraren ustezko “ongizatea dela-eta”. Ordainetan, **noski**, berarengan ipini den itxaropen izugarriari erantzun beharrean izango da haurra.
5. Haurrari erantzuteko prest egoteak **sarri** mendekotasun moduko bat ezkututzen du, bertan gurasoen neurosia azaltzen delarik, baina kultur aldetik dagoen adostasunak eta merkataritzaren presioak joera hori indartzen dutenez oso zaila da azalarazten.
6. Gure hiri modernoetan, parkeak, autobusak, eskolako inguruak, jateak, autotxak kultu berri hau aztertzeke leku apartekoak dira. Alde guztietan errepikatzen da lelo bera: haurra babestu. **Bestela esanda**: bere ekimenak ito eta bere nagikeria indartu.

tzen da. Guraso askok aitortzen dute, gauzarik naturalena balitz bezala, **beren haurra dela “dena berentzat”**, **noiz eta** gurasoen egitekoak guztiz bestelakoa izan beharko lukenean: beraiek izan haurraren erakarpen-gune.

4. Haurra, desiratua **denean**, gurasoek idealizatu egiten dute sarritan: hutsune bat betetzen du, bikotearen garaipenik gorena da. **Eta** nork esan ezetz jainko txikiari? Haurra jainko-mailan ipinita, ez diote ezer ukatzen, **eta** gurasoek nabiago dute beren burua zapuztu, haurra zapuztuta ikustea baino. Askok lanbidea aldatzen dute, edo etxea; eta dibortziatzen ere iristen dira, haurraren ustezko “mesedetan”. Ordainetan, haurrak gai izan beharko du, **jakina**, berarengan ipinitako itxaropen izugarriari erantzuteko.
5. Haurraren gain-gainean egotea, **askotan**, gurasoen neurosia ezkututzen duen morrontza da. **Eta** are ezkututuago gertatzen da, **gainera**, giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik.
6. Gure hiri modernoetako bihotzean, parkeak, autobusak, eskola-inguruak, jateak dira kultu berri horren aparteko bebatoki. Alde guztietan errepikatzen da lelo bera: haurra babestu. **Bestela esanda**: bere ekimenak ito, bere nagikeria indartu.

7. Bi ondorio nahiko nola halako dituen bi postulatutan oinarritzen da jokamolde hau. Alde batetik, gizonak ahalik eta neke gutxienak pairatu behar ditu harmonikoki garatzeko, harmonia kasu honetan elkar osatzen duten indarren arteko oreka baino gehiago istilu gabezia bezala definitzen delarik; bestetik, haurraren egiazko premia berak azaltzen duenera egokitzen da eta hau bere aldetik gurasoek premia horretaz duten iritziarekin bat egiten da.
8. **Bestelako hitzetan**, haurrak, mundura etortzearekin batera, jakingo luke bere senak bultzaturik, zer den on beretzat. Harrigarria kontzientzia oro senaren azalpen soilera murrizte hau. Nolabait, azken mendeko moral victoriarraren gehiegikerien ordaina da.
9. Moral bitxi honek psikoanaliaren ekarpenak ukatzen ditu —handik elikatuz, hala ere—: psikoanaliak garbi azpimarratu du pozak eta nekeak txandaka joan behar dutela haurraren munduarekin dituen harremanetan.
10. Frustrazio modu bat baliozkoa izan daiteke, baldin horrek giza-kia muga baten aurrean jarri eta ezintasun hori bereganatzeko gai izango den egitura psikiko bat garatzeko aukera ematen badio, hurrengoan gisa bereko egoerei hobeto aurre egin ahal diezaien. Frustrazio bat gainditzeko gaitasun hau da gizontxoari bere autonomia astiro eraikitzeko bide ematen diona.
7. Jokaera horren oinarrian, bi uste daude, ondorio zalantzagarririk ditzutenak. Batetik, gizakiak abalik eta neke gutxien jasan behar du era harmonikoan bazteko; eta harmonia, kasu honetan, gehiago da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino. Bestetik, haurraren egiazko premia, berriz, bat dator berak azaltzen duenarekin eta hau ere bat dator gurasoek premiaz duten ideiarekin.
8. **Beraz, haurrak, jai** orduko, senaz jakingo luke zer den on beretzat. Harrigarria: senaren azalpen butsera murrizten da kontzientzia. Nolabait, azken mendeko moral victoriarraren gehiegikerien ordaina da.
9. Moral bitxi honek ukatu egiten ditu psikoanaliaren ekarpenak, nabiz eta bertatik elikatu. Izan ere, psikoanaliarentzat garrantzizkoa da pozak eta nekeak txandatzea, haurrak munduarekin dituen harremanetan.
10. Frustrazio jakin bat onuragarria izan daiteke, baldin eta gizakiari aukera ematen badio egitura psikikoa garatu eta ezintasun hori gainditzeko eta, ondoren, gero eta hobeto aurre egiteko antzeko egoerei. Frustrazio bat gainditzeko gaitasunari esker egingo da ume koxkorra, astiro-astiro, bere autonomiaren jabe.

11. Baina nola bultzatu dinamika hau, inguruak etengabe adierazten **badu** haurra beti asebate behar dela?
12. Helduaren zeregina, **hasteko**, haurrari heldutasunerako bidean laguntzea da, **hau da** errealitateari aurre egiten, ez hari ihes egiten laguntzea. **Beraz**, borondaterik onenez, haurraren eta egiazko bizitzaren artean horma bat altxatzen **badute**, haurrari egiazko esperientzia izan dezan eta erreferentzia puntu egokiak finka ditzan eragozten diote gurasoek.
13. Haurrarekin hitz egitea beharrezkoa **bada**, zenbait pertsona helduren argibide sistematikoek eta beren pazientzia mugagabeak—haurraren tontokeria batzuen aurrean, **adibidez**— errealitatea bere alderdi guztietan sumatzeko gaitasuna ken diezaioke behar-bada haurrari, bizitza bere okerraren aurrean beti onbera izango dela erakutsiz **bezala**.
14. **Era berean**, munduarekiko harreman sentsuala kenduko dio, harreman erabat zerebral baten mesedetan. **Adibidez**: zerbaitek ukituz gero min ematen duela *jakitea*, eta *ukitu* eta *sentitzea* gauza bera al dira? Haurrak **beretz** bilatzen ditu ezin dituen gauzak, bera kokatzeko eta nortasuna eraikitze bide emango diotenak. Aurkitzen **ez baditu**, orain ez bada geroago, hutsune horrek sortzen dion ansia-aren aurrean jokabideren bat hartuko du.
11. *Baina nola bideratu dinamika hori, **non eta** haurra etengabe asebetetzera bultzatzen duen giroan?*
12. *Helduaren zeregina, **leben-lebenik**, haurrari laguntzea da heldu biburtzen; **hau da**, laguntzea errealitateari aurre egiten —**eta** ez bizkar ematen—. Gurasoek, hobe beharrez, hesia jartzen **dutenean** haurraren eta errealitatearen artean, benetako esperientzia eragozten diote eta erreferentzia egokiak finkatzeko aukerak ukatzen dizkiote.*
13. ***Nabiz eta** haurrarekin hitz egitea beharrezkoa izan, zenbait helduren argibide sistematikoak eta pazientzia neurrigabea, ordea —**adibidez**, haurraren txorakeria batzuen aurrean—, kaltegarriak izan daitezke haurrarentzat, murriztu egiten baitiote errealitatea osorik atzemateko gaitasuna, **eta** sinestarazi bizitza beti onbera izango dela bere hutsegiteekin.*
14. ***Horrela**, eragotzi egiten diote munduarekin harreman sentsuala izatea ere, harreman erabat zerebralaren mesedetan. **Adibidez**: berdin al da *jakitea* zerbaitek, ukituz gero, min ematen duela, eta *ukitu* eta *mina sentitzea*? Haurra, **beretz**, erresistentzien bila dabil, bere burua kokatzeko eta garatzeko. Aurkitu **ezean**, hutsune horrek sortutako ansia-aren aurka erreakzionatuko du bihar edo etzi.*

15. Gure haurrek ez dute ikasten gehiago mundura jaiotzen, **eta** adoleszentziako aldaketa jasanezinezko trantze bezala azaltzen zaie. Sarri depresio sakon bat, ziznismoz eta nihilismoz jantzia, agertuko da une horretan, haurrak huts hori, gabezia hori azaleratuko balu bezala: ezerk ez du ukitu, ez du ezer ukitu, beraz ez dio ezerk ukitzen!
16. Nerabe honek ezintasunik txikiena bortizkeria bezala sentituko du, bizitzaren indar bizia jasanezinezko bihurtu zaio. Bere gabeziak jota bizi da, bera egituratu eta ez inguratu soilik egingo lukeen maitasun baten egarri, egiazkora eta honek duen gogortasunera iristeko bide eskaintzen dioten aukerei ihes eginez **ordea** beti ere. Oldarraren eta malenkoniaren erdian harrapatu, sufritzen dagoen izakia ezin da bere kabuz abiatu bizitzara.
17. **Hala**, gizarte laguntzaileak, medikuak, psikologoak edo psikoanalistak gero eta sarriago egin behar diote aurre desespero mota berri bati. Haurraren arazoak ez dira sortu haurtzaro zoritzarreko batetik, **bai aldiz** haurtzaro *mimatu* batetik.
15. Gure haurrek ez dute ikasten mundura "jaiotzen", **eta** jasanezina egiten zaie adoleszentziako aldaketa. **Orduan**, depresio sakon bat sortzen zaie askotan; eta horri, gainera, balako jarriera zinikoa eta nihilista eransten zaio, lehen bizi izandako gabezia azaltzen ariko balitz bezala: ezerk ez du ukitu, ezerk ez du hunkitu, dena zaio biguingarri!
16. Nerabe bonentzat, erresistentziarik txikiena ere bortizkeria da; bizitzaren indar bizia, jasanezina. Gabeziak jota bizi da, eta egituratzeko —eta ez soilik babesteko— aukera emango dion maitasunaren egarri; atzera eginez, **ordea**, errealitatearen eta bonen basakeriara iristeko aukeren aurrean. Agresibitatearen eta malenkoniaren erdian harrapatu, sufritzen dagoen izakiak ezin du bizitzan berak bakarrik aurrera egin.
17. **Hala**, gizarte-laguntzaileak, medikuak, psikologoak edo psikoanalistak etsipen-mota berri batekin egiten dute topo gero eta gehiagotan. Haurraren arazoen sorburua ez dago zoritzarreko haurtzaro batean, **baizik eta**, alde-rantziz, haurtzaro *mimatu* batean.

### 3.2. Estrategiak banan-banan

Azken batean, bi estrategia-sail erabili zituen egokitzaileak: aurrerakarga arintzekoak eta pausaldiak markatzekoak. Dena den, batzuetan, kontua ez da mugatzen testu-antolatzaileetara. Hauek erabiltzean (lekuz aldatuz, ordezkatzuz, berriak tartekatuz...) aldatu egin beharko dira testuko beste osagai batzuk ere; puntuazio-markak ere bai, agian. Hain da estua osagaien arteko elkarre-ragina. Horregatik, tarteka, testu-antolatzaile batekin ez ezik, birekin ere jokatuz beharko da.

### 3.2.1. Atzerakarga arintzeko estrategiak

Lau estrategia bereiz ditzakegu. Baina beste batzuk ere aipatuko ditugu lehenengoaren baitan.

Esan dugunez, testu-zatiak lotzea eta iragartzea da testu-antolatzaileen egitekoa. Iragartzeko, ordea, iragarritakoaren aurretik joan beharko du. Ikuspegi gramatikal hutsetik, berdin izango da hasieran edo amaieran ipintzea; ez, ordea, ikuspegi testualetik. Testu-antolatzailea (oso) atzean joateak zaildu egiten du ulertzea. Horra iritsi arte, irakurleak (edo entzuleak) ez daki nola ulertu testua. Antolatzaileak ez du iragarle-egitekoa betetzen. Horregatik (ere) zail egiten da pasarte lehen irakurraldian ulertzea.

#### a. Testu-antolatzailea, abal den neurrian, lotzen dituen zatien tartean erabili, edo abalik aurrean

Batzuetan, nahikoa da antolatzailea lekuz aldatzea (horretarako aukera ematen badu, jakina):

haurraren tontokeria batzuen aurrean, **adibidez** (13. lerrokada)

*adibidez, haurraren txorakeria batzuen aurrean*

Bere gabeziak jota bizi da, bera egituratu eta ez inguratu soilik egingo lukeen maitasun baten egarri, egiazkora eta honek duen gogortasunera iristeko bide eskaintzen dioten auke-rei ihes eginez **ordea** beti ere. (16)

*Gabeziak jota bizi da, eta egituratzeko —eta ez soilik babesteko— aukera eman-go dion maitasunaren egarri; atzera eginez, **ordea**, errealitatera eta honen basakeriara iristeko aukeren aurrean.*

Beste batzuetan, alabaina (testu-antolatzaileak horretarako aukerarik ematen ez duenean), bestelako estrategiak erabili beharko dira. Esaterako, berez aurrean joaten den (edo joan daitekeen) sinonimoaz ordezkatu:

Moral bitxi honek psikoanaliaren ekarpenak ukatzen ditu —handik elikatuz, **hala ere**—: (9)

*Moral bitxi honek ukatu egiten ditu psikoanaliaren ekarpenak, **nabiz eta** bertatik elikatu.*

Haurrarekin hitz egitea beharrezkoa  **bada [ere]**... (13)

***Nabiz eta** haurrarekin hitz egitea beharrezkoa izan...*

Edo, nahiz eta sinonimo izan ez, antzeko balioa-edo duen testu-antolatzaileaz ordezkatu, egin beharreko gainerako aldaketak eginez:



Gure garaikideei begiratu, ikusten da haurra sarri jainko berri ukie-zinezko bihurtu **dela** (2)

*Gure garaikideei behatzean, ikusten da **nola** haurra sarri bihurtu den jainko berri ukiezin*

harmonia kasu honetan elkar osatzen duten indarren arteko oreka baino gehiago istilu gabezia bezala definitzen **delarik**: (7)

***eta** harmonia, kasu honetan, gehiago da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino.*

hurrengoan gisa bereko egoerei hobeto aurre egin ahal **diezaien**. (10)

***eta**, ondoren, gero **eta** hobeto aurre egiteko antzeko egoerei.*

Baina nola bultzatu dinamika hau, inguruak etengabe adierazten **badu** haurra beti asebate behar dela? (11)

*Baina nola bideratu dinamika hori, **non eta** haurra etengabe asebetetzera bultzatzen duen giroan?*

bizitza bere okerren aurrean beti onbera izango dela erakutsiz **bezala**. (13)

***eta** sinestarazi bizitza beti onbera izango dela bere hutsegiteekin.*

*b. Iragarlez bornitu bala horni daitekeen testu-antolatzailea*

Testu-antolatzaile batzuek (**ba-** baldintzazkoak, **arte** denborazkoak, zenbait superlatibok, **ere** lokailuak...) iragarleren (indartzailerren) bat eraman dezakete aurretik: **baldin (eta)**, **harik (eta)**, **ahalik (eta)**, **baita**, **ezta...**

Horietako bat bazegoen jatorrizko bertsioan; eta utzi egin du egokitzaileak, nahiz eta **badio** baldintzazkoa aurreratu, besteak beste.

Frustrazio modu bat baliozkoa izan daiteke, **baldin** horrek gizakia muga baten aurrean jarri eta ezintasun hori bereganatzeko gai izango den egitura psikiko bat garatzeko aukera ematen **badio**, hurrengoan gisa bereko egoerei hobeto aurre egin ahal diezaien. (10)

*Frustrazio jakin bat onuragarria izan daiteke, **baldin eta** gizakiari aukera ematen **badio** egitura psikikoa garatu eta ezintasun hori gainditzeko **eta**, ondoren, gero **eta** hobeto aurre egiteko antzeko egoerei.*

Beste pasarte batean, ordea, ez zegoen iragarlerik, eta bat tartekatu du egokitzaileak; horrela, gainera, indartu egin du testuaren argudio-kutsua.

Zenbat gurasok ez du aitortzen, munduko kontzientziarik onenaz bestalde, beren haurra dela “guztia beraientzat”, guraso bezala duten egitekoa guztiz bestelakoa izan beharko **zukeenean**: beraiek izan behar dute erakarpen gunea beren haurrentzat. (3)

*Guraso askok aitortzen dute, gauzarik naturalena balitz bezala, beren haurra dela “dena berentzat”, noiz eta gurasoen egitekoak guztiz bestelakoa izan beharko **lukeenean**: beraiek izan haurraren erakarpen-gunea.*

*c. Tarteki (testu-markatzaile) biburtu, eta aurreratu, berez ez dena*

Batzuetan, sintagma jakin bat, nahiz eta berez tarteki (testu-markatzaile) izan ez, tarteki bihur daiteke esaldiaren esanahia funtsean aldatu gabe. Eta, hala, aurreratzeko aukera ere ematen du, behar izanez gero.

**hurrengoan** gisa bereko egoerei hobeto aurre egin ahal diezaien. (10)

*eta, **ondoren**, gero eta hobeto aurre egiteko antzeko egoerei.*

Haurrak **berez** bilatzen ditu ezin dituen gauzak (14)

*Haurra, **berez**, erresistentzien bila dabil*

Sarri depresio sakon bat [...] agertuko da **une horretan** (15)

***Orduan**, depresio sakon bat sortzen zaie askotan*

*d. Testu-antolatzailea sartu*

Testu-antolatzaile berriak ere sar daitezke testuan.

Moral bitxi honek psikoanaliaren ekarpenak ukatzen ditu —handik elikatuz, hala ere—: psikoanaliak garbi azpimarratu du pozak eta nekeak txandaka joan behar dutela haurraren munduarekin dituen harremanetan. (9)

*Moral bitxi honek ukatu egiten ditu psikoanaliaren ekarpenak, nabiz eta bertatik elikatu. **Izan ere**, psikoanaliarentzat garrantzizkoa da pozak eta nekeak txandatzea, haurrak munduarekin dituen harremanetan.*

Helduaren zeregina, hasteko, haurrari heldutasunerako bidean laguntzea da, **hau da** errealitateari aurre egiten, ez hari ihes egiten laguntzea. (12)

*Helduaren zeregina, leben-lebenik, haurrari laguntzea da beldu biburtzen; **hau da**, laguntzea errealitateari aurre egiten —**eta** ez bizkar ematen—.*

3.2.2. *Pausaldiak markatzeko estrategiak*

Hiru estrategia bereiz ditzakegu. Hirurak, ikusi berri ditugun horien antzekoak dira. Dena den, orain, ahalik eta aurreen ez baina, pausaldien tokian doaz testu-markatzaileak: subjektuaren eta predikatuaren artean edo aditzaren eta osagaien artean (Zubimendi, Esnal, 1993: 219).

a. *Testu-markatzailea kokagunez mugitu*

Ordainetan, **noski**, berarengan ipini den itxaropen izugarriari erantzun beharrean izango da haurra. (4)

Ordainetan, *haurrak gai izan beharko du, **jakina**, berarengan ipinitako itxaropen izugarriari erantzuteko.*

b. *Tarteki (testu-markatzaile) bihurtu, eta kokagune egokira eraman (behar izanez gero), berez ez dena*

Eta pozgarrizat jotzen da **gaur** gizarteko zenbait sailetan, haurra helduaren interesgune bihurtu delako (2)

*Pozgarrizat jotzen da, **gaur**, haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan*

“Haurra kontutan hartu” izan **ordez** “hura bizitzako erdigune bihurtu” bilakatzen da **orduan**. (3)

*“Haurra kontuan hartu”, **orduan**, “haurra bizitzako erdigune egin” bihurtzen da.*

Haurrari erantzuteko prest egoteak **sarri** mendekotasun moduko bat ezkututzen du, (5)

*Haurraren gain-gainean egotea, **askotan**, gurasoen neurosia ezkututzen duen morrontza da.*

Bi ondorio nahiko nola halako dituen bi postulatutan **oinarritzen da** jokamolde hau. (7)

***Jokaera horren oinarrian**, bi uste daude, ondorio zalantzarriak dituztenak.*

harmonia **kasu honetan** elkar osatzen duten indarren arteko oreka baino gehiago istilu gabezia bezala definitzen delarik: (7)

*eta harmonia, **kasu bonetan**, gehiago da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino.*

Frustrazio bat gainditzeko gaitasun hau da gizontxoari bere autonomia **astiro** eraikitze bide ematen diona. (10)

*Frustrazio bat gainditzeko gaitasunari esker egingo da ume koxkorra, **astiro-astiro**, bere autonomiaren jabe.*

**Nerabe honek** ezintasunik txikiena bortizkeria bezala sentituko du (16)

***Nerabe bonentzat**, erresistentziarik txikiena ere bortizkeria da*

*c. Testu-markatzailea tartekatu*

baina kultur aldetik dagoen adostasunak eta merkataritzaren presioak joera hori indartzen dutenez oso zaila da azalerarazten. (5)

*Eta are ezkutuago geratzen da, **gainera**, giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik.*

bestetik, haurraren egiazko premia berak azaltzen duenera egokitzen da eta hau bere aldetik gurasoek premia horretaz duten iritziarekin bat egiten da. (7)

*Bestetik, haurraren egiazko premia, **berriz**, bat dator berak azaltzen duenarekin eta hau ere bat dator gurasoek premiaz duten ideiarekin.*



## 4. MINTZAGAIA ETA GALDEGAIA

Hitz-ordena lantzerakoan, beharrezkoa da bereiztea hizkuntzaren bi egitura, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak egiten duen bezala: funtzio-egitura eta mintzagai-egitura (Gramatika batzordea, 1987: 25; 1991: 359; 1993: 23).

Funtzio-egituran, subjektua eta predikatua atzematen ditugu; mintzagai-egituran, mintzagaia eta iruzkina. (*Tema* eta *rema* terminoen euskal ordainak ditugu, hurrenez hurren, *mintzagaia* eta *iruzkina*.) Batzuetan, bat datoz, batetik, subjektua eta mintzagaia eta, bestetik, predikatua eta iruzkina; baina bestetan ez.

Lehendik ere ezagunak ditugu egitura edo maila horiek, nahiz eta sarritan ez dugun asmatu bereizten. Izan ere, mintzagai-egiturakoa da galdegaia, Seber Altubek hain xehe landu eta horrenbesteko zerikusia izan duena azken ehun urteotako testugintzan.

Azken batean, hitz-ordena eratzean, informazio ezaguna eta berria lotzen ditugu: ezaguna abiapuntu hartu eta honi buruzko informazio berria erantsiz osatzen dugu hitz-katea, esaldiz esaldi, lerrokadaz lerrokada. Informazio ezaguna ematen du mintzagaiak; eta horri buruzko informazio berria iruzkinak.

Xehe-xehe eta zehatz-mehatz aztertu eta lan daiteke nola txandaten diren mintzagaia eta iruzkina testu batean, bai unitate txikietan eta bai handietan: zer-nolako kateak osatzen dituzten, zer-nolako egitura ezberdinak sortzen.

Horixe atzematen dugu mintzagai-egiturari erreparatzean. Funtzio-egiturari erreparatzean, berriz, subjektua, aditza eta osagarriak atzemango ditugu.

Kapitulu honetan, funtzio-egiturari erreparatuko diogu, mintzagaia eta galdegaia lantzeko soilik. Beraz, mintzagaia lantzean, landu gabe utziko dugu mintzagai hanpatua. Galdegaia lantzean, berriz, galdegaia (iruzkinaren baitako gune hanpatua) jorratzera mugatuko gara, iruzkin soilera oraingoz albora utzita.

## 1. Mintzagaia

Mintzagaia azaletik landuta ere, baliagarria izan dakiguke testua bere osoan lantzeko; batetik, gogoratuz ez dela nahikoa esaldi bakoitza zuzena izatea eta, bestetik, ikusten hasiz zer aukera eskain lezakeen mintzagaiak.

Lau adibide baliatuko ditugu.

### 1.1. Lehen adibidea: “Pazkoa ospatzea”

Lehenengo adibidea euskal gotzainen idatzi elebidun batetik hartu dugu (Euskal gotzainak, 1998: 14-15), intentzio osoz. Ondo dakigu-eta zenbat lantzen eta zaintzen dituen Elizak, edukiaz eta formaz, bere idatziak.

Erdal pasarteak, jatorrizkoak, honela dio:

Celebrar la Pascua de la resurrección es mirar con el corazón abierto de par en par a la vida eterna esperada como la vida definitiva y verdadera. Es reconocer el amor inmenso de Dios que nos asocia a su vida espiritual y a su gloria eterna. Es sentirse mayor y más importante que todas las cosas de este mundo. Es recuperar la libertad para usar de todo lo que hay en el mundo con sabiduría, sin ser esclavo de nada ni de nadie. Es recibir el don de ayudar a vivir a los demás en el gozo anticipado de la comunión universal.

Euskal bertsiok, berriz:

Behin betiko eta egiatzko izango dela espero dugun bizi betera begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik, piztuerako Pazkoa ospatzean. Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualean eta betiereko ospetan. Mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. Munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezeren eta inoren esklabo izan gabe. Lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

Berehala ohartzen gara: batetik, itzulpena ez dago estu-estu egina; bestetik, zerbaitek huts egiten du.

Ikuspegi gramatikaletik begiratuta, baliokideak dira bi pasarteak. Biak dira zuzenak esaldiz esaldi. Biak daude esaldi zuzenez osatuak. Biek betetzen dituzte gramatika-arauak. Hitz batean, biak dira gramatikalak.

Ikuspegi testualetik begiratuta, ordea, ez dira horren baliokide. Erdarazkoa, oso egoki antolatuta dago, mintzagaia buru-buruan duela [“Celebrar la Pascua de la resurrección”] eta mintzagai horrekin egoki lotutako esaldiz osatua,

hauetako bakoitzaren hasierako es aditza lotura duelarik. Euskarazko testuan, aldiz, lehenengo esaldiaren amaieran dator mintzagaia [“piztuerako Pazkoa ospatzean”], eta askoz ere ezkutuagoa da, nahiz eta badagoen, mintzagaiaren eta ondorengo esaldi bakoitzaren arteko lotura.

Bestela esanda, testu egokia da lehenengoa, bai ikuspegi gramatikaetik, bai ikuspegi testuaetik begiratuta. Bigarrenak ere ez du inolako aitzakiarik gramatikaren aldetik; baina desegokiagoa da ikuspegi testuaetik. Eta horrek irakurgaitzago bihurtzen du.

Horiek horrela, jatorrizkoa egokiago itzultzeko, hasiera-hasieran ipini behar harko genuke mintzagaia; eta, ondoren, ageriago adierazi esaldi bakoitzaren mintzagaiarekiko lotura eta beharrezko gainerako aldaketak ere egin: esaldien baitako hitzen ordenarena-eta. Honela-edo (letra lodian doaz mintzagaia eta lokailuak).

**Piztuerako Pazkoa ospatzean**, begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik, behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera. **Eta** Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualmentean eta betiereko ospean. **Eta** mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. **Eta** munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezere eta inoren esklabo izan gabe. **Eta** lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

Ez da irtenbide bakarra. Agian, egokiena ere ez. Baina horrela utziko dugu oraingoz.

## 1.2. Bigarren adibidea: “Poli”

Koldo Mitxelenak honela dio, Anabitartek idatzitako *Poli* eleberria hizpide (Mitxelena, 1988: 105; pasartea ondo ulertzeko, kontuan izan behar da Anabitarte bera dela *Patrones y capitanes de yate* obraren egilea ere):

Poli, Donostiako kaiko umezurtz bihurria, itsasora darama egileak, ihes egiteko aitzakiarekin bada ere. Itsasertzean jaioa izanik maite baitu itsasoa, *Patrones y capitanes de yate* argitara berria duen egileak bezalaxe. Gero, lehorreraturik, lehengo ezinegonak berak darabilelako edo, komediante batzuekin abiatzen zaigu berriz Nafarro-Gipuzkoetan barrena. Ez, ordea, luzarorako. Etxateilapeko egonaren gozoa labur bederen ezaguna duelarik, ez zaio gehiago ahaztuko. Eta, emazte eta etxearen jabe egin ondoren ere, ez du Elizondon etsiko. Ezin baitaiteke izan, ez sortzailearentzat ez bere umearentzat, Paradisuaren antzekorik lur honetan, Donostian izan ezik, eta kai inguruan inola ere.



Horra hor, mintzagaia [“Poli”], lerrokadaren buru-buruan, ondorengo esaldien (azkenekoarena ez beste guztien) mintzagai.

### 1.3. Hirugarren adibidea: “Galán kapitaina”

Mintzagaiak, lerrokada osoa ez ezik, lerrokada gehiago ere har ditzake, Andoni Egañaren pasarte honetan “Galán kapitainak” bezala (Egaña, 1998: 80-81):

Galán kapitainak buru-imintzio batez García Hernández kapitaina eta Labaka eta Murcia sarjentuak gelatik aterarazi zituen. Ez zituen Ateneoko zibilak tamainako erabakian nahasi nahi. Korridorean, kriseilu dardarti baten argitara, inoiz baino zurbilagoa zirudien, lokietako zain ttiki denak leherzori. Sakon hartu zuen arnasa bi-hiru bider. Beheko ezpainaz goikoari ausiki egiten zion behin eta berriz, behekoaren indarrez goikoaren tolestura gehiegizkoa lixatu nahi balu bezala. Zalantzan zegoen.

–Bagara ala ez gara? –zalantza hitz bihurtu zuen.

### 1.4. Laugarren adibidea: “Euskara”

Bada Villasanteren pasarte bat, bi lerrokadaz osatua, sarri aipatu duguna (Villasante, 1988: 142). Bi lerrokadak hartzen ditu buru-buruko mintzagaiak [“Euskarak”]. Horrexegatik ezaba daitezke ondorengo **euskara** guztiak.

Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, [euskarak] duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, [euskara] bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako bali ez duena.

[Euskara] Hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.

Beraz, aurreratu bezala, hitz-ordenarena ez da soilik esaldiaren barruko gaia. Edo esaldi bateko kontua. Lerrokada osoa har lezake. Eta lerrokada bat baino gehiago ere bai.

## 2. Galdegaia

Zerbaitek baldintzatzekotan, galdegaiak baldintzatu du azken urteotako euskal hitz-ordena. Hobeto esanda, galdegaiari buruzko usteek baldintzatu dute; are gehiago: oraindik ere horiek ari dira gaur egun ere baldintzatzten.

Hori dela-eta, komeni da gauzak argitzen saiatzea, ahalik eta soilen bada ere. Lehenik, galdegaiari buruzkoak. Gero, hitz-ordenari buruzkoak.

### 2.1. Galdegaiari buruz

Gure planteamenduaren arabera, oso soil jardungo dugu galdegaiaz. Lau puntu soiletan.

#### 2.1.1. *Altube*

Galdegaiaz hitz egitean, ezinbestekoa da Altube aipatzea eta aintzat hartzea.

Altubek, 1. kapituluaren esan dugunez, egitasmo jakin baten baitan gartu zuen bere lana. Eta egitasmo horren baitan aztertu behar da galdegaiaz dioena ere.

Villasanteren arabera, euskara garbitzea zuen egitasmoak helburu nagusi: lexikoa garbitu eta sintaxia garbitu. Sintaxiaren arloan, bi elementu jo zituzten begiz: testu-antolatzaileak (*zeren*, *zeinak* eta antzeko “erdalkeriak”) eta hitz-ordena (“erdal” ordena: Subjektua, Aditza, Objektua). Hain zuzen, benetako euskal ordena omen dena (Subjektua, Objektua, Aditza) indartzeko erabili zuten galdegaiaren legea.

Egitasmo horren baitan, Altubek ongi definitu zuen galdegaia (Altube, 1975). Baina ez zen ohartu bi hutsunez.

Galdegaia, Altubek definitu bezala, elementu hanpatu edo enfatiko da, eta doinuz nabarmentzen da. Esaterako:

Patxík esnéa edan dù.

Adibide horretan, **esnea** galdegaia da, baldin eta tildez markatutako doinu enfatiko hori erabiliz esaten bada, adieraziz esnea dela Patxik edan duena eta ez, esaterako, ura<sup>3</sup>.

<sup>3</sup> Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak darabilen adibidea erabili dugu geuk ere, gauzak ahalik eta soilen azaltzearren: batetik, adibideak ez ugaltzeko; bestetik, esaldi labur eta baiezkoa baliatuz, bestelakoak albora utzita.

Are gehiago: soiltasun horren harian, azentu-mota baten eremuko da gure adibidea: Mitxelena I. mota deituriko eremuko (Mitxelena, 1990: 566).

Sarri askotan, ordea, markatu gabe erabili ohi da **esnea**: doinu enfatiko hori gabe esanez eta irakurriz. Honelatsu:

Patxík esneá edan dú.

Bigarren kasu honetan, ohikoenean, **esnea** ez da galdegai. Ez da enfatiko edo hanpatua, ez doinuz eta ez esanahiaz. Altubek, alabaina, galdegaitzat jotzen du, Orixeri jarraiki; honek, ikusi dugun bezala (24. orrialdean), galdegaitzat jotzen baitu, “Gernikako arbola da bedeinkatua” kantuan, hasierako **Gernikako arbola** hori.

Beraz, Altuberentzat biak dira galdegai, enfatikoa eta ez enfatikoa, azken batean biek erantzuten omen diotelako **zer edan du Patxik** galderari. Ez da ohartzen, ordea, ezberdinak direla erantzunak: bata enfatikoa eta bestea ez.

Horixe da Altubereren lehen hutsunea: hutsune nagusia. Bigarren hutsunea, berriz, galdegaia aditzarekin lotu izanean dago, biek –galdegaiak eta aditzak– beti doinu-unitate bakarra osatuko balute bezala.

Bai: doinu-unitate bakarra osatzen dute, baina elkarren segidan doazenean: galdegaia (enfatikoa) aurretik eta aditza.

Patxík esnéa edan dù.

Baina bestelako ordena honetan ere esan eta idatz daiteke galdegaia (enfatikoa):

Patxík edan dú esnéa

Izan ere, enfasia azentuan dago: hanpatu nahi den elementuaren azentuan: enfatikoa [esnéa], ez enfatikoa [esneá]. Eta elementu horren azentuak –edo azenturik ezak– baldintzatzen du esaldiaren ondorengo elementuen azentua.

Esan bezala, Altubek ez zion bigarren kasu honi ere erreparatu. Azken batean, hitz-ordena arautzea baitzuen helburu, eta ez galdegaia definitzea. Galdegaiarena bitartekoa baino ez zuen, helburu haren zerbitzuan. Eta lortu nahi zutena lortu zuen, Hegoaldean behintzat: hitz-ordena jakin bat [SOA] hobestea, bestea [SAO] gaitzetsiz. SOA hobesteko, ongi etorri zitzaion galdegaiari buruzko lehen hutsuneaz ez ohartzea. Baita bigarrenaz ez jabetzea ere, SAO gaitzesteko.

### 2.1.2. Altubereren ondorengoak

Altubereren teoriak eta arauak onarpen handia izan zuten Hegoaldean. Hain handia, horien harian beste zenbait uste eta arau usteko ere zabaldu

baitziren bai galdegaiari buruz, bai hitz-ordenari buruz, nahiz eta hark horrelakorik ez esan.

Hona hemen galdegaiari buruzko uste batzuk:

- Euskaraz, esaldi bakoitzak du bere galdegaia.
- Galdegaia da euskaren ezaugarri nagusietako bat.
- Euskaraz soilik dago galdegaia. Euskarakadak dira, beraz, gaztelaniaz entzun ditzakegun zenbait esaldi galdegaidun (galdegaiaren azentuaz eratuak).

Horiekin batera, oso barneratua gelditu ziren Hegoaldeko euskaltzaleen artean beste bi uste hauek ere:

- Lehenik eta behin, hitz-ordenari buruzko arau nagusi bat: beti aditzaren aurrean kokatu behar da galdegaia —eta galdegai ustezkoa—.
- Eta, arau horren osagarri-edo, beste honako hau: esaldiaren amaieran kokatu behar da aditza.

### 2.1.3. Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea

Galdegaiari buruz, lan erabakigarria egin zuen Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak (Gramatika batzordea, 1987: 30-36; 1991: 364-370; 1993: 25-29). Eta ezin ahantz daitezke Eusebio Osak (Osa, 1990) eta Bittor Hildalgok eginiko ekarriak (Hidalgo, 1994).

Pasarte batean laburbil daiteke batzordearen lana (Gramatika batzordea, 1987: 30; 1991: 364-365; 1993: 25-26; 1987ko liburutik hartu dugu pasartea, eta bereak dira letra lodiak; aldaketa bakarra egin dugu: *iruzkina* idatzi, 1993ko bertsioan bezala, eta ez lehen bietako *irazkina*):

Gramatika askotan **iruzkina** eta **galdegaia** nahasirik agertzen dira, baina hobe litzateke bi kontzeptuak elkarrengandik bereiztea. Galdegaia, hortaz, iruzkinaren barnean “hanpatua” den elementu gisa kontsidera gezake. Kontzeptu hertsia goa, beraz. Horrenbestez, ohart gaitezzen mintzagaiak hitz egin dugunean ere mintzagai “hanpatua” ager zitekeela esan dugula. Bada, hemen ere antzera: iruzkinaren barruan elementu bat ager daiteke denen gaitetik nabarmen eta hori izanen dugu galdegaia.

Ordena ez markatua duen perpaus batean ikus daiteke guzti hau:

Patxik esnea edan du

Perpau horrek, jakina denez, bi interpretazio diferente izan ditzake: batean, **esnea** ez da hanpatua, zer gertatu den edo Patxik zer egin duen besterik gabe esaten baitu. Beste interpretazio batean, alabaina, Patxik **zer** edan duen esaten du hiztunak (aurkaritzako joko batean ikusten den bezalaxe: **eta ez ardoa**).

Iruzkina (hau da, **esnea edan du**) berdina da bi interpretazio horietan, baina bigarren interpretazioan baizik ez da agertzen galdegaia (**esnea**). Esan gabe doa, mintzatzen garenean, desberdinketa hori ederki egiten dugula, **esnea edan du** ez baita bietan molde berean esaten.

Horra hor, batetik (pasartearen testuingurukoa ere kontuan hartuz), galdegaiaren arazoa nazioarteko lanen baitan kokatua. Izan ere, beste hizkuntzetan ere (gure ingurukoetan, behintzat) badago galdegaririk. Eta horra hor, bestetik, Altuberren lehen hutsunea osatua: elementu hanpatua soilik da galdegaia, doinu enfatikoaz nabarmentzen dena.

Horiek horrela izateak berez dakar, ezinbestez, arestian zerrendatutako usteak berrikusi eta zuzendu beharra.

#### 2.1.4. Usteak berrikusten eta zuzentzen

Zerrendatutako ordena berean berrikusi eta zuzenduko ditugu usteak. Lehenik, galdegaiari buruzkoak:

- Euskaraz oso bakan erabiltzen da galdegaia. Normala da hala izatea, elementu enfatikoak denez. Bestela, enfatikotasuna galduko luke. Galdegai ustekoa, berriz, esaldi guztietan azal daiteke. Berezko galdegaia eta ustezkoa nahastu izanak ahalbideratu zuen uste okerra zabaltzea. Nahaste hori dela-eta, merezi du beste bi kontu konstatatzea. Batetik, ozen irakurtzean ez ditugu nahasten berezko galdegaiak eta ustezkoa: hura azentu enfatikoaz irakurtzen dugu; hau ez. Gauza ezberdinak diren seinale. Bestetik, euskararen irakaskuntzan, hitz-ordena irakasteko orduan, oso erabilia izan da, eta da, galdegaia. Modu arrakastatsuan, gainera. Hain zuzen, Altubek bezala, nahasketari zor dio arrakasta, nahiz eta gero mintzatzean –eta irakurtzean– era zehatzean bereizi berezko galdegaia eta ustezkoa.
- Galdegaia ez da euskararen ezaugarri. Hizkuntza guztietan (gure ingurukoetan, behintzat) erabili ohi da galdegaia. Adibide bakarra erakutsiko dugu, antzerki-testu batetik hartua. Sigrás eta Caronte pertsonaien arteko hizketa da (Rivas, 2006: 18; galegoz argitaratu zen lehenik):

## SIGRÁS

¿Respetar en la cárcel? En la cárcel no se respetaba nada. Cuando camino sigo sintiendo el peso de los grilletes y los tobillos despellejados como si viñese de la Edad Media. Y además, casi me dejaron sordo con aquella paliza.

## CARONTE

Casi, no. El aplauso le llamaban a aquella tortura. Un aplauso que reven-taba los tímpanos. Eran tiempos de eufemismos.

Horra hor, aditzaren aurrean gainera, **el aplauso** galdegaia, doinu markatuaz irakurtzen duguna.

- Beraz, beste hizkuntzetako galdegaiak ez dira euskarakadak.

Ondoren, hitz-ordenari buruzkoak.

- Berez, ez galdegaiak eta ez ustezko galdegaiak dute toki jakinik esaldiaren baitan.  
Azentuak markatzen du galdegaia, eta ez esaldiaren baitako koka-penak.  
Idatzian, testuinguruak laguntzen digu galdegaia atzematzen.
- Ez du inolako zentzurik, ez ondorio onik, aditza esaldiaren amai-eran kokatzea agintzen duen arauak.

### 2.2. Zenbait ondorio, galdegaiaz eta hitz-ordenaz

Horiek horrela, bizpahiru ondorio atera ditzakegu, galdegaiaz eta hitz-ordenaz:

- Galdegaiak berez (ikuspegi gramatikaletik) ez du zerikusirik hitz-ordenarekin.
- Altubek emandako galdegaiaren legeak eragin (ia) erabatekoa izan du azken ehun urteko euskal prosa-ereduan, SOA hitz-ordena hobetsiz, onerako nahiz txarrerako.
- Azken batean, bi ordenak –SOA eta SAO– dira gramatikalak, eta bakoitzak du bere tradizioa. Eta biak erabil ditzakegu, 6. eta 7. kapituluetan ikusiko dugunez.



## 5. ERLATIBOZKO ESALDIAK

Hitz-ordena lantzean, aparteko arreta eskatzen dute erlatibozko esaldiek. Horiek bideratzen asmatuz gero, bideratu samartua dugu hitz-ordena.

Kapitulu honetan ez gara sartuko ur handitan. Bada, izan ere, non eskuratua erlatiboari buruzko oinarritzko informazioa (Zubiri, Zubiri, 1995: 673-680; Kaltzakorta, 1997) eta non osatu eta sakondua (Villasante, 1976a: 69-92, 212-221; Gramatika batzordea, 1999: 173-270). Eta, besteak beste, merezi du arretaz irakurtzea bai Xabier Amurizaren lana (Amuriza, 2010: 26-48), bai Victor Hildalgorenak (Hidalgo, 2002a, 2002b, 2003, 2004, 2005a, 2005b) eta Mitxel Kaltzakortarena (2007: 103-175, 305-348)<sup>4</sup>.

Hemen, arazorik larrienak aurkeztera eta horien konponbidea zirriborratzera mugatuko gara, hiru puntutan. Lehenengoan, hiru erlatibo motak eta bizpahiru arazo nagusiak azalduko ditugu. Bigarreanean, erlatibo murrizgarri eta ez-murrizgarriei buruzko kontuak jorratuko ditugu. Hirugarrenean, zenbait estrategia landuko dugu, hiru erlatibozko esaldien –batik bat, ez-murrizgarrienen– bideragarri.

### 1. Erlatibo motak eta arazo nagusiak

Hiru erlatibo bereiz daitezke euskaraz ere: murrizgarriak, ez-murrizgarriak eta aposiziozkoak.

---

<sup>4</sup> Bai Amurizaren bai Hildalgoren eta Kaltzakortaren lanek esanahi bete hartzen dute, hain zuzen, ikuspegi strategikotik begiratuta. Honela hasten da, esaterako, horietan lehenengoa (Hidalgo, 2000a: 27):

Euskarazko hitzen ordenaren inguruko atal gehienetan bezalatsu, erlatibozko esaldien inguruan ere hedatu dira gure artean XX. mende osoan zehar hainbat topiko erreduktionista, mesedegarri baino kaltegarri bihurtu zaizkigunak hizkuntza estandarraren garapenean.



Murrizgarriak:

Urruti bizi ziren ikasleak berandu iritsi ziren<sup>5</sup>.

Ez-murrizgarriak:

Ikasleak, urruti bizi baitziren, berandu iritsi ziren.

Aposiziozkoak:

Ikasleak, urruti bizi zirenak, berandu iritsi ziren.

Batik bat, bizpahiru arazo sortzen dira horien erabileran. Datozen bi puntuetan saiatuko gara nola konpon daitezkeen azaltzen.

Lehenengo arazoa sortzen da baldin eta erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak bereizten ez badira. Erdaraz, tarteki izan ala ez; horretan dago bien arteko aldea: itxuraz txikia, esanahiaz funtsezkoa.

Los alumnos que vivían lejos llegaron tarde.  
Los alumnos, que vivían lejos, llegaron tarde.

Euskaraz, ordea, oso bestelako hitz-ordena dute biek.

Urruti bizi ziren ikasleak berandu iritsi ziren.  
Ikasleak, urruti bizi baitziren, berandu iritsi ziren.

Bigarren arazoak, berriz, euskaraz erlatibo ez-murrizgarriak eratzeko dauden zailtasunean du oinarria. Gainera, merezi du aintzat hartzea hirugarren arazo bat ere: atzerakargarena; izan ere, esaldiaren amaieran joan ohi dira erlatiboaren markak.

## 2. Erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak

Erlatibozko esaldiek arazoak sortzen dituzte euskaraz, luzeak direnean. Areagotu egiten dira arazoak, ez badira murrizgarriak eta ez-murrizgarriak bereizten.

---

<sup>5</sup> Adibidea Villasantek dakar gaztelaniaz, erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak bereiziz (Villasante, 1976a: 70).

## 2.1. Erlatiboak euskaraz: arazoa

Nahiz eta euskal gramatikek ondo bereizi, ohiko samarra da euskaraz (gaztelaniaz ere bai, baina testuetan ez da horren nabarmen geratzen), baita goi-mailako testuetan ere, ez aintzat hartzea bi erlatibo horien arteko bereizketa eta, ondorioz, ulergaitz bihurtzea esaldiak.

Hona hemen, erlatibo murrizgarri bat:

Bihar dugu urteroko batzarra unibertsitateko ikasketak Gasteizko Filosofia eta Letretako Fakultatean 1990.ean amaitu genituen filologoen.

Euskaraz erlatibo murrizgarriak, horrela eraturik, zenbat eta luzeagoak izan, orduan eta ulergaitzagoak gertatzen zaizkio hartzaileari. Izan ere, honek ezin lezake jakin zertan ari den esaldia, harik eta azken hitzetaraino iritsi arte; hor baititu giltzak: **-eN** menderagailua eta **filologoen** ardatza.

Inguruko erdaretan ez da horrelakorik geratzen. Hala, gaztelaniaz:

Mañana tenemos la reunión anual los filólogos que finalizamos los estudios en la Facultad de Filosofía y Letras de Gasteiz en 1990.

Horra hor aurrean bai ardatza (**los filólogos**) eta bai menderagailua (**que**). Antzekoa gertatzen da beste honako honetan ere:

Bihar estreinatuko dugu Errioxara egun guztirako bidaia polit bat eginez erosi berria dugun autoa.

Areagotu egiten da arazoa, baldin eta erlatibo murrizgarriztat jotzen baditugu erlatibo ez-murrizgarriak. Esaterako, Euskararen Aholku batzordearen adierazpen honen hasieran (Euskararen Aholku batzordea, 2001):

Euskararen lur-eremu guztietako eta pentsaera eta lanbide askotako ordezkariez osaturiko Euskararen Aholku Batzorde honek, bere aurreko guztiek bezala, ahalegin handia egin du euskara guztion ondasuntzat hartua, zaindua, lagundua eta biziberritua izan dadin.

Gaztelaniazko bertsioan, ordea, ez dago arazorik:

Este Consejo Asesor del Euskera, formado por personas de diversas ideologías y profesiones que representan a todos los ámbitos territoriales de dicha lengua, ha realizado un gran esfuerzo, al igual que los consejos que le

antecedieron, para que el euskera se considere un bien común y como tal sea conservado, apoyado y fortalecido.

Ezta frantsesekoan ere:

Ce Conseil Consultatif de l'Euskara, composé par de personnes aux idéologies et professions diverses qui représentent tous les territoires de cette langue, a réalisé un grand effort, à l'instar de tous ses prédécesseurs, pour que l'euskara soit considéré comme un bien commun, et en tant que tel soit conservé, appuyé et renforcé.

Ingelesezkoan ere ez:

The Basque Language Advisory Board, whose members have different ideologies and come from different geographical areas where Basque is spoken, has, just like previous Advisory Boards, striven for the Basque language to be considered as part of our common heritage and as such to be preserved, supported and strengthened.

Arazoaren konponketa bideratzeko, beharrezkoa da bereiztea erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak.

## 2.2. Murrizgarriak eta ez-murrizgarriak bereizten

Hasierako adibideak lagun diezaguke gogoratzen zertan bereizten diren erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak, zer ezaugarri dituzten eta nola eratzen diren euskaraz.

Urruti bizi ziren ikasleak berandu iritsi ziren.

Ikasleak, urruti bizi baitziren, berandu iritsi ziren.

Murrizgarria da lehenengoa: urrutiko ikasleak, horiek soilik, iritsi ziren berandu. Ez-murrizgarria da bigarrena: ikasleak, ikasle guztiak, iritsi ziren berandu; bide batez esaten du, eranskin edo informazio osagarri moduan, urruti bizi zirela ikasleak. Horregatik, bigarren honetan koma artean doa erlatiboa: tartekia da (esaldi amaieran badoa, puntua izango du bigarren komaren ordez); hori kenduta ere, esanahi betea du esaldiak.

Ikasleak berandu iritsi ziren.

Euskaraz, ordea, askotan bereizketa egin gabe, erlatibo murrizgarriak bezala ematen dira biak. Eta hortik sortzen da nahasketa.

Urruti bizi ziren ikasleak berandu iritsi ziren.

Arrazoi bat baino gehiago egon daiteke nahaste horren oinarrian. Bat, euskaraz ez-murrizgarriak eratzeko dauden arazoak (batez ere Hegoaldean; besteak beste, gaizki ikusia egon baita, azken ehun urteotan, **zein** partikularen erabilera). Bi, alboko erdaretan hitz-ordena bera erabiliz eratzea batzuk eta besteak; gaztelaniaz, adibidez:

Los alumnos que vivían lejos llegaron tarde.  
Los alumnos, que vivían lejos, llegaron tarde.

Euskararen Aholku Batzordearen adierazpenean dago beste adibide adierazgarri bat.

Honela dio euskaraz:

Oinarri-oinarrian berdinak diren gizon-emakumeek, inguruneak eta premiek desberdindurik eta hartaraturik, tokian tokiko hizkuntzak sortzen baitituzte.

Errepara diezaiogun esanahiari: oinarri-oinarrian berdinak diren gizon-emakumeek sortzen dituzte tokian tokiko hizkuntzak. Beraz, horren arabera, badaude oinarri-oinarrian berdinak ez diren gizon-emakumeak ere. Erlatibo murrizgarria da: “oinarri-oinarrian berdinak diren gizon-emakumeek”. Murriztu egiten du gizakiek osatutako multzo osoa.

Berehala ohartzen gara: adierazpenak ez zuen hori esan nahiko. Hala baieztatzen dute erdal bertsoiek.

Gaztelaniazkoak dio<sup>6</sup>:

Son las personas, esencialmente iguales, quienes, adaptándose a necesidades y entornos diferenciados, crean lenguas diferentes.

“Esencialmente iguales” –edo “que son esencialmente iguales” baliokidea– ez da murrizgarria: gizon-emakume guztiak dira funtsean berdinak. Gogoratu baino ez du egiten lehendik ere badakiguna. Tartekia izanik, koma artean idazten da: kenduta ere esanahi betea du esaldiak.

Son las personas [...] quienes, adaptándose a necesidades y entornos diferenciados, crean lenguas diferentes.

<sup>6</sup> Gurea da **quienes** antolatzailearen ondorengo koma.

Hurrengo tartekia kenduta ere, esanahi beteaz izaten jarraitzen du esaldiak:

Son las personas [...] quienes [...] crean lenguas diferentes.

Beste horrenbeste gertatzen da frantses bertsioan ere<sup>7</sup>:

Les gens, qui dans le fond sont tous partout pareils, créent différentes langues, en s'adaptant à leur environnement et aux besoins locaux.

Berriro ere, ez-murrizgarria da erlatiboa: “qui dans le fond sont tous partout pareils”. Bi tartekiak gabe, berriz, honela geratzen da:

Les gens [...] créent différentes langues [...].

Euskaraz, honela eman daiteke:

Gizon-emakumeek sortzen dituzte tokian tokiko hizkuntzak, oinarri-oinarrian berdinak izanik, inguruneak eta premiek desberdinak eta hartarazten baitituzte.

Baina aukera bat baino ez da. Adierazpenaren hasiera, berriz, honelatsu eman daiteke, adibidez:

Euskararen Aholku Batzorde honek, zeina osatua baita euskararen lur-eremu guztietako eta pentsaera eta lanbide askotako ordezkariak, ahalegin handia egin du, bere aurreko guztiak bezala, euskara guztion ondasuntzat hartua, zaindua, lagundua eta biziberritua izan dadin.

Dena den, estrategia asko erabil daitezke, behin erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak bereizi ondoren.

### 3. Erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak eratzeko estrategiak

Era bat baino gehiago daude, bai erlatibo murrizgarriak bai ez-murrizgarriak eratzeko. Hitz-ordena desberdinak erabil daitezke. Funtsezkoa da

---

<sup>7</sup> Koma bat aldatu dugu lekuz: jatorrizkoan, **qui** menderagailuaren atzean doa; guk aurrean ipini dugu. Eta koma bat gehitu dugu: “langues” hitzaren ondorengoa. Honela dio jatorrizkoak:

Les gens qui, dans le fond sont tous partout pareils, créent différentes langues en s'adaptant à leur environnement et aux besoins locaux.

ohartzea zer-nolako arazoak sor daitezkeen eta zer-nolako aukerak —estrategiak— erabil ditzakegun arazoak saihestu edo gainditzeko.

Ondoren, batzuk baino ez ditugu aipatuko, benetako adibideak eta beste jorrotutako bideak baliatuz (Villasante, 1976a; Zubiri, Zubiri, 1995; Kaltzakorta, 1997; Gramatika batzordea, 1999).

### 3.1. Erlatibo murrizgarriak

Erlatibo murrizgarriek, laburrak direnean, ez dute ulertzeko arazorik sortzen. Baina zenbat eta luzeagoak izan, orduan eta ulertzeko zailtasun handiagoak eragiten dituzte, baldin eta -eN menderagailua eta ardatza esaldiaren amaieran badoaz, “Bihar dugu urteroko batzarra...” esaldian ikusi bezala.

Arazo hori konpontzearen, hiru estrategia erabil daitezke gutxienez: lehenengoa, hain zuzen, menderagailua eta ardatza aurreratzea; bigarrena, menderagailua eta ardatza eskuinean ipintzea; hirugarrena, erlatiboa ordezkatea.

Lehen bi strategiak azaltzeko, Bernardo Atxagaren *Zazpi etxe Frantzian* eleberria erabili dugu (Atxaga, 2009)<sup>8</sup>; hirugarrena azaltzeko, Jesus Mari Mendizabalen bi idatzi (Mendizabal, 2010a; 2010b).

#### 3.1.1. Menderagailua eta ardatza aurreratu

Honela dio Atxagak bere eleberrian (Atxaga, 2009: 20):

Grand Palmier plazaren erdian palmondo lerdan bat zegoen, Pariseko parke batean gaizki emango ez zuten banku zuri batzuk zeuzkana bere jira guztian.

Honela ere eman zezakeen bigarren erlatiboa:

bere jira guztian Pariseko parke batean gaizki emango ez zuten banku zuri batzuk zeuzkana.

Baina atzerakarga arindu dio esaldiari, “zeuzkana” eta “banku zuri batzuk” aurreratuz eta “bere jira guztian” atzera eramanez.

<sup>8</sup> Merezi du parekatzea *Zazpi etxe Frantzian* eleberriaren gaztelaniazko eta euskarazko bertsiok; besteak beste, erlatibozko esaldiei erreparatuz: zenbat modutara dauden emanak euskaraz —zenbat estrategia erabiliz— gaztelaniazko erlatibozkoak; hobeto esanda, gero gaztelaniazko itzulpenean erlatibozko forma hartu dutenak.

Baina, horretara mugatu gabe, merezi du hitz-ordenan oro har ipintzea arreta.

### 3.1.2. Ardatzaren ondoren kokatu erlatiboa

Atxagak, pasarte berean, beste estrategia bat ere erabili du, ordea, aurrekoa baino ere erabakigarriagoa: ardatzaren (“palmondo lerden bat” dela-koaren) atzetik ipini du erlatiboa.

Hori egin izan ez balu, honela izango zen pasartea:

Grand Palmier plazaren erdian bere jira guztian Pariseko parke batean gaizki emango ez zuten banku zuri batzuk zeuzkan palmondo lerden bat zegoen.

Honela, gramatika aldetik akatsik gabea izanik ere, ulertezina da pasartea<sup>9</sup>.

Eleberri berean, horrelako erlatibo asko daude, nahiz eta esaldiak laburrak izan.

Esaterako (Atxaga, 2009: 11)<sup>10</sup>:

[Chrysostome] Bi metro inguruko gazte luze bat zen, burua kentzen ziona.

Edo (Atxaga, 2009: 15)<sup>11</sup>:

[Mosketoia] Kanoitik kargatzen zen arma traketsa zen, hamar kilo inguru pisatzen zuena.

### 3.1.3. Erlatiboa ordezkatu

Jesus Mari Mendizabalen bi idatzitatik hartuak dira ondorengo adibideak. Erlatibo murrizgarriak emateko beste modu bat dira.

---

<sup>9</sup> Gaztelaniazko itzulpenak dio (Garikano, 2009: 19):

En medio de la Place du Grand Palmier se erguía una enorme palmera en torno a la cual se habían colocado unos bancos blancos que no habrían desentonado en un parque de París.

<sup>10</sup> Itzulpena (Garikano, 2009: 9):

Era un joven de cerca de dos metros que casi le sacaba la cabeza.

<sup>11</sup> Itzulpena (Garikano, 2009: 15):

Era un armatoste de poco menos de diez kilos, que se cargaba por el cañón.

Hauxe da lehenengoa (Mendizabal, 2010a; gurea da letra lodia):

Hamalagarren mendean jarri omen zuten Gernikan lehendabiziko haritza, Euskal Foruen irudi tente, Juntetxe ondoan. Ihartzera zihoala, 1742an, haritz haren muskil berria aldatu zuten lur berean. Hurrengo Gernikako Arbola, berriz, 1860an ipini zen, aurrekoen muskiletik noski. Harexen aurrean egin zuen zin Agirre lehen Lehendakariak, zutunik.

**Hirugarren arbola mundu osoan famatu hori**, *armallaria mellea* onddo gaiztoak erasan eta itota, gaurko egunez 2004an galdu zen betiko, 144 urte esperantzatsuen ondoren.

“Mundu osoan famatua den hirugarren arbola hori” izango litzateke ohikoa. Horren ordeaz, idazleak aurretik ipini du izen-ardatza (“hirugarren arbola”) eta adjektiboz ordezkatu erlatiboa (“mundu osoan famatua den”).

Antzeko estrategia erabili du beste honetan ere (Mendizabal, 2010b; gurea, letra lodia):

Datorren urtean Basque Culinary Center izeneko Gastronomía-Zientzien fakultatea abian jarriko omen den okasioz, **hamar hots handiko sukaldari** bildu ziren galanki Donostian joan den astean. Bras, Redzepi, Barber, Adriá, Nik, umil-umil, hamaikagarren sukaldari galanta dakart gaur hona: legeko maneatzaila ezezaguna, sukalde-lanari goizero pozik lotzen zaiona, proba-probaka arrakastatsu diharduena. Hortzak izerdi dauzkat oraindik, han egin genituen jateak oroitzen ditudan aldiro.

Oraingoan, “hots handia duten hamar sukaldari” izango litzateke erlatibozko esaldia.

Idatzi berean, honela jarraitzen du. (Berriro ere, gureak dira esaldi letra lodiak, irakurleak berak azter ditzakeenak.)

Gu, aho fineko lau lagun, Zamorako Toro hirian tokatu ginen aurreko astean. Tripaki eta muturrez, entsalada nahasi eta zezinaz kokoteraino egin da, nobedade bila hasi eta, plaza nagusiaren alboko kale motz batean, hara non ikusten dugun jatetxe italiarra, itxura xumekoa: La Bocca di Bacco. Goazen! Kuriositateak zirikatu eta goseak estututa sartu ginenok, zurrurru eta purru jan ostean, hatzak miazka atera ginen. Bapo. Giro atsegina, arrandiarik gabeko tratua, janari-molde modernoak. **Olagarro beste inon ez bezalako**, etxean eginiko pasta finak, **entsalada sinestezin goxoak**, hemengo onenaren inbidiarik gabeko txuleta, etxeko postre mundialak. **Saltsa bikain landuak, erre-egosi artezki hartuak**. Eta prezioa, berriz, Jaungoikoa!, ares-tiko hamar handiak lotsagorritzeko modukoa.



Estrategiak dira. Batzuetan, esaldiak ulerterrazago egiteko eginak; bestetan, esaldiak esanguratsuago bihurtzeko...

### 3.2. Erlatibo ez-murrizgarriak

Euskaraz arazoak daude erlatibo ez-murrizgarriak eratzeko. Idazle zaharrak ohartu ziren horretaz, eta jakin zuten irtenbide eta baliabide egokiak –estrategiak– aurkitzen eta beren bidea egiten eta euskara doitzen. Baina duela ehun urteko garbizalekeriak moztu zizkion hegoak euskarari. Gaur, azaroei berriro ere aurre egin beharrean gara, behin erlatibo murrizgarrietatik bereizi ondoren.

Erlatibo ez-murrizgarriak eratzeko orduan, lagungarri izan dezakegu erlatibo horien esanahiari begiratzea. Izan ere:

- Nahiz eta batzuetan, biak tartekiak direlako-edo, badirudien balio-kideak direla aposiziozko erlatiboak eta erlatibo ez-murrizgarriak, esanahiak lagunduko digu biak bereizten.
- Gerta daiteke, nahiz eta alboko erdaretan esaldi bat formaz erlatibo ez-murrizgarria izan, euskaraz (eta erdaraz) forma hori beharrezko ez izatea.
- Gerta daiteke alboko erdaretan testu-antolatzaile batek esanahi desberdinak izatea (adibidez, gaztelaniazko **que** menderagailuak) eta euskaraz, ordainetan, antolatzaile bat baino gehiago erabili behar izatea, esanahiaren arabera.

#### 3.2.1. Erlatibo ez-murrizgarriak eta aposiziozko erlatiboak

Hasierako adibideetara itzulita, ageriko aldeak daude bi erlatibo hauen artean, tartekiak tarteki.

Ez-murrizgarria:

Ikasleak, urruti bizi baitziren, berandu iritsi ziren.

Aposiziozkoa:

Ikasleak, urruti bizi zirenak, berandu iritsi ziren.

Aurreratu dugunez, esanahiak bereizten ditu hauek ere, murrizgarriak eta ez-murrizgarriak bezala: ez-murrizgarritzkoan, ikasle guztiak iritsi ziren berandu; aposiziozkoan, berriz, urruti bizi zirenak soilik.

Hala ere, testuinguruak lausotu ditzake muga horiek. Agian horregatik, ez-murrizgarrien orde, batzuetan aposiziokoak erabiltzen dira ahoz. Baina ez dira nahastu behar.

### 3.2.2. *Erlatibo ez-murrizgarrien zenbait baliokide*

Batzuetan, nahiz eta alboko erdaratan erlatibo ez-murrizgarrien formaz eratu, euskaraz (eta erdaraz) bestela ere molda daitezke, ez-murrizgarrien eradura makurtu gabe.

Koldo Bigurik, arazoa planteatuz, gaztelaniazko esaldi hau dakar (Biguri, 1996: 16):

El presidente, que se encuentra estos días de visita en París, ha declarado su apoyo a la política exterior de Francia.

Irtenbideetako bat ere plazaratu zuen Bigurik: erlatibo ez-murrizgarria saihestea.

Presidentea, egun hauetan Parisen egiten ari den bisitan, Frantziaren kanpo politikaren alde azaldu da.

Beti ezin izango da horrela jokatu; baina estrategia egokia da kasu honetan.

*Euskal gramatika osoak* dakar beste adibide hau (Zubiri, Zubiri, 1995: 721):

Ikasleak, ordura arte isilik egon baitziren, oihuka hasi ziren.

Esanahiaren arabera, **nahiz** erabil daiteke **bait** menderagailuaren orde:

Ikasleak, nahiz ordura arte isilik egon, oihuka hasi ziren.

Antzeko estrategia erabil zitekeen Euskararen Aholku Batzordearen esaldi aipatu berria moldatzeko ere, **izan** ere testu-antolatzailea ere baliatuz:

Gizon-emakumeek sortzen dituzte tokian tokiko hizkuntzak; izan ere, nahiz oinarri-oinarrian berdinak izan, inguruneak eta premiek desberdinu eta hartaratzen dituzte.

Adibide batzuk baino ez dira, euskara-erabiltzaileen bide-erakusle. Norberak saiatu beharko du bere gaitasun estrategikoa lantzen.

### 3.2.3. *Erlatibo ez-murrizgarriak, esanahiaren arabera*

Erlatibo ez-murrizgarriak sailkatzeko ere, laguntza handiko izan daiteke esaldi horien esanahiari erreparatzea.

Funtsean, hiru sail handi bereiz daitezke: adjektibo-balioa dutenak, lekuzkoak eta kutsu kausala dutenak. Gehiago ere badira, baina hiru hauetan sartzen dira gehienak.

#### *a. Adjektibo-baliokoak: zein*

Erlatibo ez-murrizgarri asko, esanahiaz, adjektibo baten ordezkioak dira. Hara nola Euskararen Aholku Batzordearen hura.

Euskararen Aholku Batzorde honek, zeina osatua baita euskararen lur-eremu guztietako eta pentsaera eta lanbide askotako ordezkari, ahalegin handia egin du...

Izan ere, “askotarikoa” edo “anitzta” edo antzeko adjektibo baten balio-kidea da “zein... ordezkari” tartekia.

Antzekoa gertatzen da, esaterako, testu-genero desberdinetako pasarte hauetan ere<sup>12</sup>.

Historia (Alberro, 1998):

[Asociación Euskara de Navarra] kultur elkarte honen bazkide genituen Euskal Herrietako gizon ugari, horien artean Abbadia bera, Bonaparte printzea, etab... Beren ideien zabaltzaile, “Revista Euskara” zuten, **zeina** 1878 eta 1883. urteen artean atera zen argitara.

Kazetaritza (Herria, 1992):

Heldu den larunbatean eta igandean iraganen da Aiherran Primaderako Besta, **zoina** moldatua baita gure herriko bestetaz arduratzen den batasunak.

Literatura (Elortza, 1997):

Notarioaren bulegora bere lekuan ordezkari legal bat agertu zen, **zeinak** tratua ixteko behar ziren baimen guztiak baitzituen.

---

<sup>12</sup> Euskaltzaindiaren web gunetik hartu ditugu adibide gehienak: ikus **zein** hitza, “XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa” atalean. Adibide horiek guztiak dira 1990-1999 urteetakoak. Web gune berean aurki dezake norberak informazio gehiago: zein idazlek erabili duen, zein izan den erlatibo honen erabilera eta bilakaera XX. mendean...

Literatura (Cid, 1993):

Barre egin genion luze Záturecky jaunari, **zeinaren** deitura ponpoxoak literatu egiten baikintuen.

Prosa zientifikokoa (Apalategi, 1996):

Guk ez diogu heldu oraino arazo horri, **zeinaren** irtenbidea begi bistan susmatzen baita aurrez emandako garapen guztietan.

Prosa administratiboa (Elaio, 1996):

Era berean, bi erakunde horiei eskatzen zaie Legebiltzarrari lehenbailehen txosten bat bidal diezaiotela, **zeinetan** deskribatuko diren espetxe horretako okupatze-egoera eta osasun, hezkuntza, zainketa eta interbentzioko egungo langile-kopuruaren egokitasuna, bai eta dauden beharrian materialak ere.

Azkenik, honela dio Jesus Mari Mendizabalek, *Kixoteren* hasiera ospetsuaren oihartzun (Mendizabal, 2010c):

Baztan aldeko herri koxkor batean, **zeinaren** izenik ez dudan gogoratu nahi, bizi zen denbora asko ez dela etxeko seme bat.

*b. Lekuzkoak: non*

Esaldi hauek, **zeinetan** menderagailuaren baliokide baitira, aurreko sailean ere koka daitezke, azken bigarren adibidearekin batera. Baina egokia da sail berezian ipintzea ere; hauek baitira gaur egun erlatibo ez-murrizgarrietan erabilienak eta onartuenak, **non** menderagailua tarteko<sup>13</sup>.

Hauek ere genero guztietako testuetan aurkitzen dira<sup>14</sup>.

Eleberria (Irigoién, 1993):

<sup>13</sup> Adibideetan ikus daitekeenez, **non** ez ezik, **-en** eta **bait** menderagailuak ere baliatzen dira erlatibo ez-murrizgarriak eratzeko.

<sup>14</sup> Euskaltzaindiaren web gunetik hartu ditugu adibideak: ikus **non** hitza, "XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa" atalean. Adibide guztiak dira 1990-1999 urteetakoak. Web gune berean aurki dezake norberak informazio gehiago. Hemen, jatorrizko obren aipua egiten dugu, baina orrialdea zehaztu gabe, web gunearen harian.

Aitzurrak hartuta, sail haietako tokirik gozo eguzkitsuenerantz abiatu ziren, **non** zuloa egin eta lur eman baitzioten.

Historia (Share, 1998):

Azken jazoera Bergaran burutu zen 1839ko abuztuaren 31an, **non** Espartero eta Maroto jeneralek, besarkada batez, bakealdi ahul bat zigilatu zuten.

Administrazioa (Agirre, 2009: 126):

[Administrazio publikoen esku dago:]

Aldeen adostasunez hirigintza-partzuergoak eratzea, **non** administrazio publikoen partaidetzak gehiengoa izango baitu beti.

Kazetaritza (*El Diario Vasco*, 1999):

*Kablea Ataunen* izeneko liburua atera du Ataungo Udalak, **non** ematen baita belarra menditik etxera ekartzeko izaten zen kablearen sistemaren berri.

Autobiografia (Amuriza, 1999)

Niretzat “mundua” Zornotza zen, haragoko hiri ezkutu guztiak biltzen ebazena, **non** trenak, autoak, hegazkinak eta untziak alkar harrapatu ezinik zebizen, **non** jentea arin, moltzoan eta koloretsu zebilen, **non** erdera unibertso inperiala zen.

Xabier Amurizarena berarena da ondorengo adibidea ere, bi erlatibo ez-murrizgarriz osatua, **zeintzuek** eta **nondik** menderagailuak baliatuz (Amuriza, 2010):

Erreferentzia bat inguruko hizkuntza garatuak izan daitezke, **zeintzuek** esan dezakegun gorputz osatu bat daukatela, **nondik** beharrezko eboluzioak karraskada handi gabe gerta daitezkeen.

Azkenik, hona hemen García Márquezen *Ehun urteko bakardadea* eleberriaren hasiera ezaguna, Pedro Alberdik euskaratu bezala (Alberdi, 2010: 111):

Urte askozaz geroago, fusilatze-taldearen aurrean, Aureliano Buendía koronelak gogoratu behar zuen antzinako arratsalde hura, **non** bere aitak izotz-horma ezagutzera eraman baitzuen.

*c. Kausa-kutsua: bait*

Kausa-kutsua duten esaldi ez-murrizgarrien artean, Koldo Mitxelenaren adibide hau dakar Villasantek (Villasante, 1976a: 213).

Gizonak, nekatuak baitzetozen, etxean sartu ziren.

Horrelako batzuetan ez dago argi zein neurritan diren erlatibo ez-murrizgarri edo kausazko menpeko esaldi.

Esaterako (Agirre, 1991):

Gaur egun, ermita zaharberritze eder baten premian dago, kanpoko parretetan gutxienez ere, oso utziak eta eroriak **bait** daude, beren erabilera nagusia errebindikatioa delako.

Edo ipuin bateko hau (Jimenez, 1995):

“Lehorra, tierra”, egin zuen aldarri masta nagusiko mutilak, euskalduna **bait** zen, hango beste asko bezala.

Erlatibo direla argiago ikusten da, tartekia nabarmenagoa denean; hara nola, testu administratibo honetan (EHAA, 1992):

Foru Agindu honen aurka, administrazio bideari amaiera eman ez **bait** dio, Foru Aldundi Txit Gorenari, jakinerazpen honetatik zenbatu beharreko 15 eguneko epearen barruan, gorabidezko errekurtsioa jarri ahal izango zaio, Bizkaiko Herrialde Historikoko Foru Erakundearen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Araueko 69.2. artikuluan ezartzen denaren arabera.

Erdal bertsioak, berriz, dio:

Contra dicha Orden Foral, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada...

Baina honela ere esan zezakeen:

Contra dicha Orden Foral, pues no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada...

Batzuetan, nabarmendu nahi izaten da tarteki izate hori, parentesiak erabiliz. Esaterako, testu zientifiko honetan (Egurbide, 1992):

Beste zelula batzuekin ez da hori gertatzen; adibidez, giltzurrun hodi-txoetakoekin (tarteka erreplikatzen **bait** dira) edota muskulu, neurona eta zelula glomerularrekin (hauek ez **bait** dira inoiz erreplikatzen).

Dena den, kutsu kausala (ia) erabat gal daiteke, *Berria* egunkariaren izenburu hauetan bezala (Berria, 2010):

Felipe Juaristi idazlea Euskadi Irratiko zuzendari izendatu dute.  
Diez Urrestarazuren tokia hartuko du, hark ETB1eko edukien ardu-radun kargua onartu baitu.

Itzuliz gero, agerian geratzen da bien arteko lotura ez dela kausaren eta ondorioaren artekoa.

El escritor Felipe Juaristi ha sido nombrado director de Euskadi Irratia.  
Ocupará el puesto de Diez Urrestarazu, que ha aceptado el cargo de responsable de contenidos de ETB1.

### 3.3. Erlatibo bikoitzak (eta hirukoitzak)

Azken aldiotan, gero eta gehiagotan ikusten dira bi erlatibo batera. Hona adibide bat, kutxa bateko kontratu batetik hartua (BBK, 2011):

Mailegutik eratorritako obligazioak betetzeko tokia zehazteko, ordainketak kontratu hau sinatzen **den** herrian Kutxak **dituen** bulegoetan egingo direla adierazten dute alderdi interesatuek, eta, horien ezean, Kutxaren edozein bulegotan.

Konponbide zaileko kontuak izaten dira sarritan horrelakoak, ez baita beti erraza bi erlatibo horiek euskaraz ematea. Dena den, argiago gera daiteke honela, anafora erabilita:

Mailegutik eratorritako obligazioak betetzeko tokia zehazteko, ordainketak kontratu hau **zein herritan** sinatzen **den eta bertan** Kutxak dituen bulegoetan egingo direla adierazten dute alderdi interesatuek, eta, horien ezean, Kutxaren edozein bulegotan.

Beste adibide honetan, berriz, maila ezberdinetako hiru erlatibok egituratzen dute testua (Agirre 2009: 127):

Este foro trasladará los resultados de sus aportaciones tanto a una publicación del Parlamento, **que** se difundirá de forma gratuita a la sociedad vasca, como a un audiovisual **que** recoja el conjunto de aportaciones mediante un producto multimedia, **que** será transmitido por las televisiones públicas.

Itzulpen egoki hau eskaintzen du egileak:

Foro horren emaitzak ezagutzera emateko, argitalpen bat aterako du Legebiltzarrak, euskal gizartean doan **banatuko dena**, eta ikus-entzunezko bat egingo da, telebista publiko guztiek **emango dutena**, **non** ekarpen guztiak jasoko diren produktu multimedia baten bidez.





## BI AUKERA

Lehen euskal idazleek, euskaraz ezer (askorik) leitu gabe idazten hasi zirenek, bi erreferentzia izango zituzten lanean: ahozko euskara eta erdal idatziak. Batetik, senaren agindura jardungo zuten baina, bestetik, bazuten idatzien munduaren berri. Belarria izango zuten euskal gramatika, baina erdal testugintza lagungarri. Eta euskal idazleetako bakoitza, euskal gramatikaren markoan, bere aukerak egiten hasiko zen, zenbait erabaki hartzen, estrategiak lantzen.

Ondoren etorri zirenek ildo berean jarraitu zuten, beren euskalkia oinarri eta aurreko euskal idazleen testuak eta alboko hizkuntzetakoak erreferente. Horrela lortu zuen bakoitzak bere estiloa. Eta bataren eta bestearen estiloak batuz, “eskolak” sortzen joan ziren. Eta, urteen joanean, tradizioak moldatu ziren eta euskalki literario bihurtu ziren lapurtera, zuberera, gipuzkera eta bizkaiera (Villasante, 1988: 218-226).

Hitz-ordenari dagokionez, bi aukera eskaintzen zituen euskal gramatikak, oro har: SOA (Subjektua, Osagarriak, Aditza) eta SAO (Subjektua, Aditza, Osagarriak). Biak probatu zituzten idazleek. Eta biek egin zuten beren bidea euskal literaturan.

Euskaraz bi hitz-ordenak dira zilegi eta zuzenak. Eta biak izan daitezke egokiak ere. Eta bietan ditugu testu egokiak, eta oso egokiak. Bietako ordena bat gailendu izanean, mugimendu jakin batek izan du zerikusi handia: batik bat, garbizalekeriaren eraginez, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran gauzatu zenak.

Ordu arteko idatzietan, bi hitz-ordenak atzeman daitezke. Berez garatuak biak, belaunaldiz belaunaldi: ahozko mintzaira oinarri, tradizioaren harian, beste hizkuntzetako ereduak ere aintzat hartuta. Aipatu mugimenduak, ordea, behartu eta eten egin zuen berezko garapen hura. Hegoaldean, behintzat. Iparraldean, oraintsu gertatu da eta oraintxe gertatzen ari da hango tradizioaren atzentzea.

SOA ordenaren nagusigoa dela-eta, argi izan behar dira zenbait kontu.

- Hitz-ordena eredu batek, ez SOAk eta ez SAOk, berez eta besterik gabe, ez du ziurtatzen hitz-kate egokirik.

- SAO ereduak, zenbait testu-antolatzaile (gaur baztertu samar: **ezen, zeren...**) lagun, gauza izan zen sortzeko hitz-kate luzeak (eta nazioartean darabilen prosaren antzekoak). Laburrago (eta nazioarteko estandarrekiko urrunago) geratu ohi da SOA.
- XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako iraultzak berekin ekarri zuen euskal prosa laburtzea eta ingurukoak ez bezalakoagoa egitea. Horretan, mintzatuzko moldeak ere izango zuen eraginik. Batean galdua, agian, bestean irabaziko zuen euskarak.
- Nahiz eta munta handiko gaiak izan luze-laburrena eta nazioarteko ereduarena, horiek bezain kezagarria izan beharko luke testuaren egokitasunarenak.
- Gauzak dauden daudenean, bi hitz-ordena ereduak onartu beharrean gara.

Arrazoibide horren harian datoz, hain zuzen, atal honetako bi kapituluak.

Kapitulu bakarrean bil genezakeen guztia, aditza ardatz hartuta. Baina bitan banatu dugu, tradizio bakoitzari berea aitortu nahian. Azken batean, aukera bana eskaintzen digute bi tradizioek. Eta bien artean hautatzea izango dugu lehen erabakia. Erabaki horren ondoren etorriko dira gainerakoak, testu ahalik egokiena sortzeko ahaleginean.

Izan ere, tradizio batek —edo hitz-ordena jakin batek— ez du bermatzen besterik gabe testuaren kalitatea. Tentuz landu beharko dugu ordena bakoitza, horrek ekar ditzakeen kalteak saihestuz eta lehen unean bazter utzitako ereduak ere tarteka baliatuz, testu-generoak eta gainerako aldagaiak kontuan hartuta.

## 6. SOA

Azken ehun urteotan, SOA hitz-ordena (Subjektua, Osagarriak, Aditza) nagusitzen joan da euskal prosan, ia bakarra izateraino. Aukeretako bat zen. Eta hori gauzatu da, bere alde on eta arriskuekin.

Euskara-erabiltzaileen ardura izango da alde onak ahalik gehien baliatzea eta arriskuei aurre egitea.

Arriskuen artean, kontuan hartzekoa da, batez ere, aditza esaldiaren atzealdean kokatzearena, osagarri askoren atzetik, noiz eta esaldiaren ardatza izan behar duenean. Atzeratze hori are arriskutsuagoa da, baldin eta esaldiaren azken buruan ipintzen bada aditza behin eta berriro, oso zabaldua egon den joera baten arabera.

Hain zuzen, aditza dugu ardatz kapitulu honetan. Funtsez-funtsezkoa da kontua; izan ere, zerbaitek baldintzatzekotan, aditzaren kokalekuak baldintzatzen du hitz-ordena.

Hiru puntutan jardungo dugu: lehenengoan, oro har; bigarrenean, azalduz zer kokaleku duen aditzak sekuentzia (testu-mota) banatan; eta hirugarrenean, aditza aurreratzeko zenbait estrategia azalduz.

### 1. Aldez aurrekoak

Hasteko, ohar batzuk egingo ditugu; ondoren, arazoa non dagoen gogoratuko.

#### 1.1. Ohar batzuk

SOA edo SAO ordena esatean, orokorregi ari gara, modu eskematikoe-gian. Baina argigarria zaigu: denok dakigu zer esan nahi duen. Hala ere, merezi du ohar batzuek zehaztea, betiere argitasunari kalte egin gabe.

- SOA ordena nagusi, testu idatzietan da batik bat nagusi; eta, testu idatzietan, mota batzuetan batez ere.

- Euskal prosan SOA ordena (ia) erabat nagusitu izanak ez du esanahi ahoz ere berdin gertatu denik. Izan ere, nahiz eta askotan ohartu ez, sarri samar SAO ordena darabilgu hitz egiten dugunean. Ordena hori nabarmena da, esaterako, kantuetan (“Gernikako arbola da bedeinkatua”) eta bertsoetan ere (“Aita izena kanta behararak / jarri dit bihotza bero”), eta ez dio inori minik ematen belarrian<sup>15</sup>.  
Horrek garrantzizko ondorioak ditu, besteak beste, irrati eta telebistetan erabili ohi den euskarari begira. Datorren kapituluan itzuliko gara puntu honetara.
- Idazteko SOA ordena aukeratzeak ez du esanahi ordena hori izango denik nagusi sekuentzia guztietan, berehala ikusiko dugunez.

## 1.2. Arazoa

Badirudi barruraino sartua dagoela, oraindik ere, aditza esaldiaren amaieran kokatzeko joera. Hasieran, arau moduko bat izan zen, nahiz eta inoiz ez halakorik idatzi. Ondoren, horren arabera moldatu zuen zenbaitek praktika. Eta, pixkana-pixkana, zabaldu egin zen ohitura eta (ia-ia) lege bihurtu, jakinaren gainean ala ez.

Adibide soil batek lagundu dezake hori ikusten. Gaur-gaurkoa da testua, eta berez baldintza guztiak ditu egokia izateko: euskaldun zahar eta idazle den batek idatzia da, hitzez hitz itzultzen ibili behar izan gabe. Bestalde, hitzaurrearen hasiera izanik, ulerterraza izan beharko luke. Horixe irakurriko baitu irakurle askok lehen-lehenik, behin liburuaren gaia zein den ikusi (Antropologia) eta liburu bera eskuetan hartu ondoren (Apalategi, 2009: 7).

Antropologia kolonizatuen mentalitatea edo arima zientifikoki ezagutze-ko kolonizatzaileek *ad hoc* sortutako giza eta gizarte zientzia dela historiografiarentzat ez bairik gabekoa da. Hau interpretatu nahirik jartzen bagara, ordea, anitzetariko gogoetak ahalbide dezazkeela aipaturiko baieztapenak onartu beharrean gaude.

---

<sup>15</sup> Argigarria da Euskaltzaindiaren batzorde batean gertatua. Bilera batean, sutsu hitz egin zuen euskaltzain urgazle batek galdegaiaren legearen alde. Barre ere egin zuen Iparraldeko euskaldunen kontura. “Hauek –esan zuen, Iparraldeko batzordekide eta euskaltzain osoa seinalatuz–, hauek ez dute galdegaia bereizten”. Handik aurrera, bi urte osoan zehar, SAO ordenan idatzi zituen idazkariak akta guztiak. Eta, ohi bezala, ozen irakurtzen zuen, bilera bakoitzaren hasieran, aurreko bileraren akta. Apenas ohartu zen inor SAO ordenaz. Ez, behintzat, galdegaiarena hain bereganatua izan eta horren legearen alde sutsuegi mintzatu zen euskaltzain urgazlea.

Lehena da, antropologia sortzea erabaki zutenean, kolonizatuen mentalitate edo arima eraldatzea eginkizun zaila gertatzen ari zela ordurako esperimentatua zutela kolonizatzaileek. Izan ere, kolonizatzailearekin sintonian sartzen zen heinean, eta orduan bakarrik kolonizatua errespetatzeko prest baitzegoen kolonizatzailea, inola ere ez ordea bestela zitekeenean. Garai guztietan kolonizatzaileen jomuga indarrez eta inposamenduz lortutakoa menperatuaren mentalitatean itsatsirik ikustea izan baita betidanik. Kolonizatzaileek ekarritako normatiba kolonizatuaren usadioetan automatismoz bizitzen agertzean bakarrik konkistaren iraupena bermaturik dagoela adieraziko bailuke.

Hitzaurrearen lehen bi lerrokadak dira. Nahiz eta pasarte luze samarra osatu, beharrezkoak dira bai gaiaz jabetzeko, bai arazoa non dagoen ohartzeko. Nahikoa da hitz-ordena aldatzea, argiagoa bihurtzeko testua. Esaterako:

Ezbairik gabekoa da zer den antropologia historiografiarentzat: kolonizatzaileek *ad hoc* sortutako giza eta gizarte-zientzia, kolonizatuen mentalitatea edo arima zientifikoki ezagutzeko. Hori interpretatu nahirik jartzen bagara, onartu beharrean gaude, ordea, aipaturiko baieztapenak anitzetariko gogoe-tak ahalbidera ditzakeela.

Ikus daitekeenez, aditza aurreratzean dago gakoa, neurri handi batean behintzat. Zortzigarren kapituluan hartuko dugu berriro testu hau<sup>16</sup>.

## 2. Aditzaren kokalekua, sekuentzien arabera

Testu bat, normalean, sekuentzia desberdinek osatzen dute. Gutxitan ematen da testu homogeneoa.

<sup>16</sup> Hona hemen Federiko Krutwigen ekarpena ere. Pasarte beraren bi bertsio alderatzen ditu: jatorrizkoa, Axularrena, eta Krutwigek berak moldatua Altuberen harira.

AXULARREN TESTUA	ERDERISMOSen arabera
Halatan erranen deraue azken judizio-ko egunean ere, eskuinekoei dohazilla sekulako loriara, ezkerrekoei sekulako phenetara.	Halatan azken judizioko egunean eskuinekoei sekulako loriara, eskerrekoei sekulako phenetara doazila erranen deraue.

Eta iruzkin hau egiten du: “Uste dut gaur eguneko euskaldunarentzat ulergarriagoa dela Axularren jatorrizko testua, Altuberen [araberako] hori baino”. (Sarrailh de Ihartza, 1979: XLII-XLIII)

Oro har, lau sekuentzia nagusi bereiz ditzakegu: azalpenak, kontaktak, preskripzioak (aginduzkoak, aholku-emaileak eta prozedurazkoak) eta gauza-tzaileak edo performatiboak (Esnal, 2009: 24-39).

SOA ordena dela-eta, badaude aldeak sekuentzia batetik bestera, orain ikusiko dugunez. Oinarrizkoa da horretaz ohartzea, eman ez ditzagun arau edo orientabide orokorregiak edo gehiegizkoak; sekuentzia jakin batean zilegi eta ohiko dena, izan ere, gerta daiteke beste batean ezohiko eta desegoki.

Banan-banan ikusiko dugu zer leku hartu ohi duen aditzak esaldiaren baitan.

## 2.1. Azalpenak

Askotan, hitz-ordenaz teoria egitean, azalpenezko adibideak erabili ohi dira patroi gisa. Eta beste sekuentzietara zabaltzen da hauetan ohiko den hitz-ordena, sekuentzia guztietan aditzak jokabide bera izango balu bezala. Ez da hala, ordea.

## 2.2. Kontaktak

Patxi Goenaga ohartu zenez, “narrazio-kutsua dagoenean, ordena libreago gelditzen da”. Adibide hau dakar (Goenaga, 1978: 184).

Andonik bere makila **hartu zuen**. **Agurtu zituen** bere lagunak. **Joan zen** ondoren Peruren etxera. **Eskatu zizkion** giltzak. **Agurtu zuen** andrea eta han **abiatu zen** mendirantz...

Koldo Mitxelena guztiz bat zetorren horrekin (Mitxelena, 1988b: 144). Gaur, harrigarria ere iruditzen zaigu kontu horietan norbait zalantzan ibili izana. Eta ez gara harritzen honelako testuak irakurtzean (Atxaga, 2009: 17):

Chrysostomek erriflearen morroiloari **tira zion**, eta kargadorea **atera**. **Ko-katu zuen** hamabigarren kartutxoa, **sartu zuen** berriro kargadorea, **eraman zuen** arma sorbaldara, **apuntatu zion** berrehun bat metrora zegoen tximu bati, **jaitsi zuen** arma, eta **galdetu zuen**:  
–Zenbateko bidea egin dezake balak?

## 2.3. Preskripzioak

Preskripzio-testuetan (agindu, eskaera, aholku eta prozedurazkoetan), ohikoa da aditza aurretik ipintzea. Hain zuzen, aditz soila ere izan daiteke agindu, eskaera, aholku...

Hona hemen, esaterako, *Gure Aita* otoitza<sup>17</sup>, aditz nagusiak azpimarraturik, esaldien hasieran gehienak:

Gure Aita zeruetan zarena,  
santu **izan bedi** zure izena,  
**etor bedi** zure erreinua,  
**egin bedi** zure nahia zeruan bezala lurrean ere.  
**Emaguzu** gaur egun honetako ogia,  
**barkatu** gure zorrak guk ere gure zordunei barkatzen diegun ezkerro,  
eta ez gu tentaldira **eraman**,  
baina **atera gaitzazu** gaitzetik.

Testu hain landuetara jo gabe, hona hemen beste adibide bat, herri-aldizkari batetik hartua (HABE, 2000), berriro ere aditz nagusiak azpimarraturik.

Zer egin seme-alabak nabigatzen ari direnean?

**Saia zaitetz** Internet senide arteko aktibitate bihurtzen. Seme-alabekin **nabigatu** sarean, eta **ez ezazu** ordenagailua beren logelan **utzi**. Berekin zauden bitartean, sarearen erabilera arduratsu eta seguruari buruz **hitz egin dezakezu**. **Ikas ezazu** teknologiari buruz, galdera asko **egin** eta **ez zaitetz lotsa** seme-alabek zuk baino gehiago badakite.

Umeei **irakatsi behar zaie** inoiz ez dizkiotela norberaren datuak eman behar *on line* ezagutzen dituzten pertsoneri, bereziki sareko eztabaida-leku eta topa-lekuetan ezagutzen dituztenei.

Seme-alabei **azaldu behar zaie** inoiz ez dutela *on line* ezagutu duten pertsona batekin hitzordurik antolatu behar. **Esan iezaiezu**, halaber, norbait horrelakorik egiten saiatzen bada, zuri jakinarazteko berehala.

**Ipin itzazu** etxean Interneten erabilerari buruzko arauak. Noiz ibili eta zenbat orduz nabiga dezaketen umeei. **Informa zaitetz** seme-alabak babes-teko dauden kontrol-mekanismoez: iragazki-softwareak eta merkatuan dauden beste hainbat aukera.

Horrela, aditza esaldiaren hasieran doala, argiago geratzen dira aginduak, aholkuak...

<sup>17</sup> Bi arrazoi izan ditugu hona ekartzeko Elizak erabilitako testuak. Batetik, tradizio handiko testuak dira, herriak behin eta berriro baliatuak, erabiliaren erabiliaz onduak. Bestetik, Liturgia Euskaratzaile Taldearenak dira azken bertsiokoak, eta talde horretako hainbat partaidek oso gogokoa zuen galdegiaren legea. Arauak arau, usadioa eta zentzua lege.



## 2.4. Gauzatzaileak edo performatiboak

Sekuentzia hauek dira teoriaren aldetik gutxien landuak (Esnal, 2009: 33-39).

Testu hauek, behar diren testuinguruetan eta baldintzetan erabilia, esan ez ezik, egin egiten dute, gauzatu: bataiatu, barkatu, ezkondu, agindu (ebatzi, arautu...), apustu egin, testamentuz utzi... (Austin, 1962).

Formaz, aditz gauzatzailea dute muiñ –aditzak esaten duena egiten du testuak–, eta lehen pertsonan joan ohi da, indikatiboko orainaldian, eta –T(Z)EN atzizkiak.

Elizan, ohikoak dira esaldi gauzatzaileak. Apaizak, esaterako, formula hau erabili ohi du norbait bataiatzean:

Nik bataiatzen zaitut, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitortzako sakramentuan, berriz:

Nik barkatzen dizkizut bekatuak, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Ezkontzan, aldiz, elizan nahiz juzgatuetan, ezkongaiak dute hitz gauzatzailea:

Nik, ...-k, zu, ..., hartzen zaitut emaztetzat.

Nik, ...-k, zu, ..., hartzen zaitut senartzat.

Eguneroko bizitzan, maiz erabiltzen ditugu horrelako esaldiak, zenbait egoera jakinetan: “hitz ematen dizut”, “hau zuretzat ematen dizut”, “barkatzen dizut”...

Horren harira, testu gauzatzaileak edo performatiboak dira bandoak, ziurtagiriak... eta, jakina, administrazioko lege, xedapen eta ebazpenak ere. Are gehiago, testu horiek osorik dira performatibo, nahiz eta berez esaldi bakarra –soilik aditzez osatutako esaldia– izan formaz halakoa: **agintzen dut, xedatzen dut, ebatzen dut**<sup>18</sup>.

<sup>18</sup> Hala ere, aldizkari ofizialetan, esaterako Euskal Autonomia Erkidegoan, behin eta berriro irakurtzen ditugu “aginDU dut”, “xedaTU dut”, “ebaTZI dut” eta antzeko formak. Oinarrian, Eusko Jauriaritzaren agindu bat dago, puntu honi dagokionez oker emana: Lege Egitasmoak, Dekretuak, Aginduak eta Erabakiak lantzeko jokabideak arautzen dituen (EHAA, 1993).

Erabat bestelako testu-generoetara etorriz, hona hemen Xabier Leteren kantu ezagun baten testu soildua, aditzak geuk azpimarratuta (Lete, 2006: 58-59).

**Sinisten dut**  
 egun batean hilen naizela  
 hutsean eroria  
 ezerezean amildua  
 hauts bihurtuko naizela.

**Sinisten dut**  
 hartuko nauen lur hortatik  
 landare berriak sortuko direla...

**Sinisten dut**  
 haiek ere noizbait  
 lurrera deituak izanen direla...

**Sinisten dut**  
 izaki guztien aldakuntza etengabea dela...

**Sinisten dut**  
 gainerako neurri guztiak gezurrezko direla.

**Sinisten dut**  
 kolore zoragarrizko larrosen kapulotasun leunean...

**Sinisten dut, bai,**  
 egunen batean hilen naizela  
 hutsean eroria  
 ezerezean amildua  
 hauts bihurtuko naizela.

Horra hor aditza, lerrokada osoen abiaburuetan<sup>19</sup>.

---

<sup>19</sup> Egitura bera du Elizako "Sinisten dut" formulak ere, sei aditz gauzatzaila beste horrenbeste esaldiren abiaburuan: "Sinisten dut Jaungoiko bat bakarra... Sinisten dut Jaun bat bakarra, Jesukristo... Sinisten dut Espiritu Santua... Sinisten dut Eliza... Aitortzen dut... Itxaroten dut...".

Gauzatzaileak dira, orobat, eta oso arruntak lege eta administrazio- testuetan, agindua ezartzen dutenak modu mugagabe batez eta manu orokorra ezarriz. Horretarako, bistan da, esku-eskura dago lege-kontuetan erabiltzen den silogismo hirukoitza –hots: egitateak, lege-manu, ondorio juridikoak–, balio performatiboaren bidez, errealitatean egon daitekeen adostasuna zerbait ondoriotsu (kontratua, testamentua...) bihurtzeko. Esaterako honela dio, euskarazko bertsioan, Kode Zibilaren 1254. artikulua (Zenbaiten artean, 2007: 552)<sup>20</sup>:

Kontratua **bada izan**, pertsona bat edo gehiago ados daudenetik, beste pertsona bati edo batzuei begira, euren burua gauzaren bat ematera edo zerbitzuren bat egitera behartzeko.

Berriro ere, esaldiaren aurrean dago kokatua aditza.

### 3. Aditza aurreratzeko estrategiak

Aholku erabakigarria eman zuten Joxe Ramon Zubimendik eta Pello Esnalek –“aditza aurreratu”– aditza ahalik gehien aurreratzea aholkatu zutenean (Zubimendi, Esnal, 1993: 199-205).

Eta, aholkua eman ez ezik, aditza aurreratzeko zenbait estrategia ere azaldu zituzten, betiere SOA hitz-ordenaren baitan. Funtsean, lau estrategia dira, berez argiak eta zehatzak baina benetako testuetan ezkutuan gera daitezkeenak.

#### 3.1. Hitz-ordenaren malgutasuna baliatu

Euskaraz hitz-ordenak duen malgutasunari esker, sarritan egoten da aukera aditza aurrera mugitzeko.

Estrategia hau oso erabilgarria izan daiteke, besteak beste, definizioetan. Esaterako, honela definitu daiteke zer den elefantea (IVAP, 2003: 184)<sup>21</sup>:

<sup>20</sup> Honela dio jatorrizkoak:

El contrato existe desde que una o varias personas consienten en obligarse, respecto de otra u otras, a dar alguna cosa o prestar algún servicio.

Esanahiari erreparatuz agerian dago gaztelaniazko **existe** eta euskarazko **bada izan** adizkien balio performatiboa.

<sup>21</sup> Estrategia horren balioa argiago azaltzen da, beste definizio honekin alderatuz gero:

**Elefante.** Elefantidoen familiako ugaztun proboszideoen izen arrunta. 4 m-ko altuera eta 7 t-ko pisuko animalia belarjaleak dira.

Lehorreko animalia da, ugaztuna, belarjalea, proboszidea, eta elefantido-familiakoa. 4 metroko garaiera du, eta 7 tonako pisua.

Eta prozedura summarisimoa (IVAP, 2005: 145):

Prozedura summarisimoa judizio bat da, tramite laburrekoa...

Berehala itzuliko gara bigarren adibide honetara.

### **3.2. Osagarri nagusia aurreratu aditzarekin batera**

Handia da malgutasuna euskaraz, enfasirik gabeko esaldietan (hau da, gehienetan).

Esaterako:

Ume guztiak zuzenean ura edatera iturrira joaten dira.

Esaldi horretan aldaera asko izan ditzake hitz-ordenak. Besteak beste:

Ume guztiak zuzenean joaten dira ura edatera iturrira.

Ume guztiak ura edatera joaten dira zuzenean iturrira.

Ume guztiak iturrira joaten dira zuzenean ura edatera.

Eta denak dira esanahiaz baliokide, enfasirik ez dagoenean.

Esaldi horretan, hiru osagarri ditu aditzak eta nahikoa da bakarra ipintzea aditzaren aurrean.

### **3.3. Adizlaguna-edo tartekatutestuan**

Zenbaitetan, osagarri bakarra eta luzea izaten du aditzak. Adibidez:

Kalean bizi den herritarrak hiriak eskaintzen dituen aurrerapenaz baliatzeko aukera du.

Esaldi horretan, osagarri luzea eta zatiezina da “hiriak eskaintzen dituen aurrerapenaz baliatzeko aukera”. Horrelakoetan, zenbait estrategia erabil daiteke aditza aurreratzeko. Besteak beste (Zubimendi, Esnal, 1993: 203-204):

Kalean bizi den herritarrak hortxe ditu hiriak eskaintzen dituen aurrerapenak.

Kalean bizi den herritarrak badu aukerarik hiriak eskaintzen dituen aurrerapenak gozatzeko.

Kalean bizi den herritarrak hor ditu aukeran hiriak eskaintzen dituen aurrerapenak.

Kalean bizi den herritarrak aukeran ditu hiriak eskaintzen dituen aurrerapenak.

Kalean bizi den herritarrak eskueran ditu hiriak eskaintzen dituen aurrerapenak.

Azken batean, kontua da adizlagunen bat tartekatzea testuan, edo antzeko balioa izango duen zerbait, betiere esanahia aldatu gabe.

Hona hemen, estrategia hori itzulpen batean erabilia (Agirre, 2009: 100)<sup>22</sup>:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzen da. Organo honen **ardura** izango da Euskal Autonomia Erkidegoan sexuaren ziozko diskriminazio-kasuetan biztanleak defenditzea eta emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa bete dadin sustatzea.

Kasu honetan, **ardura** hitza baliatuz aurreratu da aditza. Lehengo esaldietan, berriz, **hortxe**, **hor**, **aukeran** eta **eskueran** baliatuz. Horrelako batzuk txertatu daitezke testuan, aditza beraien babesean aurreratzeko. IVAPeko lan-kideek honako adizlagun hauek aipatzen dituzte: **laster**, **beti**, **ongi**, **egoki**, **sarri**, **maiz**, **orduan**, **azkar**, **asko**, **hobe**, **askotan**, **inoiz**, **arren**, **eskueran**... Eta, ondoren, adibide hau ipintzen dute (IVAP, 2005: 129-130):

Urbietan jaunak habitat-ak eta espezieak identifikatzeko erabili den metodologia garatu du.

Urbietan jaunak **berriki** garatu du habitat-ak eta espezieak identifikatzeko erabili den metodologia.

Aukera bera ematen du aditzak, galdegaia denean. Eta inolako erreparorik gabe aurrera daiteke, “Jainko txikia” testuan bezala (4. eta 9. lerrokadak).

<sup>22</sup> Jatorrizko erdal testuak dio (Agirre, 2009: 99):

Se crea la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres, como órgano de defensa de las ciudadanas y ciudadanos ante situaciones de discriminación por razón de sexo, y de promoción del cumplimiento del principio de igualdad de trato de mujeres y hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Haurra, desiratua denean, sarri gurasoen ni ideal bilakatuko da: hutsune bat betetzen du, bikotearen garaipenik gorena da.

Haurra, desiratua denean, gurasoek **idealizatu egiten dute** sarritan: hutsune bat betetzen du, bikotearen garaipenik gorena da.

Moral bitxi honek psikoanaliaren ekarpenak ukatzen ditu –handik elikatuz, hala ere–.

Moral bitxi honek **ukatu egiten ditu** psikoanaliaren ekarpenak, nahiz eta bertatik elikatu.

Testu berekoak dira beste adibide hauek ere (5., 7. eta 8. lerrokadak):

Haurrari erantzuteko prest egoteak sarri mendekotasun moduko bat ezkututzen du, bertan gurasoen neurosia azaltzen delarik, baina kultur aldetik dagoen adostasunak eta merkataritzaren presioak joera hori indartzen dutenez oso zaila da azalerarazten.

Haurraren gain-gainean egotea, askotan, gurasoen neurosia ezkututzen duen morrontza da. Eta **are ezkutuago** geratzen da, gainera, giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik.

Alde batetik, gizonak ahalik eta neke gutxienak pairatu behar ditu harmonikoki garatzeko, harmonia kasu honetan elkar osatzen duten indarren arteko oreka baino gehiago istilu gabezia bezala definitzen delarik; bestetik, haurraren egiazko premia berak azaltzen duenera egokitzen da eta hau bere aldetik gurasoek premia horretaz duten iritziarekin bat egiten da.

Batetik, gizakiak ahalik eta neke gutxien jasan behar du era harmonikoan hazteko; eta harmonia, kasu honetan, **gehiago** da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino. Bestetik, haurraren egiazko premia, berriz, **bat** dator berak azaltzen duenarekin eta hau ere **bat** dator gurasoek premiaz duten ideiarekin.

Bestelako hitzetan, haurrak, mundura etortzearekin batera, jakingo luke bere senak bultzaturik, zer den on beretzat.

Beraz, haurrak, jaio orduko, **senaz** jakingo luke zer den on beretzat.

Arestian aurreratu bezala, pasarteotan ezkutuago daude orain hizpide ditugun estrategiak; besteak beste, ez direlako horiek soilik erabili. Baina, hemen egin bezala, merezi du benetako testuetara jotzea, estrategiak elkarren eraginean ere ikusteko.

### 3.4. Katafora erabili

Askotan erabili izan da estrategi hau, **zera** baliatuz.

Agintean dagoen partidu politikoak zera esan du: komeni dela datozen urteetan ahalik eta ongien zaintzea azpiegitura turistikoa, baldin eta krisi ekonomikoari aurre egin nahi badiogu.

Baina Euskaltzaindiak **zera** ez erabiltzea gomendatu zuenez geroztik, apenas ikusten den testuetan. Dena den, premia baten salatari da. Eta konponbidearen bideragarri.

Esaterako, prozedura summarisimoaren definiziora itzuliz, honela dio pasarte osoak (IVAP, 2005: 14)<sup>23</sup>:

Prozedura summarisimoa judizio bat da, tramite laburrekoa. Honako kasuetan ezartzen da: auzia presaz erabaki behar denean eta txikia denean, edota ekintza kriminala astuna izan eta auziperatua *in fraganti* harrapatu dutenean.

Estrategia bera erabili da beste honetan ere (Agirre, 2009: 80; berea da letra lodia)<sup>24</sup>:

Maila bereko zehaztapenen artean gainjartze, zehazgabetasun eta kontraesanik baldin bada, **honela** konponduko da: manuzkoek lehentasuna izango dute deskripzioak, argibideak edo arrazoiak ematen dituztenen aurrean, eta idatzizkoek grafikoen aldean, salbu eta lurzoruen azalerei badagozkie, horrelakoetan benetako azalera hartuko baita aintzat.

Hala ere, Agirrek berak dio: “Baliabide markatu-pedagogiko honekin, egia esan, eten gordina egiten da adierazian [...]. Ondorioz, ez da baliabide arrunt bat, sistematiko erabiltzekoa, kasu jakin batzuetan baizik”.

<sup>23</sup> Definizio gordinak honelaxe zioen:

Prozedura summarisimoa auzi-gaiaren urgentzia edo presagatik eta beronen munta txikiagatik, edota ekintza kriminalaren astuntasunagatik edo *in fraganti* harrapatua izateagatik legeak izapidegintza txit laburra seinatzen dion judizioa da.

<sup>24</sup> Jatorrizko testuak honela dio, gaztelaniaz:

Los solapamientos, las imprecisiones y las contradicciones entre determinaciones distintas de igual rango se resolverán otorgando prevalencia a las determinaciones prescriptivas sobre las descriptivas, informativas o justificativas y a las escritas sobre las gráficas, salvo por lo que se refiere a las superficies de suelo, en que se estará siempre a las superficies reales.

## 7. SAO

Nahiz eta euskal prosan SOA hitz-ordena nagusitu den azken ehun urteotan ia bakarra gertatzeraino, SAO ordena ere nagusi zitekeen. Baliagarria baita SAO ere, eta kontuan hartzekoa.

Kapitulu honetan, zenbait puntu zirriborratzera mugatuko gara, betiere ikuspegi estratergikoaren baitan.

### 1. Aukera bat

Lehenik eta behin, ezin ahantz dezakegu beti eskueran dugula, zorionez, Iparraldeko tradizio baliotsua.

Adibidez, halaxe ulertu zuten Jean Haritschelharrek, artean euskaltzainburu zelarik, eta Pello Salaburuk, hau ere euskaltzain izanik, elkarrekin hitzaurre bat egin behar izan zutenean, hain zuzen Euskaltzaindiak prestatu eta plazaratu zuen liburu baterako (Haritschelhar, Salaburu, 1999: XV):

XX. mendeak euskararen alorrean ezagutu ditu bi hizkuntzalari haundi, biak euskaltzainak eta biak unibertsitateko katedradunak. Bietarik gazteena, euskalduna, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Koldo Mitxelena izan da, tesia irakurri zuenetik, zinezko maisua bai euskal ikerketetan eta bai Euskaltzaindian. Haren obra publikatua izana da, idatzi dituen liburuak eta artikuluak baliatuak dira edozein tesitan mundu zabalean.

Zaharrena, René Lafon, sortu zen Merignac hirian 1899-an. Frantziako eskola nagusietan estudioak eginik (École Normale Supérieure de la rue d'Ulm) filosofia irakasle izana da Alençoneko, Pauko eta Bordeleko bigarren mailako ikastetxeetan. Pauen bizi zelarik, Vendryes hizkuntzalariaren aholkuari jarraikiz, oporrak pasatzen zituen Larreñe Zuberoko herri ttipian euskara ikasi nahiz. Hamar urteren buruan menderatzen zuen xuberera ez zituelarik batere baztertzen bertze euskalkiak. Berak salatu du zer lan nekea izan zen euskararen ikastea: "Nik üskararen ene bürialat sarrarazteko behar ükhen khosta xüt eta lüze bat igan, Larrañekua. Biga bostetan igan dit, huñez, khargatüririk, ekhitolzian. Ordian gazte nündüzün."



## 2. Testu klasikoen itzulpenetan

SAO hitz-ordena beti eskuera dugu zernahitarako. Baina ezin egokia goa izan daiteke zenbait testu-genero itzultzeko. Hala ulertu zuen, esaterako, Patxi Altuna euskaltzainak eta aldi berean Gramatika batzordearen buru izanarik Ignazio Loiolakoaren *Gogojardunak* itzultzeko. Idatzi honen erdal prosa XVI. mendekoa izanik, ongi datorkio molde zaharreko euskara ere.

Hona hemen hasiera (Altuna, 2003: 30-31):

ANNOTACIONES PARA  
TOMAR ALGUNA  
INTELIGENCIA EN LOS  
EXERCICIOS SPIRITUALES  
QUE SE SIGUEN, Y PARA  
AYUDARSE, ASI EL QUE LOS  
HA DE DAR, COMO EL QUE  
LOS HA DE RESCIBIR.

OHARPENAK ONDOKO  
“GOGOJARDUNAK” ZER  
DIREN NOLABAIT ADITZEKO,  
ETA BAI EMAILEAREN, BAI  
HARTZAILEAREN LANA  
ERRAZTEKO

**1<sup>a</sup> anotación.** La primera anotación es, que por este nombre, ejercicios espirituales, se entiende todo modo de examinar la consciencia, de meditar, de contemplar, de orar vocal y mental, y de otras espirituales operaciones, según que adelante se dirá. Porque así como el pasear, caminar y correr son ejercicios corporales; por la misma manera, todo modo de preparar y disponer el ánima para quitar de sí todas las afecciones desordenadas y, después de quitadas, para buscar y hablar la voluntad divina en la disposición de su vida para la salud del ánima, se llaman ejercicios espirituales.

Lehen oharpena da “gogojardunak” *dirrelako* izen honetaz adierazten dela nork bere barrena aztertzeke, hausnartzeko, kontenplatzeke eta hitzez nabiz gogoz otoitz egiteke edozein modu, eta beste zenbait espiritu-jardun, aurre-rago esango denez. Izan ere, paseatzea, ibiltzea eta lasterka egitea gorputz-jardunak diren bezala, balaber espiritu-jarduna deritza arima prestatzeko eta atontzeko zeinabi moduri, eta norberagandik nabikari oker guztiak erazteke eta, erauzi ondoren, Jainkoaren borondatea bilatzeko eta aurkitzeko eta bere bizia ordenatzeko eta arima sendatzeko beste edozeini.

## 3. Ahozko testuetan

Hegoaldeko adibideetara mugatuz, hona nola ematen zituen Alfonso Irigoyenek gaiak Euskaltzaindiak antolatutako bertsolari-txapelketetan (Bertsolariak, 1963: 24-25; 36):

[Azpillagari eta Mitxelenari] Ofizioa emango diegu orain alkarrekin teman egin dezaten.

Azpillaga izango da Donostiako guardia bat, kale-kantoi batean geldri da goena, eta Mitxelena Gipuzkoako erri txiki bateko baserritarra.

[Zabaletari eta Lazkao Txikiri] Ofizioa emango diegu orain alkarrekin teman egin dezaten. Iruna bertso.

Zabaleta izango da pistolerua, eta Lazkao Txiki banku batean enpleatua da goena. Sartu da pistolerua bankuan ta bertan aurkitzen dan enpleatuari, pistola eskuan duela, bankuko diru guzia eskatzen dio.

Bestalde, Manuel Lasarte bertsolariak honelako erantzunak eman zizkion kazetariari, elkarrizketa batean (Arzallus, 2002):

Bertsoak ematen zidan niri bizitzeko adina, hemezortzi urte nituenean. Neroni bakarrik bizitzeko adina.

Orduan egin behar zen bertsoetako abisua zegoenean joan, eta ez zegoenean lan.

Bertsolariak behar luke, beste edozein ofiziotan bezala, ofizial on batek irabazten duen soldata urtean.

Niri bertsoak eman dizkit gauza sentimentalak. Lagunen adiskidetasuna, bat. Herriak ezagutzeko egokiera, bi.

Bertsolariekin nik ez dut okerrik izan. [...] Nik faltatu baldin badut eta norbaitek baldin badauka errezelo hori, nik zer erru daukat ba?

Nikolas Segurola frantziskotar gaztagileak, berriz, honela erantzuten dio kazetariari, honek ea errezatuta joan den gazta-txapelketara galdetutakoan (Ibargutxi, 2004):

Errezatu? Zertarako? Gazta txapelketa irabazteko? Hori egoismoa litzateke. Hori da errezatzea bezala gure futbol ekipoak irabaz dezan; eta beste ekipoek ere errezatzen badute, orduan zer?

Edo (Goikoetxea, Bilbao, Gaminde, 2008: 118):

Hausnar-kotxoak [harrak] gaur be topauko dira basoan. Otean formetan da. Aba [abao] bat izatea legez kurebioentzat [liztorrentzat], baina da estua; pasorik ez dauka, lora bat izatea legez, zeinda ule bizartsua dauen tipoa.

#### 4. Esateko sortutako idatzietan

Bada testu-genero bat gero eta ugariagoa: esateko sortutako testuena. Batik bat irrati eta telebistetan erabiltzen da: albiste, dokumental... Idatziz sortzen dira, baina esateko (entzuteko, alegia). Lehen ere baziren horrelakoak: antzerki-testuak, hitzaldiak...

Halako testuetan ezinbestekoa da kontuan hartzea oinarrizko kontua: entzunez jasoko dituela hartzaileak. Beraz, hori gogoan izanik sortu beharko dira. Hori da urrezko legea. Izan ere, testu bat izan daiteke egokia irakurtzeko, baina ez horren egokia entzuteko.

Gure ustez, SAO ordenak asko arinduko luke bai irratiko eta bai telebistako albistegietako zenbait testu.

Hona, adibide bakarra dakargu. Bitxikeria irudi luke, baina esanguratsua da. Koldo Mitxelenarena berarena da; 1956ko irailean idatzi zuen, Arantzazun egingo zuen hitzaldirako, Euskaltzaindiak gerra ostean egindako lehen biltzarrean (Mitxelena, 1998: 469; azpimarra, gurea):

Naiko bildurrekin agertzen naiz zuen aurrean, ta bi gauzengatik: batetik, ba, bat batean neukan edo esanda neukan itzaldiaren gaia aldatu dudalako. Jakina, orretan eztuzue gauza aundirik galduko; izlaria aldatu izan balitz, oraindik, baño gaia bakarrik izan da. Eta bigarrena, ba, nere gain badaukadalako, zerbait bildur izateko gaia badaukadalako. Alegia, ni baldin banintz fabrika nagusi bat eta ari baldin banintz Euskalerriko mendiak murrizten, Euskalerria kanpoko langillez batetzen, ba ni batere bildurrik gabe agertuko nintzake zuen aurrean. Mundu guztiak daki orrelakoak ez tirela euskararen etsai. Baño euskerak, zenbaitek uste dutenez etsai bat du, eta etsai ori da linguista. Zoritxarrez ni saio orretakoa naiz.

#### 5. Herri-literaturan

SAO ordena behin baino gehiagotan aurkituko dugu, halaber, kantu eta bertsoetan, eta ahozko jardunaren harian idatzitako testuetan ere.

Kantu herrikoietan, merezi du berriro aipatzea “Gernikako arbola” kantuen hasiera:

Gernikako arbola  
da bedeinkatua.

Ezaguna da Eguberritako kanta ere:

Aurra dalako zerutik onuntz  
datorren Jainko berbera<sup>25</sup>.

Bertsoetan, honela hasi zuen Xabier Amurizak bertso gogoangarri hura:

Aita izena kanta beharrak  
jarri dit bihotza bero.

Mari Treku honela hasten da kontatzen Mattin senarraren bizitza (Treku, 1982: 15):

1916-an, Urriaren hamekan sortu zen Mattin Ahetzekoa, Harrieta laborari etxean.

Bazituen bi arreba, Mari Terexa eta Mari Luixa. Biak ezkonduak dira aspaldian.

Burrasoak, Pantxoa aitak eta amak Mayi Jeanne, hauek ere zenduak orai.

Zonbeit urte etxe hortan iraganik, Mattinen burrasoek deliberatu zuten joaitea handik berrehun metra urruntxago, aitonak erosi etxe ttiki batetarat, Kaxandegia deitzen dena.

Hauxe du hasiera, berriz, Sebastian Salaverriaren *Neronek tirako nizkin* autobiografiak (Salaverria, 1964: 9):

Ni mundu ontara sortu nintzan Abenduaren 26-an, 1915-garren urtean, gaubeko amabietan, Oiartzun-go partean dagoan Elbitxuri izena duan baserrian.

Aurrerago dio (13):

Gure familian izan gera zortzi anai ta bi arreba.

Geroxeago (33):

Nagusi ari gustatzen zitzayon iya jai-arratsaldero pasiatzera joatea, eta bere amets guztia izaten zan ardo-puska bat edan eta gero mutur-joka ibiltzea. Iñoiz etorri izan zan etxera arpegia markatuta, bañan oso gustora gizona. Astelenean jarduten zan neri esaten igandeko goraberek, eta beti pantasi ori izaten zuan, esanez:

–Atzo eman zizkat alakori ederrak, neronek ere artu nizkian baña!

<sup>25</sup> Zer dio kantuak: zer den Jainkoa (haurra) ala zer den haurra (Jainkoa)? Bigarren hau, noski.

Ordena bera erabiltzen du, sarri samar, Jose Antonio Oar-Artetak ere *Zaar-barri* liburuan. Adibidez (Oar-Arteta, 1991: 90-91):

Bein batean gizon aldratxu batek eztabaida auxe atara eban, mai baten ingeruan jarrita egozala: Zein ete zan munduko atsegiñik andiena? Batek esan eban munduko atsegiñik andiena zala aragikiñekin goizaltzea, oneik goiz-goizerik eukiten ebela gibel-jana, saieski, okela-erre, arda, akeit edo kafe, edari-bizi ta gaiñerakoa. Beste batek esan eutsan atsegiñik ederrena zala, “abadeekin bazkaltzea”, onen lapikotxua txikia, baiña gozoa izaten zala-ta...

Baina, agian, definizioetan aurkituko dugu maizen SAO ordena herri-literaturan.

Adibidez (Zavala, 1967: 13-18):

Ango lanak urritu ziranean, piñu ereiten aritu giñan: paguak aldatzen ere bai...

Apea oriek dira mendi ustelari kontutzeko (eusteko) zutikako egurrak.

Edo (Zendoia, 2008: 258):

Kabiondokoa deitzen zitzaion beti kabi bakoitzean egoten zan arrautza bakar ari. Ez zion ajola aundia, txikia, zikiña, garbia; baiña kabian beti arrautza bat egon bear zuen, oilloek aurrautzak jarri zitzaten.

## 6. Definizioetan-eta

Definizioez, argibide zehatzak ematen ditu *Galdezka. Euskarazko zalantzei erantzunez* liburua. IVAPek landu eta argitaratu du, beste zenbait lan jakin-garriren harian, ikuspegi estrategikoa ere baliatuz.

*Galdezka* liburukoak dira, besteak beste, honako adibide hauek (IVAP, 2003: 224, 177):

Egiaztageria da agiri bat, bertan adierazten duena egia dela ziurtatzen duena.

Egiaztageria da agiri bat, ziurtatzen duena bertan adierazten dena egia dela.

Ekonomia da zientzia-esparru bat non saiatzen garena urkitzen erregularitateak...

*IVAPeko estilo-liburuak*, berriz, honela definitzen du zer den ziurtagiria (IVAP, 2005: 131):

Ziurtagiria da idatzizko aitorten ofizial bat, eta haren bidez baieztatzen da ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela.

Zorionez<sup>26</sup>, gaur egun gero eta gehiagotan ikusten da horrelako hitz-ordena, definizioen ulergarritasunaren mesedetan.

Horrela jokatu dute, besteak beste, lege-testuak euskaratu dituztenek. Argi eta garbi azaltzen dute zergatik, adibideak ere baliatuz (Urrutia, Urrutia, 2007: 54-55):

Halako definizioak prestatzeko orduan, gure proposamenak kontuan hartu du euskaraz adierazgarriena dena eta tradizioetik hurbil dagoena. Horrela, **lehenengo** lekuan, definitutako osagaia jarri da; ondoren, aditza; eta aditzaren ostean, definizioaren edukia. Horrek guztiak [subjektua + aditza + objektua] eskema bete du:

(348g) La propiedad es el derecho de gozar y disponer una cosa, sin más limitaciones que las establecidas en las leyes.

(348e) Jabetza da gauzak gozatu eta xedatzeko eskubidea, eta legean ezarritako mugapenak baino ez ditu.

Hona hemen beste adibide bat (Agirre, 2009: 104):

Terrorismoaren biktimak dira ekintza politikorako edo bizitza politikoan eragiteko tresna gisa indarkeriazko formak eta adierazpenak erabilia oinarritzko giza-eskubideak hausten eta duintasuna urratzen zaizkien pertsona guztiak.

<sup>26</sup> Jakingarria da zer definizioen ordez proposatzen diren horiek.

Bertan adierazten dena egia dela ziurtatzen duen agiria da egiaztagiria.

Ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duen idatzizko aitorten ofiziala da ziurtagiria.

Hauek bezain desegokiak izango lirateke besteok:

Egiaztagiria bertan adierazten dena egia dela ziurtatzen duen agiria da.

Ziurtagiria ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duen idatzizko aitorten ofiziala da.

Jokabide berbera erabili dute, definizioak izaera predikatiboagoa dute-nean ere (Urrutia, Urrutia, 2007: 55):

Se entiende por alimentos todo lo que es indispensable para el sustento, habitación, vestido y asistencia médica.

Mantenu gisa hartzen da elikagaiak, gelak, arropak eta osasun-laguntzak izateko behar den guztia.

Berdin joka daiteke, Agirrek dioen bezala, esaldi “atributiboaren helburua baldin bada mintzagaia osatzen duen multzoko elementuak identifikatzea eta zerrendatzea [...]. Halako esaldiek bereizgarri argi bat dute: enumerazio bat izan ohi da predikazioa”. Eta, besteak beste, honako adibideez argitzen du esana (Agirre, 2009: 89-90):

Las fuentes del ordenamiento jurídico español **son** la ley, la costumbre y los principios generales del Derecho.

Espainiako antolamendu juridikoaren iturriak **dira** legea, ohitura eta Zuzenbidearen printzipio nagusiak.

Igualmente **serán** responsables las personas que sean titulares, directoras o beneficiarias de los usos o de los establecimientos.

Erantzuleak **izango dira**, halaber, erabileren edo ezarpenen titularrak, zuzendariak edo onuradunak diren pertsonak ere.

Ildo beretik, gero eta gehiagotan erabili ohi dira honelakoak: “Jardunaldi hauen asmoa da...”, “Batzorde honen egitekoa da...”, “Txosten honen helburua da...”<sup>27</sup> eta antzekoak. Esaterako (Agirre, 2009: 8):

Azterlan honen helburua izan da jokabide batzuk erakustea, gaztelania formaletik euskarara itzultzerakoan formulazio ahalik argien, arinen eta naturalenak eratu ahal izateko.

---

<sup>27</sup> *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* liburuan jasoa da beste pasarte hau (Ararteko, 1991: 13):

Txosten honen helburua Ertzantzak nahiz Udaltzaingoak atxilotutakoak askatasunik gabe ordu batzutan, berriro aske utzi edo, agiango epaia egin dakien, epaikarien esku jarri arte egoten direneko, Euskadiko udal kalabozo eta Ertzantzaren espetxeen benetako eta lege-aldetikako egoera aurkeztea da.

## 7. Literaturan

Esaterako, eta idazle bakarrera mugatuz, Andoni Egañaren *Pausoa noiz luzatu* eleberritik hartuak dira ondorengo adibideak (Egaña, 1998):

Joseba zen herriko gazte bat, Frai Kandidorekin eskolan ibilitakoa, igande iluntze batez Erriotik bueltan, gerrian behera zintzilikaturiko xingola edo oihal-zerrenden artean hiru –txuria, gorria eta berdea– aldaka baterantz propio bereizi eta Guardia Zibilaren kuartelaren aurretik pasatu nahi zuena. (72-73)

Lozano sarjentua zen gizarajo bat, gizon zintzoa eta kirol-zalea inon bazen. (85)

Amaitzean bikarioak esan zidan ongi aritu nintzela, baina pizarren bat beharturik, gogortxo, errietan bezala. (108)

Bilduko zituen usadioa eta etorkizuna. Eta bilduko zituen lurralde haren izena eta biztanleen izena. Dena bilduko zuen *Jacetania!* hots eginda. (120)

“Eta Erregea? Zuetariko edonor baino bizkorragoa al da? Langileagoa? Finagoa akaso? Ez, ez da. Da alferragoa, zabarragoa, ezgauzagoa, hemen, Jacako herrian bildu garenon arteko edonor baino.” (122)

## 8. Oro har, aditz deklaratiboekin

Aurreko kapituluan, 3. puntuan, landu ditugu aditza aurreratzeko zenbait estrategia: osagarri nagusia aurreratu, aditza ere eraman dezan aurrera; adizlagunen bat tartekatu, aditza aurreratzeko aukera eman dezan; katafora erabili...

Baina zergatik ez, besterik gabe, aditza aurreratu? Hain zuzen, horrelako adibideak ikusten ari gara kapitulu honetan. Horrek, ordea, SOA ordena SAO ordena bihurtzea dakar, eta iraultze honek erreparatu pixka bat ematen dio zenbaiti. Dena den, SOA ordena lehenesten denetan ere beharrezkoa da eta (ia) ezinbestekoa zenbat kasutan: definizioetan-eta.

Ildo horretan, eta komunikazioa erraztu beharrez, aholkatu zuten IVAPeko lankideek “aditz deklaratiboak aurrera pasa” (IVAP, 1994: 54). Gero, Egunkarikoek garatu zuten aholkua beren estilo-liburuan (Egunkaria, 2001: 34-35). Eta IVAPekoek beraiek jarraitu dute osatzen: “definizioetan eta zerrenda luzeetan, laburrena aurrera” (IVAP, 2003: 224-225), “aditz de-



klaratiboak aurrera pasa” (IVAP, 2003: 225-227), “aditza aurreratu” (IVAP, 2005: 127-131). Berriakoe ere bereganatua dute, “aditza, lehenbailehen” aholkua zenbait estrategiaz hornituz (Berria, 2006: 31-32).

Aholku horren araberakoa da Egañaren adibideetako bat:

Amaitzean bikarioak esan zidan ongi aritu nintzela, baina pizarren bat beharturik, gogortxo, errietan bezala. (108)

Baita, besteak beste, honako hiru hauek ere:

eta esan zion adiskideari ez zegoela zertan hain mirrina izanik, inoren buruzagi izatekotan mendekoen joera bertsuak onartzen behar zuela ikasi, bere buruari gutxiago begiratzuz. (116)

“Eta nik diot, munduko gizonik apartena balitz ere, ba al luke eskubiderik berak bakarrik eta gutizia noiz, orduantxe, Gobernu osoa izendatze-ko?” (122-123)

Senak esan zidan Josebari agindutako zena zelako hura Francorentzat zuela. (177)

Bestalde, konponbide erraza du gure arestiko adibide batek:

Agintean dagoen partidu politikoak **zera** esan du: komeni dela datozen urteetan ahalik eta ongien zaintzea azpiegitura turistikoa, baldin eta krisi ekonomikoari aurre egin nahi badiogu.

Nahikoa da **zera** eta ondorengo bi puntuak kentzea:

Agintean dagoen partidu politikoak esan du komeni dela datozen urteetan ahalik eta ongien zaintzea azpiegitura turistikoa, baldin eta krisi ekonomikoari aurre egin nahi badiogu.

Gero eta gehiagotan erabili ohi dira horrelakoak. Esaterako (Agirre, 2009: 48):

Agerraldian adierazi dute ez dutela ekarpen orokorrik egin nahi; 1999ko apirilean argitaraturiko dokumentu batean egin zuten lehenengo hurbilketa orokorra, “Biktimak eta bake-prozesua” izenekoan.

Uste izatekoa da joera zabalduz joatea bestelako aditzetara ere.

## 9. Oharra

Azkenik, funtsezkoa da gauzak ez nahastea. Esaterako, *Marijane konta zan* liburuan dugu nahasmenduaren adibiderik nabarmenena (Minaberry, 1998). Izan ere, bi bertsiotan datoz liburuan Marijane Minaberryk idatzitako herri-ipuinak: eskuineko orrialdeetan, egileak idatzi bezala; eta ezkerrekoetan, Juan Kruz Igerabidek egokitu bezala.

Aurkezpenean esaten zaigunez, “Ipuina eskuin aldeko orrian doa idazlearen euskalkian. Eta ezkerrekoan, aldiz, euskara batuan, Juan Kruz Igerabidek egokiturik” (9. or.).

Halaxe da: egokipen-lana egina du Igerabide idazle finak. Baina, egilearen euskalkitik batura aldatu ez ezik, doinua ere aldatu die hainbat esaldiri, jatorrizko SAO ordena SOA bihurtuz, hain zuzen. Hala, lehen ipuinaren lehen esaldian, dio Minaberryk (11. or.): “Izar Xuri emana zioten izena, kopetan bazuelakotz ile xuri puxtuka bat”. Eta Igerabidek (10. or.): “Izar Xuri emana zioten izena, kopetan ile xerlo zuri bat zuelako”.

Gure aldetik, argi esan nahi genuke: ordena-aldaketak ez du zerikusirik euskara batuarekin. Are gehiago: ez dezagun orain euskara batuaren izenean egin, jakinaren gainean ala ez, lehen garbizaletasunaren izenean egindakoa.



## LABURBILDUZ

On izaten da, amaierara iristean, liburuan zehar egindakoa laburbiltzea eta, era berean, aurrera begira ipintzea.

Horixe egitera goaz, laugarren atal honetako bi kapituluetan, berriro ere adibideak bidelagun, nola aurreko kapituluetan erabilitakoak hala adibide berriak.

Zortzigarren kapitulan, bere osotasunean ikusiko dugu testua, aurreko ataletan arloka eta elementuka bezala. Izan ere, galbidera goaz ikuspegi osoa galduz gero. Osotasuna da testua. Hori kontuan izan ezean, alferrikakoak izango ditugu gainerako ahalegin guztiak.

Bederatzigarren kapitulan, batera bildu nahi ditugu aurrekoetan hitz-ordenaz landuak; hau da, hitz-ordenak dituen alderdiak eta hitz-ordena osatzen duten zerak.

Horrela, aldi berean, ageriago utziko ditugu lan honen mugak eta hutsuneak. Izan ere, azken batean, gaia –testua, hitz-ordena– zatika landu dugu. Eta, zatitzean, beti galtzen da zerbait; batzuetan, asko. Eta gero nola osatu berez bat dena? Osotasuna, gero, ezin izan zatien batura soila.

Horretaz jabetzeak zabaltzen digu aurrerabidea. Ez dugu inoiz gaia agortuko. Beti izango du zer landua. Beti sortuko zaizkigu zalantzak eta galderak. Beti izango dugu erabaki beharra. Eta erabakiak hartuz jarraituko dugu erabakiak hartzen ikasten eta gaitasun estrategikoa lantzen<sup>28</sup>.

---

<sup>28</sup> Gure ustez, bada liburu bat bereizi aipatu beharrekoa: *Itzulpen Estrategiak. Gaztelaniazko testu juridikoak eta administratiboak* (Agirre, 2009). Lan honetan, baliatua dugu argibide moduan eta adibide-iturri gisa; baina merezi du osorik irakurri, aztertu eta ustiatzea. Hasteko, lagungarri da hobeto jabetzeko bai testuaren osotasunaz, bai zenbat elementuz eta ñabarduraz dihardugun hitz-ordenaz ari garenean. Are baliagarriagoa izango dugu, estrategiaz ari delako, behin eta berriro horiek erabiliz benetako testuetan eta testu egokiak sortzen.

Azpimarratzekoa da zer-nolako ahalegina egiten ari den zenbait euskaltzale non eta orain arte euskaraz landu gabeko esparru batean, testu administratibo eta juridiko duinak argitaratzen, jatorrizko testu bihurri eta trinkoak bikain euskaratuz. Lan honetan saiatu gara horien ekarpen balio-tsua ere geureganatzen (Agirre, 2009), IVAP (1994), IVAP (2003), IVAP (2005), Urrutia, Urrutia (2007), Zenbaiten artean (2002), Zenbaiten artean (2007).



## 8. OSOTASUNEAN

Hainbat arlo eta elementu bereiz ditzakegu hitz-ordena lantzean. Bereizi eta nabarmendu, baina banandu gabe. Banan-banan landu, baina osotasuna kontuan izanik etengabe. Osotasuna dugu oinarri eta gidari, eta desegokitasunaren salatari. Osotasuna baita testua: esaldi solteen pilaketa baino gehiago; hainbat zatiren batuketa baino haratago.

Are gehiago. Osotasunak lagunduko digu bai landutakoa zabaltzen (zabal hartzen), bai arlo berriak urratzen.

Baina, bestalde, nahita ere ezin ihes egin diezaiokegu osotasunari, adibideetan behin eta berriro ikusi eta probatu dugunez, batez ere testu luzeetan; esaterako, “Jainko txikia” artikuluan (ikusi 34-38. or.) eta Antropologiari buruzko hitzaurrean (ikusi 76-77. or.).

Hemen, berriro hartuko dugu hitzaurre hori. Eta beste bi adibide erabiliko ditugu, testua bere osotasunean lantzeko, orain jakitunago. Bi adibide berriak dira itzulpenak: lehena, Euskadiko Orkestra Sinfonikoari buruzkoa; bigarrena, Elhuyar Kultur Elkartearena.

### 1. Lehen adibidea: Antropologiaz

Seigarren kapituluan erabilitako hitzaurrearen hasiera dakargu berriro hona (Apalategi, 2009: 7).

Antropologia kolonizatuen mentalitatea edo arima zientifikoki ezagutzeko kolonizatzaileek *ad hoc* sortutako giza eta gizarte zientzia dela historiografiarentzat ezbaierik gabekoa da. Hau interpretatu nahirik jartzen bagara, ordea, anitzetariko gogoetak ahalbide dezazkeela aipaturiko baieztapenak onartu beharrean gaude.

Lehena da, antropologia sortzea erabaki zutenean, kolonizatuen mentalitate edo arima eraldatzea eginkizun zaila gertatzen ari zela ordurako esperimentatua zutela kolonizatzaileek. Izan ere, kolonizatzailearekin sintonian sartzen zen heinean, eta orduan bakarrik kolonizatua errespetatzeko prest

baitzegoen kolonizatzailea, inola ere ez ordea bestela zitekeenean. Garai guztietan kolonizatzaileen jomuga indarrez eta inposamenduz lortutakoa menperatuaren mentalitatean itsatsirik ikustea izan baita betidanik. Kolonizatzaileek ekarritako normatiba kolonizatuaren usadioetan automatismoz bizitzen agertzean bakarrik konkistaren iraupena bermaturik dagoela adieraziko bailuke.

Hitzaurrearen lehen bi lerrokadak dira. Nahiz eta pasarte luze samarra osatu, uste dugu beharrezkoak direla bai gaiaz jabetzeko, bai arazoa non dagoen ohartzeko.

Nahikoa da hitz-ordena aldatzea, argiagoa bihurtzeko testua. Esaterako:

Ezbairik gabekoa da zer den antropologia historiografiarentzat: kolonizatzaileek *ad hoc* sortutako giza eta gizarte-zientzia, kolonizatuaren mentalitatea edo arima zientifikoki ezagutzeko. Hori interpretatu nahirik jartzen bagara, onartu beharrean gaude, ordea, aipaturiko baieztapenak anitzetariko gogoetak ahalbidera ditzakeela.

Hala ere, merezi du pixka bat gelditzea adibide honetan eta gogoeta txiki bat egitea. Izan ere, seigarren kapituluan esan dugunez, euskaldun zaharra eta idazlea da testuaren egilea; eta kasu honetan ezin esan ditzakegu, behintzat, erdaraz pentsatutako testua dela eta horrelakoetan esan ohi ditugunak.

Adibide horrek bide ematen digu gogoratzeko zer idatzi duen beste idazle batek –Anjel Lertxundik–, benetako beharra non dagoen salatuz (Lertxundi, 2009: 24):

Indarrak banu, pozik aldatuko nuke euskal perpausa. Arindu esan nahi dut. Agian, irauli ere esan beharko nuke. Esaldiak eraman behar ninduke ni, eta ez nik bera. Nire zerbitzuan behar luke egon, ez nuke denbora guztian zalantzas ibili behar hizkuntza hegemonikoetako idazleak lasai peto dabil-tzan bideetan. Esaldiak bizkortu, lexikoa garbitu, arin-arin ibili perpausetik perpausera, esaldien arteko loturak freskatu...

Behin eta berriro asmatzen ibili beharrak baditu abantailak. Eragozpenak ere bai: ikaragarri nekatzen du. Idazten duzun esaldi bakoitza beste gailur konkistatu bat balitz bezala ospatzeko, mendizale handia izan beharra dago.

## 2. Bigarren adibidea: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaz hauxe dio liburuxka batek (Zenbaiten artean, 2010: 12):

## Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

28 urteko ibilbidea egina duela, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak tinko dirau musika sinfonikoa eta bereziki euskal musika zabaltzearen bere eginkizuna betetzen. Ongi finkatutako eta egituratutako jarduerak lau kontzertu-ziklo iraunkor (Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruñea), ganbera musika-ziklo bat eta gaztetxoentzako kontzertu-zikloak eta jarduera ezberdinak burutzea ahalbideratzen du. Halaber, arreta bereziki euskal musikagileen ekoizpen sinfonikoan jartzen duen diskografia zabala garatu du eta orkestra gonbidatu gisa udako jaialdietan, operetan eta abar aritzen da.

Itzulpen baten aurrean gaude. Eta, ulertzekotan, behin eta berriro irakurri behar da testua, nahiz eta itzultzailea ahalegindu den idatzia lantzen.

Batik bat, atzerakargak egiten du testua ulergaitz: esaldien amaieretan ageri dira zenbait testu-antolatzaile eta aditz. Baina ez da hori soilik. Elkarrengandik urrun ageri dira, sarri samar, elkarren ondoan egon beharko luketen hitzak. Elkarren ondoan daude erdal testuan, eta ahalik eta gertuen joan beharko lukete euskarazkoan ere; hala eskatzen baitu testuak berak, erdaraz nahiz euskaraz.

Hona hemen bi bertsioak, parez pare.

28 urteko ibilbidea egina duela, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak **tinko dirau** musika sinfonikoa eta bereziki euskal musika zabaltzearen bere eginkizuna **betetzen**. Ongi finkatutako eta egituratutako **jarduerak** lau kontzertu-ziklo iraunkor (Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruñea), ganbera musika-ziklo bat eta gaztetxoentzako kontzertu-zikloak eta jarduera ezberdinak **burutzea ahalbideratzen du**. Halaber, arreta bereziki euskal musikagileen ekoizpen sinfonikoan jartzen duen diskografia zabala **garatu du** eta orkestra gonbidatu gisa udako jaialdietan, operetan eta abar **aritzen da**.

*Con 28 años de trayectoria, la Orquesta Sinfónica de Euskadi **sigue desarrollando con solidez** su vocación de divulgar la música sinfónica y de atender con especial énfasis la música vasca. Una asentada y bien estructurada **actividad le lleva a actuar** de manera permanente en cuatro ciclos de conciertos (Vitoria, Bilbao, San Sebastián y Pamplona), **a celebrar** otros ciclos dedicados a la música de cámara y también al público infantil, **a desarrollar** una intensa política discográfica centrada fundamentalmente en la producción sinfónica de compositores vascos y **a actuar** como formación invitada en festivales de verano, ópera, etc.*

Lanik zailena egina dago. Testua egokiago bihurtzeko, nahikoak dira ukitu gutxi batzuk. Erdal testuaren hitz-ordenak berak lagundu diezaguke horretan.



Berez aldaketa gutxi dira, nahiz eta testua asko aldatu; eta denbora gutxian egin daitezke, zertan ari garen argi izanez gero. Guk apenas ukitu dugun lexikoa, ageriago gera dadin non dagoen gakoa.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, 28 urteko ibilbidea izanik, tinko **dirau** bere **eginkizuna betetzen**; musika sinfonikoa zabaltzen eta arreta berezia eskaintzen euskal musikari. Ongi finkatua eta egituratua du jardura. Horrek **ahalbideratzen du bai** lau kontzertu-ziklo **ematea** etengabe (Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruñean), **bai** beste zenbait ziklo **eskaintzea** ganbera-musikari eta gaztetxoei, **bai** diskografia zabala **garatzea** bereziki zainduz euskal musikagileen ekoizpen sinfonikoa eta **bai** eta orkestra gonbidatu gisa **aritzea** udako jaialdietan, operetan eta abar.

*Con 28 años de trayectoria, la Orquesta Sinfónica de Euskadi **sigue desarrollando con solidez** su vocación de divulgar la música sinfónica y de atender con especial énfasis la música vasca. Una asentada y bien estructurada **actividad le lleva a actuar** de manera permanente en cuatro ciclos de conciertos (Vitoria, Bilbao, San Sebastián y Pamplona), **a celebrar** otros ciclos dedicados a la música de cámara y también al público infantil, **a desarrollar** una intensa política discográfica centrada fundamentalmente en la producción sinfónica de compositores vascos y **a actuar** como formación invitada en festivales de verano, ópera, etc.*

Batak hurrengo eskatuta, lau aldaketa nagusi egin ditugu euskal testuan.

- Azken batean, oinarritzko aldaketa bera egin dugu esaldi banatan: aditzak elkarrengana hurbildu; batean, **eginkizuna** eta **betetzen**; bestean, **ahalbideratzen du** eta **ematea**, **eskaintzea**, **garatzea** eta **aritzea**. Aldaketa hau da nagusia. Honen ondorio dira gainerakoak.
- Bigarren zatian, gainera, esaldiaren abiaburura eraman dugu aditz nagusia (**ahalbideratzen du**), eta ondoren ipini ditugu menpekoak (**ematea**, **eskaintzea**, **garatzea** eta **aritzea**).
- Bestalde, **ahalbideratzen du** aditz nagusiarekin lotu ditugu **garatzea** eta **aritzea** ere. Lehen, eten batek bereizten zituen, nahiz eta **halaber** antolatzaileak zubi-lanak egin. Oraingo bertsioan, argiago ageri da lau menpeko esaldien zerrenda-izaera. Aldeak alde, antzeko moldaketak dira hemengoak eta “Pazkoazko Piztuera ospatzen” pasartekoak (ikusi 47. or.).
- Beste aldaketa ere egin dugu bigarren zatian, hain zuzen nabarmenago gera dadin esaldi nagusiaren eta menpekoen arteko lotura eta zerrendatzea. Erdal testuan, **a** preposizioak du egiteko hori. Euska-

razko lehenengoan, **-t(z)ea** atzizkiak egiten zuen soilik. Orain, **bai** testu-antolatzaileaz indartu da.

Lehen ere, ikusia dugu antzeko estrategiarik: Joseba Sarrionandiarren itzulpena batean (Corpus batzordea, 2008: 70)<sup>29</sup>.

Egin dira beste aldaketa batzuk ere: testuaren hasiera, lehen esaldiaren baitan bi eten egin izana... Irakurlearen esku uzten dugu horien arrazoa eta balorazioa.

Erabil zitezkeen bestelako estrategiak. Agian, egokiagoak ere bai. Baina, usteak uste, agerikoa da aldaketa gutxi batzuek testuan eragindako hobekuntza.

Orain artekoak, dena den, lehen itzulpenaren gainean egindako lanak dira. Esan gabe doa: horrelakoak errazago egin ohi dira, bi hizkuntzetako testuak batera idatziz.

### 3. Hirugarren adibidea: Elhuyar taldea: izena eta izana

Adibide honetan, hiru bertsio ditugu: euskarazkoa, gaztelaniazkoa eta frantsesa (Azkune, 1997: 12, 40, 68). Pentsatzekoa da euskarazkoa dela jatorrizkoa eta erdarazkoak itzulpenak. Baina bateratsu eginak egon daitezke hirurak.

Orain ere agerian daude euskal testuaren arazoak, zenbait pasartetan. Hemen, pasarte batean ipiniko dugu arreta: letra lodiaz nabarmendutakoan. Hona hemen, aurrekoa eta ondorengo pasarteak ere lagun, aukeratutakoa hobeto ulertzearen.

[Elhuyar] taldeak lege aldetik behar zuen babesa Euskal Herriko Adiskideen Elkartek eman zion eta geroxeago argitaratzen hasitako “Elhuyar” aldizkaria ere Elkarte horren adar gisa plazaratu zen. Eskertzekoa da garai

29

Ojalá con el tiempo  
sólo quede lo bueno, **que** los años  
arrasen la memoria de los días  
de miseria y **que** el viento,  
igual que se llevó nuestras promesas,  
se lleve las palabras alevosas  
con que nos golpeamos  
hasta hacernos sangrar.  
**Que** el corazón descanse y **que** la lluvia  
borre la última huella  
de la última batalla.

José Fernández de la Sota

**Ea** denborak zeozer hobe  
uzten duen, **ea** datozen urteek  
oinaze egunon oroimena  
garbitzen duten, **ea** haizeak  
promesak eraman zituen bezala  
batak bestea odoleztatu arte  
jotzeko erabiltzen ditugun hitzak  
eta azpikeriak eramaten dituen.  
**Ea** bihotzak atsedean hartu ahal duen,  
**ea ba**, euriak azken batailako  
azken aztarnak ezabatzen dituen.

Itzulpena: Joseba Sarrionandia

hartan Alvaro del Valle Lersundi jauna lehendakari zela Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak Elhuyar taldeari emandako laguntza.

Taldeak aldizkariari “Elhuyar” izena ipini zion, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak Bergaran zuen Erret Mintegiko laborategian Fausto Fermín eta Joan Jose Elhuyar anaiek wolframioa deitu zioten elementu kimikoa munduan lehen aldiz isolatu zutelako. Euskal Herriak zientzia eta teknikaren arloan egindako ekarpen nagusietakoa zelako izen egokia iruditu zitzaizen taldekideei eta aldizkariak ez ezik, taldeak, eta gero elkarteak ere, izen horixe dute harrezkero.

Ulergaitza da pasarte hautatua; hain zuzen, hitz-ordena desegokiagatik. Erdal testuek ere lagundu diezagukete egokitzapena bideratzen.

Honela dio gaztelaniazkoak:

La revista adoptó el nombre “Elhuyar” en memoria de los hermanos Fausto Fermín y Joan José Elhuyar, quienes en el laboratorio del Real Seminario de Bergara, propiedad de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, aislaron por primera vez en el mundo un elemento químico que luego denominarían volframio.

Hona hemen, elkarren parean, euskarazko eta erdarazko bertsioak, iruzkinak egiteko prestatuak.

Taldeak aldizkariari “Elhuyar” izena ipini zion, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak Bergaran zuen Erret Mintegiko laborategian Fausto Fermín eta Joan Jose Elhuyar anaiek wolframioa deitu zioten elementu kimikoa munduan lehen aldiz isolatu zutelako.

*La revista adoptó el nombre “Elhuyar” en memoria de los hermanos Fausto Fermín y Joan José Elhuyar, quienes en el laboratorio del Real Seminario de Bergara, propiedad de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, aislaron por primera vez en el mundo un elemento químico que luego denominarían volframio.*

Lehen begiratuan, bi arazo larri ditu euskarazkoak. Batetik, ipini zion eta zutelako horien arteko tarte handia: zutelako irakurri arte ezin jakin zertan ari den testua. Bestetik, tarte horretako ideien antolamendu nahasia. Azken batean, hitz-ordena kontua da.

(Erdarazkoan, oso gertu doaz adoptó eta en memoria; eta, tarteki bi-koitzari esker<sup>30</sup>, egoki antolatua dago ondorengo).

<sup>30</sup> Berez, koma bat ipini beharko genuke quienes izenordearen ondoren, tartekiaren hasiera markatuz.

Esaldiko sei ideiek honelako ordena logikoa izango lukete berez: 1) Elhuyar izena eman diote aldizkariari, 2) zergatik?, 3) Elhuyar anaien oroimenez, 4) izan ere, hauek isolatu zuten lehen aldiz wolframioa, 5) Bergarako Erret Mintegiko laborategian; 6) Euskal Herriko Adiskideen Elkartearena zen mintegia. Azken batean, aldizkariaren izenaren zergatia azaltzen dute (1-3); gainerako hiru ideiak (4-6) azalpen edo eranskin osagarriak dira, koskaz koska gero eta osagarriago.

Baina beharrezkoa da bi ohar egitea. Lehenik, azpimarratzekoa da bigarren ideia ere (**zergatik?**) ideiatzat hartu izana. Erraz pasa daiteke-eta oharkabean; hain dago ezkutua testuan: euskaraz, **-lako** atzizkian; gaztelaniaz, **en memoria** horren baitan. Bigarrenik, berezko ordena logiko hori bestelakoa izan daiteke, baldin eta bigarren mailako ideia bat-edo nabarmendu nahi denean, kasu honetan 5. eta 6. ideiak bezala. Izan ere, aurreko pasarte batean aipatu eta eskertu da Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak Elhuyar Taldekoei eskainitako laguntza, eta orain Elhuyar anaiek Elkartearekin izandako lotura adierazi nahi da zeharbidez. Halaber, hurrengo pasarteak dioena ere bideratu nahi da.

Horiek horrela, era desberdinean antola daitezke sei ideiak. Baina, betiere, gauzak nahasi gabe. Nahasiegia da euskarazko ordena: 1, 6, 5, 3, 4, 2. Egokia gaztelaniazkoa: 1, 2, 3, (5, 6) 4; nabarmen geratzen baita, 5 eta 6 tarteki bikoitz horri esker, non egin zuten bi anaiek aurkikuntza. Tartekirik gabe ere, esanahi bete izango luke esaldiak, baina mamitik asko galduz.

La revista adoptó el nombre “Elhuyar” en memoria de los hermanos Fausto Fermín y Joan José Elhuyar, quienes [...] aislaron por primera vez en el mundo un elemento químico que luego denominarían wolframio.

Euskaraz, tarteki-izaera galdua du erdiko informazioak. Eta, horrez gain, ulergaitz egin du **zutelako** amaieran egoteak.

Aukerak aukera, honela konpon dezakegu, frantses bertsioa ere kontuan izanik:

“Elhuyar” izena ipini zioten aldizkariari, Fausto Fermin eta Joan Jose Elhuyar anaien oroimenez, horiek isolatu baitzuten munduan lehen aldiz, hain zuzen Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak Bergaran zuen Erret Mintegiko laborategian, gero wolframioa deitu zioten elementu kimikoa.

Besteak beste, ahalik aurreen ipini dugu zergatia (**oroimenez**) eta saiatu gara nabarmentzen bai tartekia, bai honen egitekoa (**hain zuzen** erabiliz).

Frantses bertsioa ere argigarria da, arazoak eta konponbideak non dau-den ikusteko.

Le groupe baptisa cette revue Elhuyar car c'est précisément dans le laboratoire du Séminaire Royal que l'Association des Amis du Pays-basque possédait à Bergara que les frères Fausto Fermin et Joan Jose Elhuyar isolèrent pour la première fois au monde l'élément chimique auquel ils donnèrent le nom de Wolfram.

Hona hemen, ondoren, esaldiaren euskal bertsio berria eta frantsesa aurrez aurre:

“Elhuyar” izena ipini zioten aldizkariari, Fausto Fermin et Joan Jose Elhuyar anaien oroimenez, horiek isolatu baitzuten munduan lehen aldiz, hain zuzen Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak Bergaran zuen Erret Mintegiko laborategian, gero wolframioa deitu zioten elementu kimikoa.

*Le groupe baptisa cette revue Elhuyar car c'est précisément dans le laboratoire du Séminaire Royal que l'Association des Amis du Pays-basque possédait à Bergara que les frères Fausto Fermin et Joan Jose Elhuyar isolèrent pour la première fois au monde l'élément chimique auquel ils donnèrent le nom de Wolfram.*

Frantses bertsioa, funtsean, lehengo euskarazkoaren ordaina da. Eta ajebera du esanahiaren aldetik, baina nabarmenago ageri dena. Izan ere, **précisément** erabiliz azpimarratzen du wolframioa Bergarako laborategian isolatu izana<sup>31</sup> eta ez Elhuyar anaiek isolatu izana. Baina jario errazeko (ederreko) prosa da, besteak beste, **car** testu-antolatzailea leku egokian ipini izanari esker.

---

<sup>31</sup> Frantses bertsioa zuzentzeko, nahikoa da c'est leku egokira eramatea (eta, agian, tartekia koma artean ipintzea).

Le groupe baptisa cette revue Elhuyar car, précisément dans le laboratoire du Séminaire Royal que l'Association des Amis du Pays-basque possédait à Bergara, c'est que les frères Fausto Fermin et Joan Jose Elhuyar isolèrent pour la première fois au monde l'élément chimique auquel ils donnèrent le nom de Wolfram.

## 9. HITZ-ORDENA

Behin hitz-ordena aldez eta moldez landu ondoren, egokia izan daiteke aurreko kapituluetan egina berrikusi eta biltzea. Hasteko, ohar gaitezen zer esaten ari garen *hitz-ordena* esatean, zenbat gai eta alderdi ezkututzen den gai nagusi horren baitan. Eta, aldi berean, ohar gaitezen ez ditugula landu alderdi guzti horiek eta, beraz, zabalik geratzen dela hitz-ordenaren gai nagusia.

Horrexetan ahaleginduko gara kapitulu honetan.

Hitz-ordenaz jardutean, ohikoa izan da gure artean bizpahiru puntutan ipintzea arreta: batez ere, galdegaian eta SOA edo SAO hitz-ordenan. Nahiz eta garrantzitsuak izan, ez dira bakarrik. Are gehiago: beste zenbait gaik lagun diezaguke, ikusi dugunez, horiek ere argitu eta bideratzen.

### 1. Konexioa: testu-antolatzaileen kokapena

Hirugarren kapituluaren ikusi dugunez, bi funtzio dituzte testu-antolatzaileek: lotzaile eta iragarle dira. Eta hirugarren ezaugarri bat ere badute zenbait (testu-markatzaile gehienek): tarteki dira (idatzi, koma artean idatzi ohi dira).

Funtzio eta ezaugarri horien harira landu dugu testu-antolatzaileen kokapena. Esaldiaren abiaburura —esaldi bat bere aurrekoarekin lotzen den gunera— eraman gaituzte bi funtzioek; esaldiaren barnealdera, hirugarren ezaugarriak.

#### 1.1. Lotzaile

Lotzea da testu-antolatzaileen egiteko nagusia: bi pasarte edo esaldi (edo esaldi) zati lotzea. Hori dela-eta, lotutakoen junturan dute beren kokapen naturala, nahiz eta euskaraz zenbait testu-antolatzaile —batik bat, menderagailuak— esaldiaren amaieran kokatzen diren.

Horrek kontuz ibiltzea eskatzen du. Esaterako, honela dio Xabier Letek, Lizardi poetari buruz (Lete, 1974: 42; geuk nabarmenduak dira bi testu-antolatzaileak):

Lizardik, gerla baino hiru urte lehenago hil baitzen, ez zuen hondamendi ikaragarri hura ezagutu. Eta, egia esan, bihotzez pozten naiz. Lizardi bezalako poeta bikain bat hain gazterik hiltzea alde batetik penagarri **bada ere**, harentzat, hain gizon zuzen eta fina zen harentzat, handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria are penagarriago eta minberagarriago izan **baitzitekeen**.

Bi testu-antolatzaile horiek, dauden daudenean (bakoitza bere esaldia-  
ren amaieran), ez dute errazten testuaren irakurketa. Horrexegatik, egokitu  
genuen zertxobait, bide batez **izan zitekeen** aditza ere aurreratuz (Corpus  
batzordea, 2008: 56-59):

Lizardik, gerla baino hiru urte lehenago hil baitzen, ez zuen hondamendi ikaragarri hura ezagutu. Eta, egia esan, bihotzez pozten naiz. **Izan ere, nahiz eta** Lizardi bezalako poeta bikain bat hain gazterik hiltzea alde batetik penagarri **den**, harentzat, hain gizon zuzen eta fina zen harentzat, are penagarriago eta minberagarriago **izan zitekeen** handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria.

## 1.2. Iragarle

Adibide horretan bertan, argi ageri da testu-antolatzaileen bigarren egitekoa: ondoren datorrena iragartzea. **Izan ere** irakurtzean (entzutean), badakigu zergatia datorrela ondoren. Jatorrizko testuan, ordea, ez gara horretaz ohartzen harik eta **baitzitekeen** topatu arte. Berdin gertatzen da **nahiz eta** eta **bada ere** horiekin ere.

## 1.3. Tarteki

Gainera, testu-antolatzaile batzuk –testu-markatzaile gehienak– esaldia-  
ren barruan ere koka daitezke, eta orduan koma artean idatzi ohi dira askotan.

Eta hori balia daiteke pausaldi prosodikoak adierazteko, hauek komaz edo bestelako baliabidez ezin adieraz daitezkeenean. Adibidez (Rose, 1991):

Haurrari erantzuteko prest ego-  
teak sarri mendekotasun moduko  
bat ezkututzen du, bertan gurasoen  
neurosia azaltzen delarik, baina kul-  
tur aldetik dagoen adostasunak eta  
merkataritzaren presioak joera hori  
indartzen dutenez oso zaila da aza-  
lerarazten.

*Haurraren gain-gainean egotea, **askotan**,  
gurasoen neurosia ezkututzen duen morrontza  
da. Eta are ezkutuago geratzen da, **gainera**,  
giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren  
presioagatik.*

Berehala baliatuko dugu beste adibide bat (ikus 113. orrialdean), non langai izango dugun **nonbait** testu-antolatzailea.

## 2. Mintzagai-egitura: mintzagaiak eta iruzkinak

Urteak daramatzagu mintzagai-egitura lantzen. Ezagun zaharra dugu galdegaia (iruzkin hanpatua). Baina maila bereko elementuak dira iruzkina (iruzkin soila), mintzagaia eta mintzagai hanpatua ere. Eta, testuak sortzean, horiek denak kontuan hartu behar ditugu, laugarren kapituluaren ikusi dugunez.

Aldi berean, laguntza handiko izango dugu funtzio-egiturari erreparatzea ere.

### 2.1. Mintzagaia

Badira pasarte eta paragrafoak mintzagai bera dutenak. Horrelakoetan, pasartearen buruan joan ohi da mintzagaia, eta mintzagai hori dute erreferentzia ondorengo iruzkinak.

Hori kontuan ez hartzeak asko nahas lezake testua, itzulpen honetan ikusten denez:

Behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik, piztuerako Pazkoa ospatzean. Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualetan eta betiereko ospean. Mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. Munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezerean eta inoren esklabo izan gabe. Lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

Testua egokitzeko, lagungarri da mintzagaia buruan ipintzea. Halaxe dago erdal bertsiotan (ikus 47. orrialdean).

Piztuerako Pazkoa ospatzean, begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik, behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera. Eta Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualetan eta betiereko ospean. Eta mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. Eta munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezerean eta inoren esklabo izan gabe. Eta lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz.



Ausartagoa da beste itzulpen hau. Baina aurrekoa bezain gramatikala eta zuzena da; eta argiagoa ere bai.

Piztuerako Pazkoa ospatzea da begira jartzea, bihotza zabal-zabalik, behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera. Da aitortzea Jainkoaren neurrigabeko maitasuna; Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualean eta betiereko ospean. Da sentitzea mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago. Da berreskuratzea munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna, ezeren eta inoren esklabo izan gabe. Da hartzea lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

## 2.2. Subjektua

Mintzagaiari buruz esanak balio lezake, zenbaitetan, subjektuarentzat ere. Izan ere, hitz-unitate bera, batzuetan, mintzagai eta subjektu –biak– izan daiteke aldi berean, bakoitza bere mailan: mintzagaia, mintzagai-egituran; subjektua, funtzio-egituran.

Adibidez, hala dira, ondorengo testuan, letra lodian nabarmenduak (Igela Argitaletxea, 2003).

Munduko enpresarik handienetako bateko bulegari izan zenean bizi izan zuen amets gaiztoa kontaktan du nobela honetan **Amélie Nothombek**.

Mendebaldekoa eta emakumea izatearen desabantailak ederki ezagutzeko aukera izan zuen, nonbait, **egileak** Yumimoto enpresa japoniarrean: lan burugabeak, agindu txoroak, umilazio negargarriak, eginbehar ernegarri, itsusi eta eldarniozkoak.

*Amélie Nothombek* nobela honetan kontaktan du zer-nolako amets gaiztoa bizi izan zuen bulegari izan zenean munduko enpresarik handienetako batean.

*Egileak*, nonbait, Mendebaldekoa eta emakumea izatearen desabantailak ederki ezagutzeko aukera izan zuen, Yumimoto enpresa japoniarrean: lan burugabeak, agindu txoroak, umilazio negargarriak, eginbehar ernegarri, itsusi eta eldarniozkoak.

**Amélie Nothombek** eta **Egileak** paragrafo banaren buruan ipini izanak asko bideratu du testuaren ulermena. Aldaketa nagusi horren ondoren etorri dira beste biak, **zer-nolako** eta **nonbait** testu-antolatzaileena. Hori dela-eta, egokia izan daiteke gogoratzea zer genioen aurreko lanean (Corpus batzordea, 2008: 76-77), testua era osoan ikuste aldera, lan honetan landua ere baliatuz.

*Zer-nolako*

Kontuz erlatibozkoekin. Lehen esaldian dugu bat: “bizi izan zuen amets gaiztoa”. Erreferentea (“amets gaiztoa”) atzean joateak zaildu egiten du irakurketa.

Kasu honetan, behintzat, badago zailtasun hori saihesterik, **zer-nolako** forma erabiliz:

Munduko enpresarik handienetako bateko bulegari izan zenean zer-nolako amets gaiztoa bizi izan zuen kontatzen du nobela honetan Amélie Nothombek.

Are gehiago: **zer-nolako** horri esker, gehiago ere hobe daiteke esaldia, osagaiak SAO ordenan moldatuz.

*Nonbait*

Berez (gramatikaz), zenbait testu-antolatzaile –esaterako, **nonbait**– berdin joan daiteke esaldiaren hasieran, erdialdean edo amaieran.

Ikuspegi testualetik, ordea, ez da berdin. Izan ere, iragartzea da testu-antolatzaileen egiteko bat: ondoren zer datorren iragartzea. Horregatik, ikuspegi honetatik, zenbat eta aurrerago antolatzailea, orduan eta hobeto.

Hemen, **nonbait** horrekin batera, subjektua ere aurreratu dugu, baina ordena aldatuz: lehenik subjektua eta ondoren antolatzailea. Horrela, markatuta geratzen da subjektuaren eta predikatuaren arteko pausaldia. (Bide batez: egiteko hau ere bete dezake testu-antolatzaileak, egoki erabiliz gero.)

Honek guztiak berdin balio du bai testu idatziak nahiz ahozkoak sortzeko, bai itzulpenak egiteko ere.

Honela itzuli dute, esaterako, Nafarroako Foru Berriaren 593. legea (Zenbaiten artean, 2002: 483):

**Quien** compra con pacto de retro una cosa dada en arrendamiento, en tanto no adquiriera definitivamente la propiedad, no podrá resolver el contrato de arrendamiento.

**Norbaitek** atzera-eskuratzeo itunarekin erosten badu errentan emandako gauza, ezin izanen du, jabetza behin betiko eskuratzen ez duen bitartean, errentamendu-kontratua suntsiarazi.

Aurreko lanean ere esan genuen: “zeinen egoki itzultzen duen euskarazko **norbaitek** horrek erdal **quien!** Eta zeinen egoki dagoen buru-buruan!” (Corpus batzordea, 2008: 80).

Aldeak alde, antzeko estrategia erabili zuten itzultzaileek 16. legea itzultzean (Zenbaiten artean, 2002: 205):

La condición foral navarra de una persona somete a ésta al Derecho Civil y a las disposiciones administrativas y fiscales de Navarra.

*Norbaitek Nafarroako forudunaren izaera baldin badu, pertsona hori Nafarroako zuzenbide zibilaren menpe eta bertako administrazio- nabiz zerga-xedapenen menpe geratuko da.*

### 2.3. Mintzagai hanpatua

Mintzagaia hanpatua denean, berriz, esaldiaren hasieran joan ohi da mintzagai hori (Linazasoro, 2002: 110):

[Entzungailuari esker] jendeak pentsatzen zuena entzun nezakeen! Pentsamendu hark, aldi berean, poza eta kezka sortu zuen ene baitan; **poza**, entzungailuak gizakiok ez dugun dohain baten jabe egiten ninduelako; **kezka**, dohain hark bide ezezagun eta arriskutsu bat irekitzen zidalako.

## 3. Hari logikoa eta eduki semantikoa

Elementu formal askok antolatu eta lotzen dute testuak emandako informazioa. Azken batean, informazioaren zerbitzuan daude. Hori kontuan hartuta eratuko du igorleak testuaren haria; besteak beste, mintzagaia eta subjektua hasieran ipiniz (arestian ikusi bezala), aditzak egoki mailakatuz (nagusiak aurretik, mendekoak atzetik), hitzen arteko loturak zainduz, loturak ondo kokatuz...

Itzulpenak egitean ere, beharrezkoa da ohartzea jatorrizko testuaren antolamendu semantikoaz (eta ez soilik formalaz).

28 urteko ibilbidea egina duela, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak **tinko dirau** musika sinfonikoa eta bereziki euskal musika zabaltzearen bere eginkizuna **betetzen**. Ongi finkatutako eta egituratutako **jarduerak** lau kontzertu-ziklo iraunkor (Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruñea), ganbera musika-ziklo bat eta gatzetxoentzako

*Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, 28 urteko ibilbidea izanik, tinko dirau bere eginkizuna betetzen: musika sinfonikoa zabaltzen eta arreta berezia eskaintzen euskal musikari. Ongi finkatua eta egituratua du jarduera. Horrek abalbidertzen du bai lau kontzertu-ziklo ematea etengabe (Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruñean), bai beste zenbait ziklo eskain-*

kontzertu-zikloak eta jarduera ezberdinak **burutzea ahalbideratzen du**. Halaber, arreta bereziki euskal musikagileen ekoizpen sinfonikoan jartzen duen diskografia zabala **garatu du** eta orkestra gonbidatu gisa udako jaialdian, operetan eta abar **aritzen da**.

*tzea ganbera-musikari eta gaztetxoei, bai diskografia zabala **garatzea** bereziki zainduz euskal musikagileen ekoizpen sinfonikoa eta **bai** eta orkestra gonbidatu gisa **aritzea** udako jaialdian, operetan eta abar.*

Eduki semantikoari erreparatzeak eta hari logikoa zaintzeak erabaki ausartak hartzera eramán gaitzake; adibidez, zenbait testu itzultzean.

Ildo horretan, merezi du gogoratzea zer dioen Jesus Maria Agirrek, itzulpen-estrategiaz ari dela (Agirre, 2009: 19):

Gaztelania formalaren ezaugarrietako bat nominalizaziora erruz jotzea da. Behar den guztietan gaztelaniazko nominalizazioak aditizenez edo aditz jokatzuz itzuliko dira; gaiaren garapen trinkoegiak eskatzen duen guztietan, zatiketak egingo dira paragrafoan. Era horretara, gaztelaniaz sarritan oso dentsuak eta ilun edo anbiguoak diren formulazioak itzultzerakoan, sekuentzia arinetara joko da: neurritz erabiliko da nominalizazioa eta batik bat lokailuak eta perpaus lokabeak eta txertatu arinak antolatuko dira.

Eta adibide argi batez biribiltzen du esana. (Egileak berak nabarmenduak dira, letra lodiz, nominalizazioak erdal testuan eta horien ordainak euskarazkoan. Geuk nabarmenduak dira, azpimarratuz, testu-antolatzaileak.)

La **complejidad** del reparto competencial en la Comunidad Autónoma Vasca y la importante **presencia** de las diputaciones forales en el mapa de equipamientos culturales hacen imprescindible alcanzar con carácter previo acuerdos que permitan definir una estructura coherente y no se dispersen y dupliquen los esfuerzos.

Euskal Autonomia Erkideko eskumen-banaketa **oso korapilotsua da** eta foru-aldundiek **eginkizun handia dute** kultura-ekipamenduen mapan. Horregatik, ezinbestekoa da aldez aurretik akordioak lortzea, egitura koherente bat finkatzeko eta, era horretara, ahaleginak ez barreiatzeko eta bikoizteko.

#### 4. Erlatibozko esaldiak

Erlatibozko esaldietan probatzen da, nabarmen, euskal hitz-ordenak di-tuen problemak. Eta, hain zuzen, horietan ibili beharko da argi erabakiak har-tzeko orduan.

Horretan asko lagundu lezake, hasteko, informazioari berari errepara-tzeak eta bera banatzeko eta ordenatzeko modua zaintzeak. Horren arabera-koa izan behar du hitz-ordenak ere (ikusi 105-108).

Taldeak aldizkariari “Elhuyar” ize-na ipini zion, Euskal Herriko Adiski-deen Elkartek Bergaran zuen Erret Mintegiko laborategian Fausto Fermin eta Joan Jose Elhuyar anaiek wolframioa deitu zioten elementu kimikoa munduan lehen aldiz isolatu zutelako.

*“Elhuyar” izena ipini zioten aldizka-riari, Fausto Fermin eta Joan Jose Elhuyar anaaien oroimenez, horiek isolatu baitzuten munduan lehen aldiz, baina zuzen Euskal Herriko Adiskideen Elkartek Bergaran zuen Erret Mintegiko laborategian, gero wolframioa deitu zioten elementu kimikoa.*

Hitz-ordena ondo eratzeko, laguntza handikoa da bereiztea erlatibo mur-rizgarriak eta ez-murrizgarriak. Ondoren erabakiko da zein estrategia erabili.

Ez da beharrezkoa erlatibo erromanikoa erabiltzea, nahiz eta egokia izan daitekeen behin baino gehiagotan.

Euskararen lur-eremu guztietako eta pentsaera eta lanbide askotako ordezkari ez osaturiko Euskararen Ahol-ku Batzorde honek, bere aurreko guztiek bezala, ahalegin handia egin du euskara guztion ondasuntzat har-tua, zaindua, lagundua eta biziberritua izan dadin.

*Euskararen Aholku Batzorde honek, zeina osatua baita euskararen lur-eremu guztietako eta pentsaera eta lanbide asko-tako ordezkari ez osaturiko Euskararen Aholku Batzorde honek, bere aurreko guztiek bezala, euskara guz-tion ondasuntzat hartua, zaindua, lagun-dua eta biziberritua izan dadin.*

Ugaria da kasuistika, baina beste adibide pare batekin amaituko dugu, berriro ere Jesus Maria Agirreren ekarpena baliatuz.

Honela dio, erlatibo murrizgarriari buruz (Agirre, 2009: 28):

Gaztelania formalak erruz baliatu ohi duen egitura hedakor bat erlatiboa da. Erlatibo zehaztaileetan [murrizgarrietan], perpausaren edukia erlieberik gabe gera daiteke esaldian. Nabarmendu nahi izanez gero, oinarritzko sekuen-tziak azaleratu eta adierazpen lokabea eratu daiteke, adierazpena zatituta.

Eta honako adibide hau eransten du. (Berea da letrakera lodia; guk, geure aldetik, testu-antolatzaileak azpimarratu ditugu.)

El agente urbanizador tendrá derecho a ser compensado a cargo de los propietarios en la cuantía de las cargas de urbanización, así como a ser retribuido por dichos propietarios en concepto de gastos de su gestión **en una cantidad que** nunca podrá ser superior al 15% del importe de la obra de urbanización determinada en el programa de actuación urbanizadora.

Urbanizatzaileak eskubidea izango du urbanizatzeko-kargen kopuruaren arabera jabeen kargura konpentsatzeko. Eskubidea izango du, orobat, jabe horiek berari bere kudeaketa-gastuengatik kopuru bat ordaintzeko. **Kopuru hori, hala ere, ezingo da izan** urbanizatzeko jarduketa-programak zehaztutako urbanizatzeko-obraen kopuruaren %15 baino gehiago.

Erlatibozko esaldi ez-murrizgarriari eta aposiziozkoari buruz, berriz, hauxe dio (Agirre, 2009: 29):

Erlatibozko esaldiak esplikatiiboak [ez-murrizgarriak] edo apositiboak direnean, informazio osagarria eransten dute, eta are arrazoi gehiago izango litzateke bereiz emateko. Erlatibo faltsuak dira. Beti ere, itzulgaiaren informazio-dentsitatea eta itzulpeneko hierarkizazioa ebaluatu behar dira.

Eta adibide honekin biribiltzen du esana. (Berrero, egilearenak dira letrakera lodiak, eta gureak azpimarrak).

[El contenido de los planes generales se formalizará en los siguientes documentos:]

- b) Memoria justificativa de cumplimiento del informe preliminar de impacto ambiental, **que asimismo deberá motivar** la ordenación adoptada desde el principio de desarrollo sostenible, **en el que se hablará de considerar** la capacidad de acogida de los suelos para el cumplimiento de las previsiones contenidas en el plan.
- b) Memoria bat, ingurumen-kalteari buruzko aurretiazko txostena bete dela justifikatzeko. **Memoria horrek, gainera,** garapen jasangarriaren printzipioaren ikuspuntutik **justifikatu beharko du** egindako antolamendua. **Printzipio horren barruan, bestalde,** lurzorua planaren aurreikuspenak betetzeko duen hartze-gaitasuna **izan beharko da kontuan.**



## BIBLIOGRAFIA

Bitan banatu dugu bibliografiari buruzko atal hau. Lehenengoan, liburuan aipatutako lanak zerrendatu ditugu: geure hau egiteko oinarria eta argibidea eskaini izan eta aipatu ditugunak. Gehiagotan ere aurkitu dugu laguntza baliotsua. Xehetasun eta zehaztasun gehiago behar izanez gero, aipatutakoen bibliografietan daude. Bigarreanean, adibideen iturriak zerrendatu ditugu.

Bada lanik bi zerrendetan azaltzen denik, hain zuzen, bai argibidea eta bai adibideak eskuratzeko iturri izan dugulako.

Praktikotasuna irizpide, eskuratzeko errazten diren edizioen aipua egin dugu bi sailetan.





## AIPATUTAKO LANAK

AGIRRE, Jesus Maria (1991): *Euskal gramatika deskriptiboa*. Bilbo: Labayru Ikastegia [bi liburuki].

AGIRRE, Jesus Maria (2009): *Itzulpen Estrategiak*. Oñati: Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea.

AGIRRE, Txomin (1988): *Kresala*. Euskal Editoreen Elkarte.

ALTUBE, Sebero (1975). *Erderismos*. Bilbo: Indauchu.

ALTUNA, Patxi (1988): “Aurkezpena”. In MITXELENA, Koldo: *Euskal idazlan guztiak I: Bertso berriak, berriketan, zinea eta adabakiak*. Euskal Editoreen Elkarte: 15-33.

AMURIZA, Xabier (2010): *Euskara batuaren bigarren jaiotza*. Oiartzun: Lanku.

AREJITA, Adolfo (zuz.) (2001): *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Lehenengo pausuk*. Bilbo: Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

AREJITA, Adolfo (zuz.) (2005): *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Bigarren pausuk*. Bilbo: Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

ARISTEGIETA, Xabier (2009): “Euskarazko testuen komunikagarritasun-problema larriak”. *Senez* 37: 103-141.

AUSTIN, John L. (1962): *How to Do Things with Words*. Oxford. [Gaztelaniaz: *Cómo hacer cosas con palabras*. Barcelona: Paidós, 1990.]

BERRIA (2006): *Estilo liburua*. Andoain: Berria.

BIGURI, Koldo (1996): “Erdarazko erlatiboen itzulpenak”. *Administrazioa Euskaraz*, 13: 16.

BRONCKART, Jean-Paul (1996): *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*, Lausanne - Paris, Delachaux et Niestlé. [Gaztelaniaz: *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. San Sebastián de los Reyes (Madrid): Fundación Infancia y Aprendizaje, 2004.]

CORPUS BATZORDEA EUSKALTZAINDIA (2008): *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

EGUNKARIA (2001): *Estilo liburua*. Andoain: Egunkaria.

EHAA (1993): “Agindua, apirilaren 6koa, Lege Egitasmoak, Dekretuak, Aginduak eta Erabakiak lantzeko jokabideak arautzen dituen”. *Euskal Herriko Agintaritza Aldizkaria*: 1993.04.19.

ESNAL, Pello (2009): *Testu-arkitektura eta Gramatika, ekintza komunikatiboaren baitan*. Donostia: HABE [Hizpide 71].

GOENAGA, Patxi (1978): *Gramatika bideetan*. Donostia: Erein.

GRAMATIKA BATZORDEA. EUSKALTZAINDIA (1987): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (Eranskina)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GRAMATIKA BATZORDEA. EUSKALTZAINDIA (1990): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – III (Lokailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GRAMATIKA BATZORDEA. EUSKALTZAINDIA (1991): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GRAMATIKA BATZORDEA. EUSKALTZAINDIA (1993): *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GRAMATIKA BATZORDEA. EUSKALTZAINDIA (1994): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – IV (Juntagailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GRAMATIKA BATZORDEA. EUSKALTZAINDIA (1999): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – V (Mendeko perpausak - I)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GRAMATIKA BATZORDEA. EUSKALTZAINDIA (2005): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – VI (Mendeko perpausak – 2)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

HIDALGO, Victor (1994): *Hitzen ordena euskaraz*. Doktore-tesia [<http://www.inguma.org>].

HIDALGO, Victor (2002a): “Erlatibo hautsiak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (I)”. *Fontes Linguae Vasconum* 89: 27-80.

HIDALGO, Victor (2002b): “-en... erlatibo aposatuak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (II)”. *Uztaro* 42: 17-83.

HIDALGO, Victor (2003): “Zein (eta Bait-) erlatiboak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (III)”. *Fontes Linguae Vasconum* 92: 19-56.

HIDALGO, Victor (2004): “Izen ardatz determinatugabeen ondoko erlatiboak euskaraz. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (IV)”. *Gogoa* IV 1: 121-174.

HIDALGO, Victor (2005a): “Eskuinetiko erlatiboak euskaraz, izen ardatzaren ondoren (ere) hedatzen direnak (eta V). Ikuspegi orokorra”. *Fontes Linguae Vasconum* 98: 79-105.

HIDALGO, Bittor (2005b): “Erlatibo aukerak euskaraz. Ikasi eta irakatsi”. *Hizpide* 59: 3-60.

IVAP (1994): *Hizkera argiaren bidetik*. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

IVAP (2003): *Galdezka. Euskarazko zalantzei erantzunez*. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

IVAP (2005): *IVAPeko estilo-liburua*. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

KALTZAKORTA, Mixel (1997): “Erdarazko relatibo esplikatibo mota bat euskaratzen”. *Uztaro* 22: 59-67.

KALTZAKORTA, Mixel (2007): *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I)*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

LERTXUNDI, Anjel (2009): *Eskarmentuaren paperak*. Irun: Alberdania.

MARTÍN ZORRAQUINO, María Antonia, PORTOLÉS LÁZARO, José (1999): “Los marcadores del discurso”. In BOSQUE, Ignacio, DEMONTE, Violeta (dir.): *Gramática descriptiva de la Lengua Española*. Madrid: Espasa Calpe: 4.051-4.213.

MITXELENA, Luis (1968): Txostena. *Euskera* 13: 203-219.

MITXELENA, Koldo (1988a): *Euskal idazlan guztiak V: Literaturaren inguruan I*. Euskal Editoreen Elkarte: 117-124.

MITXELENA, Koldo (1988b): *Euskal idazlan guztiak VI: Hizkuntzalaritzaz I*. Euskal Editoreen Elkarte: 137-167.

MICHELENA, Luis (1990): *Fonética histórica vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia [bigarren argitalpen berrinprimatua].

ORMAECHEA, Nicolás, Orixe (1918): “Acento vasco”. *Revista Internacional de Estudios Vascos* IX: 1-15. [Berrargitalpena. Bilbo: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca: 1969.]

OSA, Eusebio (1990): *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.

SARRAILH DE IHARTZA, Fernando (1979): *La Nueva Vasconia*. Donostia: Ediciones Vascas.

URRUTIA, Andres, URRUTIA, Esther (2007): “Lehenengo argitaraldiaren aitzin-solasa”. In ZENBAITEN ARTEAN: *Kode Zibila. Código Civil*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea [bigarren argitaraldia]: 45-56.

VILLASANTE, Luis (1975): “Hitzaurre gisa”. In ALTUBE, Sebero: *Erderismos*. Bilbo: Indauchu: V-XII.

VILLASANTE, Luis (1976a): *Sintaxis de la oración compuesta*. Oñate: Editorial Franciscana Aranzazu.

VILLASANTE, Luis (1976b): “Seigarren edizioari aitzinsolasa”. In AXULAR, Pedro: *Gero*. Oñati: Jakin: IX-XXXIV.

VILLASANTE, Luis (1988): *Euskararen auziaz*. S.l.: s.n.

ZALBIDE, Mikel (1988): "Mende-hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsu-neak". In ZENBAITEN ARTEAN: *Euskara Biltzarra. II. atala: bizkuntza eta gizartea*. Gasteiz: Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioa: 389-412.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon, ESNAL, Pello (1993): *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ZUBIRI, Ilari, ZUBIRI, Entzi (1995): *Euskal Gramatika osoa*. Bilbo: Didaktiker.



## ADIBIDEEN ITURRIAK

AGIRRE, Jabier (itzultzaile) (1991): *Gipuzkoako bira* [jatorrizko testua, gaztelaniaz: MARTÍNEZ, Jesús]. Bilbo: Sua.

AGIRRE, Jesus Maria (2009): *Itzulpen Estrategiak*. Oñati: Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea.

ALBERDI, Pedro (2010): “Liburua aurkezteko orduan”. *Erlea* 3: 111-113.

ALBERRO, Luzia (1998): *Areatzako euskal jaialdiak 1897*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.

ALTUNA, Patxi (itzultzaile) (2003): *Loiolako San Ignazioaren Gogojardunak* [SAN IGNACIO DE LOYOLA: *Exercicios espirituales*]. Bilbo: Klasikoak.

AMURIZA, Xabier (1999): *Enaz, banaz*. Bilbo: Bizkaiko Bertsozale Elkarte.

AMURIZA, Xabier (2010): *Euskara batuaren bigarren jaiotza*. Oiartzun: Lanku.

APALATEGI, Jokin (2009): “Hitzaurrea”. In FENANDEZ DE LARRINOA, Kepa: *Ikergaiak eta adierazpenak antropologia soziokulturalean*. Donostia: Utriusque Vasconiae: 7-17.

APALATEGI, Patxi (itzultzaile) (1996): *Antropologia estrukturala* [LEVI- STRAUSS, Claude: *Anthropologie structurale*] Bilbo: Klasikoak.

ARARTEKO (1991): *Kalabozoak. Ertzantzaren eta udalen atxiloketa egoitzak. Los calabozos. Centros de detención municipales y de la ertzantza*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko, Euskal Herriko Unibertsitatea.

ARZALLUS, Amets (2002): “Manuel Lasarte bertsolaria”. *Egunkaria*: 2002.09.22: 48-49.



ATXAGA, Bernardo (2009): *Zazpi etxe Frantzian*. Iruñea: Pamiela.

AZKUNE, Iñaki (1997): “Elhuyar taldea: izena eta izana”, “El colectivo Elhuyar: un nombre, una realidad”, “L'équipe d'Elhuyar: à propos des origines et du nom”. In ZENBAITEN ARTEAN: *Elhuyar. Iragana, oraina, geroa*. Usurbil: Elhuyar: 11-15; 39-44; 67-72.

BBK (2011): “Póliza de préstamo con garantía personal-financiación inversiones” / Berme pertsonaleko maileguaren poliza-inbertsioen finantzaketa”. Bilbo: BBK 2011 [argitara gabea].

BERRIA (2010): “Felipe Juaristi idazlea Euskadi Irratiko zuzendari izendatu dute”. *Berria*: 2010.09.18.

BERTSOLARIAK (1963): *Bertsolarien Txapelketa (30-XII-1962)*. Tolosa: Auspoa.

CID, Karlos (itzultzaile) (1993): *Amodio barregarriak* [KUNDERA, Milan: *Smesné lásky*]. Donostia: Erein.

EGAÑA, Andoni (1998): *Pausoa noiz luzatu*. Irun: Alberdania.

EGURBIDE, Izaskun (1992): “Eritasun onkohematologikoen hurbilketa-diagnostikoa”. In ZENBAITEN ARTEAN: *Minbizia. Medikuntz Ibardunaldiak*. Donostia: Elhuyar, Elkar: 153-161.

EHAA (1992): “11/1992 Foru Agindua, urtarrilaren 17koa”. *Euskal Herriko Agintaritza Aldizkaria*: 1992.02.13: 1.324.

ELAO (1996): “Langraiz Okako espetxean osasun-laguntza eta hezkuntza-zerbitzuak hobetzeari buruzkoa”. *ELAO*: 1996.07.12: 4.252.

EL DIARIO VASCO (1999): “Belarra etxera ekartzeko 197 kable zeuden garai batean Ataunen”. *El Diario Vasco*: 1999.05.25.

ELORTZA, Jerardo (1997): *Neguko gutunak* [FERNANDEZ PAZ, Agustín: *Cartas de invierno*]. Donostia: Elkar.

EUSKAL GOTZAINAK (1998): *Exhortación pastoral de los obispos de Pamplona-Tudela, Bilbao, San Sebastián y Vitoria. Cuaresma - Pascua de resurrección / Iruñe eta Tuter, Bilbo, Donostia eta Gasteizko gotzainen artzain abolkua. Garizuma - Piztuerako Pazkoa*. Donostia: Idatz.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2001): “Guztion Euskarak guztion beharra du”. [Adierazpena: 2001eko martxoaren 27koa.]

GARIKANO, Asun (itzultzaile) (2009): *Siete casas en Francia* [ATXAGA, Bernardo: *Zazpi etxe Frantzian*]. Madrid: Alfaguara.

GOIKOETXEA, Juan Luis, BILBAO, Begoña, GAMINDE, Iñaki (2008). *Arrietako euskaldunen jakituria. Kontuak, kantak, bizimodua*. Arrietako Udala, Mendebalde Kultura Alkartea.

HABE (2000): “Kontzentrazio-arazorik?”. In *DB Dokumentu biltegia* 670.

HARITSCHELHAR, Jean, SALABURU, Pello (1999): “Aintzin solas”. In LAFON, René: *Vasconiana*. Bilbo: Euskaltzaindia: XV-XVI. [Iker 11]

HERRIA (1992): “Aiherra”. *Herria*: 1992.05.14: 5.

IBARGUTXI, Felix (2004): “Pozik artzain frantziskotarra”. *El Diario Vasco*: 2004.09.09: 9.

IGELA ARGITALETXEA (2003): Kontrazala. In ELOSEGI, Joxan: *Durduraz eta dar-daraz*. Iruñea: Igela.

IRIGOIEN, Joan Mari (1993): *Consummatum est*. Donostia: Elkar.

IVAP (1994): *Hizkera argiaren bidetik*. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

IVAP (2003): *Galdezka. Euskarazko zalantzei erantzunez*. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

IVAP (2005): *IVAPeko estilo-liburua*. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

JIMENEZ, Edorta (1995): *Hemen datzana da*. Donostia: Elkar.

LETE, Xabier (1974): “Xabier Lizardi edo poesia gailen”. In ZENBAITEN ARTEAN: *Xabier Lizardi, olerkari eta prosista*. Oñati: Jakin: 11-43.

LETE, Xabier (2006): *Abestitzak eta poema kantatuak*. Donostia: Elkar.

LINAZASORO, Karlos (2002): *Entzungailua*. Donostia: Elkar.

MENDIZABAL, Jesus Mari (2010a): “Gernikatik Euskaldunara”. *El Diario Vasco*: 2010.04.10.

MENDIZABAL, Jesus Mari (2010b): “La Bocca Di Bacco”. *El Diario Vasco*: 2010.08.03.

MENDIZABAL, Jesus Mari (2010c): “Apartekoa”. *El Diario Vasco*: 2010.10.26.

MINABERRY, Marijane (1998): *Marijane konta zan*. Donostia: Elkarlanean.

MITXELENA, Koldo (1988): *Euskal idazlan guztiak II. Liburuak I*. Donostia: Euskal Editoreen Elkartea.

MITXELENA, Luis (1998): “Arantzazuko batzarra (1956)”. *Fontes Linguae Vasconum* 79: 469-474.

OAR-ARTETA, Jose Antonio (1991): *Zaar-Barri*. Bilbao: Labayru.

RIVAS, Manuel (2006): *El héroe*. Madrid: Alfaguara.

ROSE, Anne (1991): “Jainko txikia”. In HABE: *Kurrikulu-garapena: 2001-2002. Testuak*: 38-39 [“Jainko txikia”. *Unescoren Albistaria*, 83: 32-33; “Le petit dieu”. *Le Courrier de l’Unesco*, 1991ko urria: 32-33; “Un pequeño dios”. *El Correo de la Unesco*, 83: 32-33].

SALAVERRIA, Sebastian (1964): *Neronek tirako nizkin*. Tolosa: Auspoa.

SHARE, S.L. (itzultzaile) (1998): *Hernani eta bernaniarrak: (mendeetako zertzeladak)* [AGUIRRE, Antxon (1998): *Hernani y los bernaniarras: (retazos de siglos.)*. Donostia: Kutxa eta Gizarte eta Kultur Fundazioa [bigarren argitalpena].

TREKU, Mari (1982): *Mattin, nere gizona*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.

VILLASANTE, Luis (1988): *Euskararen auziaz*. S.l.: s.n.

ZAVALA, Antonio (1967): *Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.

ZENBAITEN ARTEAN (2002): *Foru-lege zibilak. Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroako Foru Komunitatea*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

ZENBAITEN ARTEAN (2007): *Kode Zibila. Código Civil*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea [bigarren argitaraldia].

ZENBAITEN ARTEAN (2010): *22.< udako musikaldia. Zarautz-2010* [eskuko programa].

ZENDOIA, Nikolas (2008): *Sasi guztien gaiñetik*. Donostia: Auspoa Liburutegia, Gipuzkoako Foru Aldundia.

